

HERNANI

MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

1985-2010

HERNANI
MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA
1985-2010

Iñaki Eguren Etxabeguren
Joxan Goikoetxea Maritxalar

Lehen argitaraldia:
2011ko abenduan

"Hernani" Musika Eskola Publikoa
1985 – 2010

Zuzendaritza eta koordinazioa:
Iñaki Eguren Etxabeguren
Joxan Goikoetxea Maritxalar

Azala:
Luis Errazkin Izagirre
Kontrazaleko bertsoa:
Gorka Tolosa

© **Argitalpenarena:**
"Hernani" Musika Eskola Publikoa – Hernaniko Udala
Atzieta 4. 20120 Hernani. Gipuzkoa. Telef: 943.337050
E-maila: zuzen.musika@hernani.net

© **Testuena:** Egileak
© **Argazkiena:** Egileak

ISBN: 978-84-934193-5-6
Lege gordailua: NA-196/ 2012

Sorkuntza, diseinua eta maketazioa:
Grafikoki

Aleak: 1000

Eskerrak diska-liburu hau gauzatzen lagundu duten guztiei.

AURKIBIDEA

ATARIKOA 5

"Orain 25 urteko lehen haziak fruitu ederrak eman ditu"
MARIAN BEITIALARRANGOITIA 7

"Zilarrezko eztaiak"
JOXAN GOIKOETXEA MARITXALAR 8

"Zeinek pentsatu!"
RIKARDO MENDIOLA EGAÑA 11

"Musika Eskola, 25 urte, zorionak eta urte askoan!"
KORO ETXEBERRIA TOLOSA 12

"La Musika Eskola de Hernani: 25 años de celebración"
MARAVILLA DÍAZ 13

EDUKI NAGUSIA 17

Hernaniko Musika Eskola. 1985-2010
IÑAKI EGUREN ETXABEGUREN 17
Oharrak eta bibliografia 73

La Escuela de Música de Hernani. 1985-2010
IÑAKI EGUREN ETXABEGUREN 75
Notas 130

Hernani Musika Eskola, euskal herri musikaren harrobia
JUAN MARI BELTRAN ARGIÑENA 131
Oharrak 155

ERANSKINAK - BESTE AURKIBIDEAK 157

Irudien aurkibidea 159

I. Eranskina. Hileroko Kontzertu zikloa 169

II. Eranskina. Ikasleen zerrenda 173

ETA GAUR EGUN? 185

1985-2010 - AUDIO GRABAKETAK 191

Audio Disc. Kreditoak 193

ATARIKOA

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde

Hernaniko Alkatea

ORAIN 25 URTEKO LEHEN HAZIAK FRUITU EDERRAK EMAN DITU

Herritar orori tokatzen zaigu modu batera edo bestera, honetan edo hartan, egunero erabakiak hartzea, eta ez da beti ondo jakiten orain erabakitzen den horrek ondoren zer ekarriko duen, baina egin egin behar denez, aurrera jo ohi dugu, batzutan asmatuz eta beste batzutan ez hainbeste. Neroni ere egunero egokitzen zaizkit horrelakoak eta denborak esango du zertan aritu naizen finago edo traketsago.

Hernaniko Musika Eskolari begira jarrita, aurrekoen erabakien juzkua egiterakoan zalantzarik ez dut, asmatu zuten oztopoak oztopo aurrera egitea erabaki zutenek. Zer eta beste musika eskoletan eskaintzen ez ziren euskal musika tresnei toki eginez, baita diru laguntzarik gabe izanda ere, eta hortaz beste eskolekin alderatuta berezi egingo zuen eskaintza eginez herritarrei.

Nik, Hernanira iritsi nintzenean, Udaletxeko 4. solairuan ezagutu nuen Musika Eskola bera eta baita bertako irakasleak ere, nahiz eta ikasle modura egungo eraikinean aritu nintzen. Sartzearekin bat Hernaniko Musika Eskolaren altxor diren talde lana, musikarekiko zaletasun neurrigabea eta klase hutsetik harantzago doan inplikazioa sumatu nituen, eta ikasle modura denbora tarte laburra egin arren, zer duen altxor gogoan eraman izan dut beti. Horrek azaltzen du zer dela eta aurki genezakeen nonahi eta noiznahi musika Hernaniko kaleetan. Oso gutxitan antolatzen da ezer herrian musika lagun ez duena, eta horretan Musika Eskola da ardatza, eta bertako eskaintzatik bereziki euskal soinu tresnek dute hartzen kalea. Hori bera bertakoen jarduerak ahalbidetu du, orain 25 urte hartutako erabakiaren hazia erein dutelako.

Are gehiago atzeak erakusten omen duela eta aurrea nola dantzatu, ordukoak eta egindako ibilbideak erakutsi digute egun erabakiak hartzea dagokigunoi bide bera urratzen jarraitu behar dugula, hori dela apustu egokia. Horrek ekarri du 25. urteurrena ospatzen ari garen ikasturte honetan salto bat egitea, orain ere ez testuinguru errazenean, baina egin egin behar den ziurtasunak bultzatuta. Horrela lortu dugu alboka eta txalapartari eskaintzen zaizkion orduak bikoiztea, dultzaina eta txistuaren pare jarriz. Hori posible izan da egungo eraikinak muga handiegiak jartzen dizkigula jakin arren, baina horrek ere izango du soluzioa etorkizunean, eskaria asetzen ez duen eskaintza hobetzeko. Hernaniko Musika Eskolaren 25. urteurrenean Kultur Gune berri baten proiektua zehazteko lehen urratsak ematen ari gara eta bere baitan Musika Eskola berria aurreikusten da. Eraikin berri honek ere ez du bide erraza izango, baina unean uneko erabakiak hartzea tokatu zaigu eta asmo sendoarekin egin dugu, berandu baino lehen Hernanik merezi duen Musika Eskola eta urteko lanaz gozatzeko auditorio egokia lortzeko bidea egin dezan.

Orain 25 urteko lehen haziak fruitu ederrak eman ditu gaur arte eta etorkizun oparoa du aurretik, sustraiak indarberritzen jende asko ari baita eguna joan eta eguna etorri, ikasle, irakasle, entzule... Guztion artean orduko hura altxatzeko modua izan genuen modu berean, etorkizuna lantzeko gaitasuna izango dugu, orain arte erakutsi duzuelako.

Zorionak denei, asko baitzarete Musika Eskolaren hazia erein duzuenak, enbor sendo eta adar askotako zuhaitzari bizirik eusteko.

Joxan Goikoetxea Maritxalar

Musika Eskolako Zuzendaria, 2009-2011

ZILARREZKO EZTAIAK

El color plata de la portada de este libro quiere representar el 25º aniversario de nuestra Musika Eskola. Unas bodas de plata representan siempre una importante efeméride, un momento especial de nuestras vidas en las que merece la pena rememorar vivencias y hechos, y nos dan pie a ordenar nombres, datos y cifras que describen y cuantifican el alcance de una trayectoria. La plata, en cambio, no representa siempre el final de algo, la culminación de un objetivo o la llegada a una meta definitiva. La plata siempre nos da margen para continuar el camino, para superarnos, y para obtener nuevas y mejores experiencias.

"Hernani" Musika Eskola Publikoa se creó en 1985 por iniciativa del Ayuntamiento, que decidió remodelar la antigua Academia Municipal para adecuarse a las nuevas leyes educativas. Dichas normas pretendían regular la enseñanza musical, y propiciaron la aparición de numerosos centros municipales y privados, con el consecuente "boom" de la música como oferta artística y de ocio.

"Sin música, la vida sería un error". Nietzsche.

Pero, ¿cuáles son los principales condicionantes para que en un entorno, pueblo, ciudad o país se dé un proceso de enseñanza-desarrollo de calidad y con personalidad propia?:

¿Su propio entorno? ¿La fortuna de contar con personas de talento innato? ¿La fortuna de contar con personas cuya vocación y dedicación consiga llevar ese talento a un alto grado de desarrollo y madurez? Probablemente, la suma de todos ellos, y muchos más...

Cuentan las crónicas de la época de la Reina Victoria Eugenia, que ésta acostumbraba dar algún paseo por los alrededores de Donostia durante sus numerosas estancias en la capital guipuzcoana. En alguno de ellos, y a su paso por Hernani, fue testigo de alguna manifestación músico-festiva. Desconozco si en su honor, en su contra, o simplemente con motivo de una de las muchas fechas que anualmente se festejan en nuestra villa. Pues el comentario que, al parecer, surgió de su boca fue: *"¡Qué pueblo más simpático, y qué bullicioso!"*.

El pensador Voltaire lo había descrito antes de un modo más poético: *"El pueblo que canta y baila a ambos lados de los Pirineos."*

De una manera o de otra, queda claro que en nuestro entorno, el gusto y la querencia hacia la música y la danza son manifiestas y favorables.

Muchas veces he reflexionado sobre la vocación y las cualidades innatas para cualquier especialidad, y en concreto para la música. Yo tendría 6 años en 1974 cuando me matricularon en la Academia Municipal, y empecé como otros muchos a aprender solfeo y txistu. Recuerdo la inscripción de la placa que había en la entrada del aula situada en el ático del Ayuntamiento. La forma, la textura y la tipografía de sus letras eran como de otra época; uno se transportaba como a otro mundo que le resultaba nuevo y misterioso. En mi caso diría que, además de nuevo, y a pesar de lo vetusto y obsoleto de muchos de los objetos e instrumentos que allí había, me infundía una atracción y un respeto que no he sentido por ninguna otra cosa en mi vida. La organización diaria, y, sobre todo,

la mental y la espiritual, giraba en torno a ese pequeño rato que tuve la fortuna de pasar al lado de D. Juan José Iruretagoiena. Unos años después quise recuperar y guardar aquella placa cuando procedimos a derribar la antigua sede. No llegué a tiempo, pero me imagino que a estas alturas me queda claro que la vocación era aquel deseo de ver aquella inscripción cada mediodía.

Y, ¿sobre la formación, la enseñanza y la pedagogía? Mucho se puede escribir sobre ello.

En estos 25 años, la Musika Eskola ha conocido un profundo proceso de actualización curricular y pedagógica que el Departamento de educación de la Eusko Jaurlaritza ha impulsado desde la implantación de la L.O.G.S.E. en 1992, con una clara influencia de los modelos de enseñanza europeos. Todo ello ha llevado a la creación de un equipo pedagógico que actualmente está compuesto por 20 profesores/as, que han abordado esta etapa con una clara vocación y esfuerzo de reciclarse ante la aparición de nuevos criterios, disciplinas y generaciones que configuran un nuevo universo musical en Hernani.

Hechos como el de la habilitación de las antiguas escuelas públicas de Atzietas como actual sede de la musika eskola, una mayor presencia del alumnado en los actos festivos y tradicionales de Hernani (Preludio de San Juan, afianzamiento de un ciclo de conciertos mensuales como principal oferta musical de Hernani, etc.); el hecho de ser pioneros en la enseñanza reglada de los instrumentos autóctonos, acompañada de una importante oferta de eventos asociados (Txalaparta festa, Albokarien topaketa, Txistulari txapelketa, etc.); pioneros igualmente en la aplicación de la informática a la enseñanza musical desde 1989, o la importante presencia de nuestro alumnado, tanto a título individual como colectivo, en diferentes e importantes certámenes y concursos.

Yehudi Menuhin fue un niño prodigio, y, siendo adolescente, ya recorría el circuito internacional de salas de concierto. Cuando apenas pasaba de los diez años, su padre dejó su puesto de superintendente de las escuelas judías de San Francisco para convertirse en gerente y acompañante del joven virtuoso. Es por ello que resultan de especial interés los comentarios de Menuhin sobre los niños prodigio y sobre la genialidad. Menuhin dice haber tenido la gran suerte de tener unos padres que estimularon sus aficiones artísticas, y supieron darse cuenta de que su capacidad era sobresaliente en un campo artístico determinado. Pero Menuhin comenta a continuación que, a su juicio, casi cualquier ser humano tiene la potencialidad de destacar por sus habilidades artísticas en algún campo concreto, y que, si la educación y el ambiente familiar lo promovieran adecuadamente, serían muchos más los niños prodigio que surgirían. Esos comentarios enlazan bien con las preocupaciones de Menuhin por promover la educación musical infantil, enfatizando menos la perfección técnica que la empatía del joven intérprete con el *espíritu* de la música.

"Hernani" Musika Eskola Publikoa encara estos actos conmemorativos con la vista dirigida igualmente al futuro; un futuro en el que las nuevas generaciones y las nuevas corrientes artístico-creativas demandarán y crearán nuevos hábitos en una sociedad en la que el consumo y la oferta musical tiene cada vez mayor peso específico en el campo sociocultural y en el del ocio.

Este período de reflexión va a coincidir con la aparición del nuevo decreto ley que regulará las normas básicas por las que se regirán los centros de enseñanzas artísticas específicas no regladas, y las Escuelas de Artes de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Este decreto actualizará el anterior, que data de 1992.

Por otro lado, los planes y estudios que el actual Ayuntamiento está realizando sobre la creación de nuevos equipamientos urbanísticos, contemplan la necesidad de un nuevo edificio que pueda albergar a la Musika Eskola. El incremento del alumnado en nuestro Centro actual, y las nuevas disciplinas, están haciendo necesaria la ampliación y adecuación de los espacios destinados a la docencia, o incluso la construcción de un nuevo edificio, con la ineludible premisa de un bien madurado proyecto que optimice las condiciones espacio-acústico-ambientales, que en el actual edificio de Atzietas no se llevó a cabo con la participación de los profesores.

"Estoy seguro de que la buena música alarga la vida". Menuhin.

Me gusta mucho la reflexión de Menuhin, pero, para acabar, me quedo con este anónimo: *"Los mejores y los peores momentos de nuestra vida, siempre están acompañados de alguna buena canción"*.

Zorionak guztioi ! Urrearen bila, 2035ean, hurrengo zita.

Ricardo Mendiola Egaña

Hernaniko Alkatea, 1983-1987

ZEINEK PENTSATU!

Zein erraz izango litzatekeen musika eskolak emandako emaitza ederren aurrean esatea, gu, erabakia hartu genuenak, jakitun ginela honelako emaitzetara ailegatuko zela.

Baina errealitatea beste bat izan zen eta gehiegi luzatu gabe erabakia hartu genuen garaietara joango naiz, 1984 eta 1985 urteetara:

- Hernani azpiegitura beharretan zegoen eta denbora asko behar genuen laguntzak lortzeko.
- Euskal Herrian birmoldaketa industriala gogorra izan genuen eta Hernanin horren eragin zuzena Orbegozokoa izan zen. Konturatu behar dugu Hernaniko bizilagun asko enpresa horretatik bizi zirela. Egoera oso txarra zen.
- Lasarte herri bezala sortu zen. Hernaniko zatiak 10.000 bizilagun zituen. Momentu gogor asko eduki genituen.
- Estatuaren partetik eta guardia zibilen bitartez oso errepresio handia jasan genuen; atxilotuak ugari izan ziren.
- Momentu latzenak gertatu ziren hernaniar batzuen hilketekin, "eskubi indarren" eta guardia zibilen bitartez: Txuria, Rafa Goikoetxea eta Inazio Aztiazunzarra
- Momentu txarretan gauza ederrak ere jaiotzen direnez, egoera hartan kulturako zinegotziak, Koro Etxeberriak, planteatu zizkigun behin eta berriro kontserbatorioren beharra eta kontratazio berriak, aldaketa hori aurrera eramateko. Azkenean, konbentzitu gintuen.
- Hala, kontratu berriak egin genituen proiektua aurrera eramateko: Montserrat Auzmendi, Juan Mari Beltran, Joxan Goikoetxea, Arantza Alberdi eta abar.

Emaitzak orain ikusten ditugu eta pozik egotekoak dira. Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiet: lehendabizi, Koro Etxeberriari bera izan zelako proiektu honen lehendabiziko pertsona babesa eman ziona; eta gero, Juan Mari Beltrani, Joxan Goikoetxeari eta abarri.; lan handia, ona eta ilusio handiz egin dutelako.

Koro Etxeberria
Tolosa

(Hernaniko zinegotzia 1983-1987)

MUSIKA ESKOLA, 25 URTE, ZORIONAK ETA URTE ASKOAN!!!

Igandea, goizeko bederatziak, esnatzen naute, izara artean, goxo, entzuten ditut (zenbaiti ajea areagotzen badie ere), badatoz, astero bezala, hilero, urtez urte, gure txistulariak: diana omen, eguerdian beste talde bat, etxeko lanetan, egunkaria irakurtzen, paseoan, ... aditzen dira, talde bat eta beste bat, oraingoan trikitia eta panderoa, gero flauta, eta ondoren,...

San Joanak iritsi dira, hamabietan txupinazoa, ilusioz, maitasunez, emozioz beterik San Joan Martxa entzuten dugu, hurrengoan txaranga, eta berehala abesbatza, eta segituan, rock kontzertua, eta gero..., eta hurrengoan... herri honetan, beti, txoko eta bazter guztietan –ezin ihes egin- bada nonahi melodiaren bat.

Ederra da Biterin edo Sandiusterrin, Madalena kaperan edo herriko plazan, ezkontza nahiz hiletetan, ekitaldi sozial edo politikoan, baita munduko hainbat herrialdetan ere, biolina eskuan edo txalaparta makilak, gitarra edo.... ikustea/entzutea/disfrutatzea. Bikainak dira eskaintzen dizkiguten lehen maitasunaren doinu haiek, tristura eta poza eragiten dizkiguten besteak, oroitzapena eta berrikuntza ekartzen dizkigutenak, azken batean.

Eta horrela jarrai genezake amaigabeko zerrendan, ez da behar ordea. Hernanik ondotxo daki zer den, zer eman duen hogeita bost urteotan Musika Eskolak, zeinek pentsatuko zukeen!

Denbora iragan da eta orduan bezalaxe garbi, arrunt garbi, ikusten dut asmoa, nahia, helburua, gogoa: Hernanik merezi zuen, behar zuen, musikaz gozatzea, disfrutatzea, emozionatzea, aberastea,...; nahi zuen edonorentzat gunea eta unea. Musika ez zen gutxi batzuen pribilegioa, baizik eta herritar ororen eskubidea, guztiok gozatzeko altxorra, eta horretarako sortu behar genuen Kontserbatorioa.

Sesio handiko egoera politiko eta soziala bizi genuen, (Rikardok ongi azaltzen duen gisa), eta dezente zaila zen horrelako gaiei leku egitea eta behar zuen garrantzia ematea. Hala ere, dena egiteko adorea eta kemena izan zen, -aurretik beste batzuk egindakoa eskertuz eta jarraipena emanez batetik, eta bestetik Hernaniko etorkizuna eginez, prestatuz, eraikiz joan behar genuen momentu hartan-, eta orain ikusten dugu zeinen garrantzitsua izan zen orduko erabaki hura, garai hartan anitz jende horretaz jabetzen ez bazen ere.

Ez zen erraza izan bidea. Esaterako ordura arte inongo eskoletan irakasten ez ziren euskal musika tresnen irakaspenak ematea oso garrantzitsutzat hartu zen. Hara hor ordea gure sorpresa, gure ustekabea, erakundeetatik esan zitzaigunean pianoa edo biolina irakasteko diru laguntza izango zela baina euskal musika tresnak..., horretarako ez!, A ze zaplastakoa! Zer egin? bertan behera utzi edo Udalak bere gain hartu (orduan ere aurrekontua urri, betiko feloa!). Erabakia begi bistakoa da.

Kezka adina indar geneukan eta aurrera egin zen Udaletxeko 4. pisuko gelatxo batean lehen piano klaseen notak entzuten zirela, geroztik gainontzeko denak, errenkan.

Hitzak soberan dira. Dena dela, tartetxo hau eskaini didazuela eskertuz eta bide batez, aprobetxatuz, oso harro nagoela adierazi nahi dut, hernaniar gehienon moduan seguru asko, zaindu, gorde eta hobetzen segitu behar dugu; Musika Eskolak ez du mundua "konponduko" baina alaiagoa, aberatsagoa, jakintsuagoa eta maitagarriagoa egiten lagunduko digu.

Azken lerrook, bihotzez, eta maitasunez, batik bat irakasle eta langileentzako eskaini nahi ditut, izan ere, zuen lana, zuen konpromiso pertsonala eta profesionalagatik ez balitz, ez zen posible izango-eta hau guztia. ESKERRIK ASKO!

Maravillas Díaz Gómez

Profesora Titular del Área de Didáctica de la Expresión Musical. Universidad del País Vasco

Responsable de los Cursos de Formación Permanente del Profesorado de Música (1990-1996) Dpto. de Educación - Gobierno Vasco

La música no es en modo alguno una mera actividad singular o lineal; surge con los cambiantes territorios de la expresión, la intención, el sentimiento, la función, el estado de ánimo, la identidad y la cognición. Las regiones del compromiso son heterogéneas: diferentes, fluidas, multidimensionales y diversas.

David K. Lines
Universidad de Auckland. Nueva Zelanda

LA MUSIKA ESKOLA DE HERNANI: 25 AÑOS DE CELEBRACIÓN

Una celebración es el momento clave en el que se reconoce todo lo que se ha hecho durante un periodo determinado de tiempo y que, inevitablemente, nos conduce a volver la vista atrás. En mi caso el *reloj del tiempo* me sitúa en septiembre del año 1993, año en el que tuvieron lugar en Durango unas Jornadas sobre "Escuelas de Música y Plan Pedagógico" y que marcaban el inicio de una importante Reforma de las Enseñanzas Musicales.

Las jornadas estaban diseñadas y organizadas por el entonces Instituto para el Desarrollo Curricular y la Formación del Profesorado del Gobierno Vasco, y el Área de Expresión Musical del Departamento de Didáctica de la Expresión Musical, Plástica y Corporal de la Universidad del País Vasco. Uno de los objetivos, quizás el más importante, era dar a conocer el modelo europeo de Escuela de Música y mostrar asimismo, algunas escuelas de música del Estado que trabajaban a partir de dicho modelo. Se buscaba establecer un foro de debate en el que el profesorado pudiera intercambiar opiniones, recoger sugerencias y mostrar intereses.

En este encuentro, colaboraron ponentes que nos hablaron de propuestas educativas de música exitosas pero quizás lo que suscitó mayor participación por parte de los asistentes fue la Mesa Redonda que se llevó a cabo bajo el título *Escuelas de Música: Una apuesta educativa*. El Jefe de Servicio de Enseñanzas Especializadas, Guzmán Aranaga y los representantes de dos centros de música de nuestra Comunidad: Getxo e Irún, con Joxean Llorente y Pedro Martínez respectivamente, intervenían como informantes.

No era de extrañar que la atención del profesorado de los entonces conservatorios de música[1] que pasaban a ser escuelas de música, participaran con interés del debate. El establecimiento de objetivos diferenciados de las escuelas de música que la reforma proponía y de los conservatorios que habían venido funcionando hasta esos momentos, conllevaba a diferentes y desconocidas concepciones. Era lógico que el profesorado en sus intervenciones uniera temor ante lo nuevo con incertidumbre por su futuro profesional, ilusión por el cambio (quizás los menos) y una necesidad imperiosa de saber en qué iban a ver cambiada, con el nuevo modelo, su labor docente como profesores de música.

Bajo este panorama, a partir de las jornadas, se organizan y ofertan cursos de formación en didáctica instrumental y cursos de habilitación para el profesorado en raíz tradicional y en formación didáctica para atender a niños y niñas de 4 a 7 años de edad. Estos cursos de habilitación eran acciones obligadas por la Administración Educativa ya que estas enseñanzas estaban recogidas en el Decreto de Escuelas de Música.

La organización y puesta en marcha de los cursos de formación, no fue sencilla. Se requería contar con profesorado cualificado pedagógicamente en la materia a impartir, también debía conocer y apostar por un modelo de enseñanza de música no reglada. Por ello, si la organización de cursos en didáctica instrumental tenía su grado de complejidad, los de habilitación en raíz tradicional conllevaba una mayor complicación.

La convocatoria hecha a músicos de instrumentos populares para ser habilitados como profesores de escuelas de música de dichos instrumentos, vino cargada de polémica. Fueron varios los argumentos vertidos a favor y en contra de esta habilitación, desde mi punto de vista, ambas comprensibles, debido al cambio de mentalidad que se exigía a músicos y profesores con dicha propuesta. No hay que olvidar el grado de marginalidad y el arrinconamiento al que la música popular se ha visto sometida sistemáticamente en los centros de enseñanza musical.

Con todo, los cursos se llevaron a cabo con buena respuesta por parte de los asistentes. Bajo el título "Pedagogía y Didáctica de los Instrumentos Autóctonos del País Vasco" las especialidades que se ofertaban en un comienzo fueron: Trikitrixa por Kepa Junkera y Txalaparta, Dultzaina-Gaita y Alboka a cargo de Juan Mari Beltrán

La Escuela de Música de Hernani como modelo

Como he dicho anteriormente, la enseñanza de instrumentos tradicionales no era algo habitual en los centros de educación musical. Este no era ni mucho menos el caso de la Escuela de Música de Hernani que contaba ya, antes de la reforma y de la mano de uno de los profesores del centro, con estas enseñanzas. Gracias a esta situación un tanto "anómala" pudimos, tomando como base el modelo de enseñanza tradicional que se estaba llevando a cabo en Hernani, dar forma y contenido a los cursos con la ayuda del ya mencionado profesor, Juan Mari Beltrán.

Al margen de posibles discrepancias, la Reforma de las Enseñanzas Musicales derivadas de la LOGSE, contribuyó a que el profesorado de todos los ámbitos educativos profundizara sobre intercambios posibles de metodologías docentes, de actividades exitosas conjuntas y de funcionamiento operativo de los centros, cuestiones todas ellas, bastante atascadas y acomodadas en un pasado totalmente alejado de la realidad social y educativa.

Gracias también a esta reforma, otros países, se interesaron por el cómo y el qué se estaba enseñando en las escuelas de música y en las universidades, ya que al igual que el modelo de escuela de música, derivado de esta Ley, se implanta la especialidad de maestro de música en la Universidad.

Como profesora invitada a participar en varios encuentros internacionales, tuve la gran oportunidad de mostrar el trabajo que se estaba llevando a cabo. Y así, Hernani, con su Escuela de Música, primero en su sede del Ayuntamiento y más tarde en su ubicación actual, pudo viajar como modelo de enseñanza tradicional, a países y lugares tales como la Universidad Federal Rio Grande do Sul, Porto Alegre Brasil; el Conservatorio Hogeschool Alkmaar de Amsterdam, (Holanda); Universidad de la Plata (Argentina); Conservatorio de Las Rosas de Morelia, Michoacan (México); Universidad Metropolitana de Ciencias de la Educación de Santiago de Chile, (Chile). En estos y en otros países a los que "viajamos" puedo subrayar el interés mostrado por profesionales de música de diferentes ámbitos educativos. La música tradicional interpretada por los alumnos y el profesor del Centro así como el sistema musical educativo propuesto en nuestra Comunidad, recibía en numerosas ocasiones halagos por los allí presentes. No quiero perder la oportunidad de agradecer a la Escuela de Música (alumnos y profesores) la oportunidad que me brindó de mostrar lo hecho y recoger felicitaciones por ello.

Comenzaba este escrito recordando unas jornadas de música claves en las enseñanzas de música especializada. Desde entonces han sido muchas las jornadas, encuentros y cursos de formación los que se han realizado. Cada escuela de música de nuestra Comunidad Educativa tiene claro hoy el modelo que desea ofrecer a sus usuarios, un modelo de servicio que, a través de una oferta diversa, desea llegar a todos aquellos interesados por el quehacer musical.

La Escuela de Música de Hernani tiene su propio modelo educativo. Como músicos nos dice Lines (2009, pag.100), *debemos centrar la atención en lo que tocamos y cantamos y esta atención estará siempre en conjunción con los eventos musicales y los diálogos vivos del trabajo cultural que interactúa con la técnica y la expresión. Como educadores musicales, podemos trabajar con estas configuraciones más amplias del trabajo cultural, orientando para ello a nuestros alumnos hacia unos eventos de aprendizaje significativo.*

El modelo de Escuela de Música facilita año tras año eventos que hacen significativo el aprendizaje de la música. Por ello, la Escuela de Música de Hernani cuenta ya con 25 años de celebración ¡ ZORIONAK!

Referencia Bibliográfica

Lines, D.K. (2009). "La improvisación y el trabajo cultural en la música y en la educación musical". En David K. Lines (comp.). *La educación musical para el nuevo milenio*. Madrid: Morata

1. Recordemos que a raíz de la LOGSE se implanta el modelo de Escuelas de Música y que en nuestra Comunidad es mediante el Decreto 289/1992 de 27 de Octubre, se establece los principios, objetivos, normas de creación y estructura de estos Centros



HERNANIKO MUSIKA ESKOLA 1985-2010

IÑAKI EGUREN ETXABEGUREN

HERNANIKO MUSIKA ESKOLA
1985-2010

Hernaniko udal musika eskolak 25 urte bete dituen honetan atzera begiratu bat egiteko garai polita dela otu zaigu, XX eta XXI. mendeen arteko zubia izan den gizaldi laurden horretan gure eskolan egin den lanari erreparatzeko eta, batez ere, hurrengo urteetarako testigantza gera dadin. Izan ere, musika eskola batean, bistan denez, musika egiten da gehienbat, eta musikaren euskarri nagusia esan liteke efimeroa dela, ez baita arte plastikoak bezala bitarteko fisiko batean garatzen: denbora du oinarri. Hargatik, joaldi edo kantaldi bat entzun ondoren, musikak utzitako sentipen edo oroipenak baino ez dira geldituko, beste joaldi bat entzun arte behintzat. Hala dirudi, baina egiaz musika hori baino askoz gertaera konplexuagoa da. "Interpretazioa" deitzen dugun sortzeko uneaz haruntzago (edo honuntzago), musikak baditu azter litezkeen beste alderdi asko (egiturak, alderdi soziologikoak, psikologikoak, teknikoak, komunikaziozkoak, fisiko-akustikoak,...) eta horietako bat da musika hezkuntzarena. Hogeita bost urteko jarduerak Hernanin utzi duen altxorrik preziatuena, beharbada, hainbat jenderen belarritan eta gogoan egon litezkeen doinu eta soinuak izango dira, baina historia txiki bat ere utzi du horrekin batera: bi hamarkada luzetan ikasle, irakasle eta herritarrek Hernanin egindako lanaren historiatxoa. Eta hori azaltzen ahaleginduko gara jarraian.

001

002

Historia hau historia hotz samarra gerta daiteke agian, batez ere datu eta estatistikak ematen jardungo bainaiz, baina ezin esperoko genuen gudaldi handien narratibarik bada, honelako leku xume batean. Bestalde, hasterako aipatu beharra daukat neroni ere askoz interesgarriagoa gertatuko litzaidakeela Hernanikoaren datuez gainera beste musika eskola batzuetakoak ere eskura edukitzea, elkarrenak erkatuz historia zabaltxeago eta osatuago bat eduki ahal izateko eta dauzkagun akatsak hobeto ezagutuz aurrera egin ahal izateko. Baina horrek gehixeago itxaron beharko du, nire aldetik behintzat, lantxo honek berak ahaleginak eta ahalak ere gainditzen dizkit eta.

Bost ataletan banatuko dugu Hernaniko musika eskolaren historia: hasteko eskolaren aurrekariak edo, 1985 arteko historia azaltzen saiatuko gara, eta ondoren eskolaren egitura (hobe esan, egituratzea) deskribatzen saiatuko, alderdi pedagogikoei nahiz azpiegiturei dagokienez. Hurrengo bi ataletan eskola osatzen duten bi "estamentu" edo giza talde nagusiei buruzko datuak eman eta gainetik aztertzeko ahalegina egingo dugu: irakaslegoa eta ikaslegoa alegia. Eta azkenik, jarduera pedagogikoaren helburu nagusienetakoa den alderdi bati helduko diogu: eskolak herrian nahiz herritik kanpo garatu duen musika jarduerari alegia (kontzertuak, kalejirak eta era askotako musika emanaldiak).

003

004

AURREKARIAK: UDAL MUSIKA AKADEMIAREN INGURUAN

Musika Hernanin, seguru asko, Hernani badenetik izan da, baina herriak zer gisako musika egin izan duen jakitea ez da erraza XIX eta XX. mende arteraino, are gutxiago nola ikasi duen musika hori egiten. Hala bada, jakin badakigu Juan Mari Beltran eta Zipri Otxandorenaren lanei esker txistulariak, txalapartariak, dultzaineroak, berrikiago soinu joleak, eta bestelako musikariak izan direla Hernanin, baita gitarristak, bandurria joleak, flautistak, danborreroak, eta batek daki zenbat gehiago ere. Han hemenka ere azaltzen zaizkigu eskolatutako hernaniar musikarien berriak. Esaterako, 1873an, bigarren karlistadaren erdian, Jose Maria Etxeberria izeneko hernaniar bat agertzen zaigu Donostian piano eskola partikularrak eta Kursaaleko kasinoan kontzertuak ematen; uztailaren 14ko iragarki batek hala dio orduko Diario de San Sebastián aldizkarian: *"El aprovechado jóven de Hernani D. José María Echeverría que ha obtenido el primer premio en el Conservatorio de Madrid en la oposicion últimamente celebrada sobre estudios generales en el piano, se ha establecido en esta ciudad y se dedicará a la enseñanza de dicho instrumento a domicilio y en su propia casa, Narrica, 22 tienda."* Hernanin bertan partikularrek piano eskolak eman ote dituzten ez dakigu ordea, XX. mendera arte behintzat. Tekla ikasketarik herrian izan bada, nagusiki organoaren inguruan gertatuko zen hori ziurrenik, berriki arte.

Izan ere, musikari eta musika hezkuntzari buruzko berri zehatzak bilatzen hasiz gero, mende luzetan herriko botere izan direnetara jo behar da, hau da, Eliza eta Udalera.

Elizaren inguruan, eta zehatzago San Juan Bataiatzailearen Parrokian, organoa izan da, kantuarekin batean, herriko musikaren zutabeetako bat. Hala, eta Claudio Zudaireri esker, badakigu 1653an Simon de Artozqui izendatu zutela Hernaniko lehen organista (ZUDAIRE:1998). Organista hauek hernaniarren musika heziketan zein paper jokatu izan duten ere ez dakigu garbi, baina Udal Musika Akademia sortu zenetik eta gure egunetara arte, maiz agertuko zaigu organista musika eskolak ematen. Honela, Musika Bandako lehen zuzendaria izandako Manuel Zendoia aurretik eta aldi berean parrokiko organo jolea izatea ez da kasualitatea. Gero, Federico Iglesiasek ere 1910-1930 bitartean, organistarekin batean beteko zuen bandako zuzendari lana, eta hau zendutakoan Jesus Zubimendik hartuko zuen organoa, banda Jose Maria González Bastidaren eskutan geratuta. Zubimendik berak solfeo eskolak eman zizkion bat baino gehiagori, abesbatzekin egindako lanaz gain. Eta ondoren, jada gure garaietan, Manuel Yaben akordeoi jole handia izan da Hernaniko organista nabarmenena. Honek 80. hamarkada arte eman zituen akordeoi eta organo eskolak, eta solfeokoak ere bai. Organeria, azken batean, zerbitzu munizipala izan ez bada ere, Eliza eta Udalaren arteko harremana oso estua izan da XX. mende amaiera arte, eta musikaren alorrean ere hala behar zuen izan. Hartaraino nahastuak zetozen, badirudiela organisten izendapenean udalak ere, bikaritzarekin batean, paper garrantzitsua bete duela historiako aldi ezberdinetan.

Udalaren musika zerbitzua berriz, lehenik eta behin txistulariek bete izan dute, XIX. mendearen bigarren erdian Musika Banda sortu artean behintzat. Aurrenekoei dagokienez, Patxi Apezetxeak udal artxiboan bilatuta (APEZETXEA:1992) XVI. mendean kokatu zuen, 1531koan hain zuzen ere, danbolinei (gaur egungo txistulariei alegia) egindako lehen ordainketa San Juan festetan eskainitako saioengatik. Hortik aurrera, XVI eta XVII. mendeetan barrena, etengabe agertzen dira danbolina, danborra edo pifanoa jotzeagatik egindako kontratuak (klarinen berririk ez dugu), eta XVIII. mendeko berri handirik ez bada ere, badakigu 1799an Martin Joseph de Ansa izendatu zutela herriko juglare edo danbolintero. Geroztik udal danbolinteroak ez dira falta izan Isidro Ansorenaren zuzendaritzapean, 1910-1922 bitartean, gaur

"ohiko txistu banda"-tzat ezagutzen dugunak forma hartu eta 1936an ezartzeraino (bi txistu, silbotea eta atabala).

Dakigula, danbolinteroen formazioa ez zen izan, ordea, udalaren menekoa (zuzenean ez behintzat) 1920ko araudia aprobatu arte. Hala, Joxe eta Isidro Ansorenak esaterako, solfeo ikasketak udal musika akademian burutu bazituzten ere, txistua jotzen etxean hasi ziren ikasten, osabarekin lehena eta anaiarekin berarekin bigarrena. Eta aurrerantzean ere Leokadisti izan zen, ansorenatarren etxea, txistularien eskola nagusia, bai Ugalde anaientzat, hala nola Joxeren seme Patxi eta Felix Ansorenarentzat, edota herriko beste hainbat gazterentzat. 1965ean Udal Txistulari Bandak ukoa aurkeztu eta urtebetera Xabier Zugasti hasi zen txistu eskolak ematen luistarrenean, eta 1967an udalak Udal Txistu Akademia deitu zuena sortu zuen, Antonio Insausti "Txobito" irakasle zela.

Udal Musika Akademiaren historia estu-estu Musika Bandarenarekin lotua dago gaur egungo Musika Eskolaren sorrera arte. Historia hau ulertzeko ordea, lehenik eta behin musikaren hezkuntzak berak espainiar estatuan izan duen bilakaera arrunt berezia dela aipatu beharra dago. Hori dela eta, labur antzean, "kontserbatorio" edo musika ikastegi ofizialen historia ezagutu behar dugu lehenik, eta horretarako batez ere Mariano Pérezen idazlantxo bat (PÉREZ:1993) hartuko dut bidelagun.

XVIII. mende arteraino Europa osoan musikako eskolak Elizaren eskutan omen zeuden ia osoki: monasterioetako eskolaniatan kantua lantzen zen bereziki, eta zenbait miserikordi edo umezurtzentzako etxetan musika instrumentala (ezagunena beharbada XVI. mendean Venezian Vivaldik gidatzen zuena izango da). Hain zuzen ere umezurtzak 'gordetzen' zituzten orfanato horien eboluzio izango ziren XVIII. mendeko Kontserbatorioak: Venezia, Napoli eta, bereziki, Parisekoa. Frantziar ilustrazioak, nolabait, Elizaren eskumenetik atera zuen musika hezkuntza musika akademia hura sortzerakoan, eta mugimendu honi jarraituko zioten beste herrialdetako ilustratuek ere. Espainiar estatuan "Real Sociedad de Amigos del País" zirelako erakundeek bete zuten paper hau, eta Hego Euskal Herrian ere ez ziren gutxiago izan, ezaguna delarik musikaren heziketan Peñafloridako konteak berak egindako ahalegina Bergarako Seminario sonatuan (BAGÜES:1990).

Honela, 1830ean Madrileko kontserbatorioa sortu zen, "Real Conservatorio Maria Cristina de Madrid" izenez. Kontserbatorio honetan izendapenak zuzenean erregeak (edo erreginak) egingo zituen urte luzetan, eta beroni aplikatutako araudietatik joango zen itxuratzen estatu mailako musika hezkuntza sistema ofiziala, 1966. urtera arte gutxienez. Honela, 1855ean Hilarion Eslava burlatarrak kontserbatorio hartarako egindako solfeo eta konposizio metodoak izango ziren erabilienak XX. mendearen erdi aldera arte. 1861eko araudian solfeo orokorra (hiru urte) eta kanturako solfeoa bereizten ziren, eta solfeo orokorreko hirugarren urteak instrumentuko lehenengoarekin bat etorri behar zuela adierazten. Eta halaxe, 1992. urte arte, gainerako musika ikasketen plan ofizialetan ere solfeoko bigarren maila egin arte ez zen instrumentua lantzen hasiko. Bestalde, 1905 arte, Estatu osoan ez zen Madrilekoa beste kontserbatoriorik legeztatuko (Bartzelonakoa salbu), eta ikaslego librearen matrikulazioa[1] ere, Madrilekoan, 1883 arte ez zen zilegi. Hortaz, XIX. mendean bereziki, eta XX. mendearen lehen erdian ere bai, musika ikasketa ofizialak Madrilen egin zitezkeen soilik.

Honek ez du esan nahi, ordea, herrietan ez zegoenik musika ikasteko premiarik, eta beste kasu askotan bezala, errealitateak aurre hartu zion legeari. Seguru asko estatu osoan gertatuko zen gauza bera, baina Hego Euskal Herriko lau probintzietan behintzat prozesua oso tankeratsua izan zen. Baita Hernanin ere. XIX. mendearen bigarren erdian musika bandek arrakasta handia izan zuten herrietan, eta denbora gutxian zabaldu ziren euskal geografia ia osoan. Hernanikoaren historia egiteko dago oraindik, baina gaizki ez bagabiltza, 1864koan koka liteke honen sorrera. Herriko gazte talde batek alkateari igorritako gutun batek hala adierazten du behintzat. Gutun horri esker badakigu, gainera, lehenagotik ere Manuel Sánchez Salvador zeritzan norbaitek musika eskolak eman zizkiela gazte hauei. Musika heziketari buruz Hernanin ezagutzen ditugun lehen berriak direnez, gutun hau osorik berridaztea interesgarria iruditu zait. Hona hemen:

"Ill. Comision de la música de aficionados de esta villa de Hernani. / Los abajo firmantes todos individuos pertenecientes ála música de esta villa á V.S. reverentemente esponen: que se hallan animados de la mejor voluntad para instruirse en dicho arte; que recuerdan con gratitud ***el tiempo en que Dn Manuel Sanchez Salvador tuvo la amabilidad de asistir asidua y constantemente á sus academias á instruirlos****, y los progresos que en dicho tiempos hicieron, y que desean que el mismo Dn Manuel se encargue de su direccion. / Por tanto / Suplica á V.S. tenga á bien hacer presente nuestro deseo al espresado Dn Manuel álo que y á la accesion de dicho señor quedarán reconocidos. / Dios gu[ard]e á V.S.m[ucho]s a[ño]s / Hernani 6 de Julio de 1864 / Jose Mª Sorondo / Joaquin [...] / Bonifacio Aguirre / Francisco Rojas / José Mª Miner / Mª Galarmendi / José Santacruz."*[2]

Udalak babesten zuen, beraz, mugimendu hura, eta horregatik ez da harritzekoa epe laburrean bere gain hartzea musika bandaren gastuak. 1877rako, oraindik "udal banda" deitzen ez bazaio ere, "zaletuen musika" edo "música de aficionados" zelako banda hark bazuen udal araudia, zeinaren arabera alkateak izendatzen zuen bandaren zuzendaria eta

mila errealetako jornala ezarrita zeukan azken honek, Udalaren kontu noski; Udalaren kargu zihoazen soinu tresnak eta gainerako materialak (paperak, atrilak,...), entsaiatzeko lokala eta honen gastuak ere. Bete-betean udal musika banda bat zen hura. Areago, urte hartako araudiari begiratzen badiogu, hirugarren artikuluak badu guretzat garrantzi berezia: *"Reglamento orgánico de la Música de Aficionados de la N.L. e I. Villa de Hernani. / (...) 3.º* ***Dos veces cuando menos por semanal habrá academia de la música de aficionados, á la que asistirá el Director*** *(...) 10.º Queda á cargo del Ayuntamiento procurar local y alumbrado para academias y ensayos / Hernani 10 de Febrero de 1877 / Aprobado en sesion de 15 de Febrero de 1877 / Por acuerdo del Ayuntamiento / El Alcalde: Juan Esparza / El Secretario: Juan Benito Gaztañondo"*[3] Ohar gaitezen "academia" eta "ensayos" bi kontzeptu desberdin gisa agertzen direla; beraz, hortxe arautzen zaigu lehenengoz, dakigula, Hernaniko Udalaren eskumeneko musika akademia. Arduraduna Manuel Zendoia izango zen, banda haren zuzendaria bera izan baitzen artxiboko dokumentuen arabera.

Urte hartan bertan, 1877an, sortu zuen Donostiako Udalak ere solfeo eskola munizipala, 1900ean "Academia de Bellas Artes" eta 1910ean "Academia Municipal de Música" bilakatuko zena, hurrenez hurren. Eta prozesu beretsua jarraitua izango zuten noski, musika banda izan zuten beste euskal herriek ere. Beti ere bandako zuzendaritzarekin bat, akademia itxura hartzen joan zen, eta 1891. urtean lehenengo araudia ezarri zen Hernaniko Udal Musika Akademiarentzat, Balmasedako Udalak zuena oinarri hartuta. Araudi honen zenbait pasarte dakartzat jarraian, eskola haiek nola funtzionatzen zuten hobeto ulertzeko:

"Proyecto de un Reglamento para la Academia de Musica de la Villa de Hernani[4] */ (...) Articulo 1º Esta academia tiene por obgeto fomentar el arte musical, para que facilitando sus estudios a todos los jovenes de la villa que lo deseen en particular a los de familias pobres, pueda alguna vez ser para ellos honroso medio de subsistencia y para que en los dias de solemnidad o regocijo publico, constituyan uno de los principales elementos que den realce a las fiestas, sirviendo en todo tiempo de honesto a la par que moralizador entretenimiento para todos. / (...) Art. 7º El gobierno interior y la direccion facultativa de la Academia en todas sus ramas se encomendará a una sola persona con el titulo de Director. Este nombramiento deberá recaer por concurso en un profesor de solféo y armonia habil en el manejo de conjuntos é instrumentacion y de moralidad reconocida. / (...) Art. 9º El Director estará obligado bajo su responsabilidad: (...) A esplicar las clases de solfeo, ensayando y dirigiendo los conjuntos en las funciones tanto profanas como religiosas en las que pudiera tomar parte la musica ó coros de la Academia el dia que llegue a tenerlos." / Art. 11º El personal de la Academia se compondrá de:* ***El Director, como profesor de solfeo é instrumentacion de banda****, y de los Auxiliares que serán los dos tamborileros de la villa. / (...) Art. 13º La enseñanza que recibirá la juventud se limitará por ahora a dos secciones: 1ª Solfeo y 2ª instrumental de banda. / (...) Art. 15º* ***Las clases serán diarias y su duracion de dos horas****. Se exceptuan para las clases los jueves, las fiestas de precepto, las solemnidades en que vaquen los establecimientos públicos de enseñanza y el dia de Santa Cecilia en que se procurará organizar algun festival o concierto cada año para celebrarlo dignamente. / Las clases daran principio de preferencia al oscurecer alterandose las horas segun las estaciones del año escolar. / (...) Art. 16º* ***La enseñanza es gratuita*** */ (...) Art. 17º* ***El numero de alumnos admisibles en la clase de solfeo será de 50****, necesitarán para ingresar en la academia* ***haber cumplido diez años****, saber leer y escribir, tener las cualidades fisicas indispensables para el estudio á que han de dedicarse, ser naturales de esta villa o de padres avecindados en la misma y solicitar la matricula del Ayuntamiento. Si el número de solicitantes para la clase de solfeo escediese del fijado en éste articulo, se dará la preferencia á los que reuniendo mejor aptitud para la musica acrediten ser mas pobres. / (...) Art. 27º Las masas instrumentales y corales estarán siempre a disposición del Ayuntamiento para toda clase de funciones y solemnidades en que de ellas quisiese hacer úso / (...) Hernani a once de Junio de 1891"*[5]

Araudi honen ondorioz, akademiako zuzendari plazarako deialdia egin zuen lehenengoz Udalak, eta izangai bakarra aurkeztu zen, gorago aipatu dugun Manuel Zendoia hain zuzen ere, Bandako zuzendari eta Parrokiko organista zena. Izendapen espedientean pasa behar izan zuen azterketa ageri da, eta hortik esan genezake agertu zuen musikaren ezagutza ez zela makala. Tolosako kapera maisu izandako Felipe Gorriti handiaren ikasle izan zen gure Manuel Zendoia, pianoa, organoa, harmonia, kontrapuntua eta fuga ikasi zituelarik harekin.

Akademia haren zeregin behinena musika banda gaztez hornitzea zen, eta horretarako zeukan hezkuntza modeloa kontserbatorioetatik hartutakoa zen (ezin zuen bestela izan): solfeo eskolak ziren nagusi. Hauek hiru ikasturte edo mailatan bereizten ziren, eta irakasle-zuzendariari iruditzen zitzaionean soinu tresna hartzen zuten ikasleek: klarinete, rekinto, tronpeta, saxofoi, tronboi, tuba, danbor, bonbo edo zena zelakoa. Eskola guztiak taldean ematen ziren. Baina izaten ziren bestelako musika beharrak zituzten herritarrak ere, eta akademia denei irekia zegoen. Honela, Zendoiaren ikasle izango ziren, besteak beste, hurrengo urteetan Hernanik eman dituen musiko entzutetsuenak: Olaizola senideak (Juan, Jose eta Gabriel) eta Ansorena anaiak (Joxe eta Isidro). Jose Olaizola Gabarain 1892an agertzen da matrikulatua lehenengoz Zendoiaren solfeo eskolatan, 9 urte zituela; gero organista eta konposatzaile handia izatera iritsiko zen, besteak beste Donostiako Santa Maria basilikako organistia ukan zuelarik. Gabriel Olaizola berriz, abeslari sonatua

eta Eresoinka eta beste abesbatza ospetsuen gidari izango zena, 1900ean ageri da lehenengoz. Joxe Ansorena Eleizegi 1896an hasi zen solfeoa ikasten, eta Isidro anaia 1901ean, biak txistulari handiak.

1905ean estatu mailako musika hezkuntzaren sistema aldatzera zetorren dekretua atera zen, eta lehenengoz Madril edo Bartzelona ez ziren beste hiri batzuetan kontserbatorioak sortzeko aukera eman zuen. Prozesua oso motela izan zen ordea; kontserbatorioen mundua nahiko "kontserban" sartua zegoen nonbait. Bilboko Sociedad Filarmónica zelakoaren akademia ez zen kontserbatorio bilakatuko 1920 arte, eta Donostiako Udal Musika Akademiak berriz 1936an lortuko zuen Oinarrizko Musika Kontserbatorio izendatzeko baimena. Ohartu, gainera, oinarrizko mailarako soilik lortu zutela.

Bitarte horretan, Hernanin, Manuel Zendoiari Estanislao Gorrotxategik jarraitu zion bandaren zuzendaritzan 1906-1910 bitartean, eta urte hartan Federico Iglesiasek hartu zituen organista, bandako zuzendari eta akademiako zuzendari lanak. 1930ean Iglesias jauna zendu zen eta, aipatua dugunez Jose Maria Gonzalez Bastida entzutetsuak hartu zuen Banda eta Akademiaren ardura, Jesus Zubimendik organoa jotzen zuen bitartean. Azken honek solfeo eskola ugari eman zituen, eta bere ikasle izan ziren, besteak beste, Ruiz Bonaren ondoren Hernaniko Musika Banda zuzendu zuten biak. Bastida maisuak 1941ean utzi zuen batuta, eta gero etorriko ziren Jose Antonio Ruiz Bona, Juan Jose Iruretagoiena eta Manuel Sagarna bandaren zuzendaritzan.

1942ko dekretua iraultzaileagoa izan zen. Honek zabaldu zuen, egiaz, musika hezkuntza sistema osatu bat Euskal Herrian ezartzeko bidea. Dekretu hartan hiru kategoriatako kontserbatorioak bereizten ziren garbi (oinarrizkoak, profesionalak eta goi mailakoak), eta Goi Mailako Kontserbatorio izendapena Madril eta Bartzelonakoari bakarrik gordetzen zien arren, zilegi egin zuen erdi mailakoak besteetan garatzea. Honela, Bilboko Kontserbatorioa 1942an bertan bihurtu zen profesional, eta Donostiako Udal Kontserbatorio Profesionala 1944koa da (Easo kalean, bonberoen aldamenean, urtetan derrigor ezagutu dugun hura). Azken hau, 1990ean 35 oinarrizko zentro mendean edukitzera iritsi zen (probintzia osoa), ikasle kopuruan bederen estatuko handienetakoa izateraino. Iruñan 1951.ean sortu zen Udal Kontserbatorioa, eta bost urteren buruan, 1956an lortu zuen Profesional izendapena.

Azkenik, 1966.ean dekretu berri bat eman zen, ordura arteko Kontserbatorioen sistema zehazten eta zabaltzen zuena. Dekretu hura izan da indarrean 1992. urtera arte, eta haren itzalean sortu zen, beraz, gaur ezagutzen dugun Hernaniko Musika Eskola. Dekretu harekin ikasleek lor zitzaketen tituluak kontsolidatu ziren lehenik, beti ere musikarena hezkuntza sistema orokorretik aparte mantenduaz zoritxarrez. Oinarrizko mailan diploma lor zitekeen, erdi mailan musika irakasle, instrumentista edo abeslari titulu profesionala, eta goi mailakoan goi mailako irakasle titulua. Horretarako zentroen arteko desberdintasunak gehiago zedarritu ziren, eta Kontserbatorio Ofizialen aldamenean bestelako batzuk zilegiztatu: Zentro Ez Ofizialak eta Zentro Baimenduak. Osotara, musika ikasle baten karrera hiru mailatan bereizten zen beraz, bi kategoriatako karrerak egin zitezkeelarik: 10 urteko karrerak (pianoa, biolina eta biola) eta 8 urtekoak (gitarra, kantua eta haizezko tresnak). Oinarrizko mailan soinu tresnako 4 edo 3 ikasturte ematen ziren, eta kontserbatorio ofizialez gain, Zentro Ez Ofizial eta Baimenduetan egin zitezkeen, beti ere kontserbatorio ofizial batean matrikulatu eta zegokion azterketa gainditzera, hori bai; gainera solfeoko lau ikasturte gainditu behar ziren diploma lortzekotan, hala nola koraleko bat. Konplexuagoa zen beste soinu tresnentzat, aipatutakoez gain akordeoia eta perkusiokoak bakarrik aurrikusten baitziren, eta hauek ikasturte bakarra izango zuten oinarrizko mailan; horrek erakarri zuen urteen joanean akordeoi ikasketetan batez ere "preparatorio" deitzen zitzaion ikasturtea (lehenengoaren aurrekoa) goma bailitzan tiratu beharra, "hastapena" (iniciación), "prestaketako 1. urtea (preparatorio 1)" eta "prestaketako 2. urtea (preparatorio 2)" gisako formulak asmatu behar izan zirelarik, akordeoi ikasketak beste soinu tresnen mailan jarri nahi baziren behintzat. Txistuaren historia izan da, beharbada, horretan harrigarriena, Isidro Ansorena hernaniarraren eskutik Donostiako Kontserbatorioan sartu zelarik, honen iloba Jose Ignaziorenetik Goi Mailako ikasketak lortzera iritsiko baitzen, eta ikasketa plan osatua Kontserbatorioko hezkuntza plan ofizialen baitan, beste soinu tresnen pare. Donostiako Kontserbatorioan gertatua kasu bakarra da estatu osoan, eta seguru asko Europan ere bai.

Erdi mailako ikasketek ere 4 edo 3 ikasturte izango zituzten, baina hauek nahitaez Kontserbatorio Profesionaletan egitera; eta soinu tresnakoekin batera, solfeoko 5. urtea, koraleko bigarrena, instrumentu taldeko bi, harmoniako lau, musika formak, akustika, estetika, musikaren historia, kultura eta artearen historia eta repentizazio eta transposizioa ikasi behar ziren. Azkenik, goi mailakoek soinu tresnako 2 ikasturte zituzten, ganberako musikako 2 urte, musikaren pedagogia eta irakasle praktikekin batera. Azken hauek gauzatzeko, Goi Mailako Kontserbatorioak ugaritzeko aukera behintzat eman zuen dekretu honek, baina berriro ere prozesua makala baino makalagoa izango zen. Donostiako Kontserbatoriak 1976an eskuratu zuen Goi Mailako izendapena, baina piano ikasketetarako soilik, 1980 arte itxoin behar izan zuelarik bete-betean Goi Mailako Kontserbatorio bihurtzeko. Kontuan hartzekoa da 1978an, estatu guztian, goi edo erdi mailako izan, 34 kontserbatorio besterik ez zegoela.

005

006

007

Hernanin, bitartean, Juan Jose Iruretagoiena jaunak eskuratu zuen Musika Bandaren zuzendaritza 1966an, eta hartan jardungo zuen 1984 arte, azken urteetan Manuel Sagarnak lagundurik. Udal Musika Akademiaren ardura ere bere gain zuen hortaz oriotarrak. Juan Joxe "jauna" Orio eta Hernaniko organistekin hasi zen musika ikasten, ondoren Donostiako Kontserbatorioan pianoa eta konposizioa ikasteko Francisco Escudero maisuarekin, Compostelan, Madrilen eta Sienan hobekuntza ikastaroak eginaz. Gabriel Olaizolarekin Schola Cantorum abesbatzaren zuzendaritzan ere jardun zen. Hernanin lan handia egin zuen, musika akademiakoan bereziki aipagarria delarik solfeo eskolak euskaraz emateko egindako ahalegina. Gaur egun, oraindik, oso-oso eskasak dira musika euskaraz ikasi ahal izateko materialak, eta Iruretagoienak 1968an argitaratu zuen, Erviti etxean, *Solfaketa irakasbidea*: euskaraz idatzita ezagutzen den lehenengo musika metodoa (Jon Oñatibia oiartzuarrarena 1976koa da, eta Luis Mari Bandresena 1985ekoa). Ez dago azaldu beharrik garai zailak zirela haiek euskaraz ezer argitaratzeko, eta ahalegin izugarria suposatu zuela bide hau urratzeak, ez baimenak lortzeko traba handiak ikusi behar izango zituelako soilik, solfeoko terminologia guztia euskaratzeko zegoelako ere bai.

1981ean Eusko Jaurlaritzak hartu zuen Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hezkuntza sistemen ardura, eta honek asko bizkortu zuen oinarrizko ikasketak ematen zituzten zentroen zilegiztatzea. Honela, 80.eko hamarkadan, txanpinoiak bezala ugaritu ziren gure geografian Zentro Ez Ofizial Baimendu zirelako haiek, batzuk Oinarrizko Kontserbatorio izendapena ere lortuko zutelarik. 1981ean Arrasate eta Leioa; 1982an Andoain, Tolosa, Errenteria, Bilboko CEM, Barakaldo eta Beasain; 1983an Azkoitia, Legazpi, Bilboko SCB, Durango, Zumarraga eta Azpeitia; 1984an Gasteizko Udaberria, Bergara, Ordizia eta Donostiako CEM; 1985ean Bilboko Maurice Ravel, Deba, Donostiako Noroabe eta Elgoibar; 1986an Arratia, Durango, Donostiako Musikabi-San Ignacio, Getxo eta Galdakao; 1987an Eskoriatza, Orio, Usurbil, Lezo, Donostiako Studio, Eibar, Santurtzi, Agurain, Artea,... eta Hernani.

Baina, ikusi dugunez, ez zen kasualitatea. Atzean Udalen eta, bereziki, herriaren mende eta erdiko lana zegoen. Eskola haiek lan egiten zuten, batera edo bestera, onarpen osorik ez izanda ere. 1983an, Hego Euskal Herriko hiru probintziak (Nafarroako daturik ez dugu) zuten estatuko musika ikasle ofizialen tasa altuena: 168 ikasle 10.000 biztanleko, esana dugunez Donostiako Kontserbatorio izenekoa (probintzia osoko zentro ez ofizialetako ikasleak biltzen baitzituen) nagusitzen zelarik nabarmen beste guztien gainetik.

1990ean HSAOL (gaztelerazko "LOGSE") lege famatua onartuko zen, eta harengandik isurita, 1992an Eusko Jaurlaritzak musika ikasketa arautuen curriculuma ezartzen duen dekretua jarriko zuen indarrean, eta ez arautuena geroxeago (1992-07-30): gaur ezagutzen ditugun Musika eta Dantza Eskolen sorrera izango zen. Musika hezkuntzaren sistemak jasango zuen azken iraultzaren ataritan (beharbada jasan duen iraultza bakarrarenean), 1988an, estatu mailan 114 Kontserbatorio Ez Ofizial edo Baimendu kontatu ziren, 12 profesional mailakoak eta 102 oinarrizko mailakoak. 114 horietako 37 behintzat, %32, hiru probintziotan; Gipuzkoan 23, estatuko zentroen %20 ingurua. Eta antolakuntza berriak errealitate honi arnasa eman bazion ere, alor askotan oraindik esan liteke XIX. mendean bezalatsu gaudela. 1897ko Hernaniko Udal Musika Akademiaren araudia gaurko musika eskoletakoekin erkatuko bagenu, edo areago, epe motzean egin nahi diren aldeketekin, erraz ikusiko genuke ez direla gauzak hainbeste aldatu. Estatuaren makineria astuna da, baina musika hezkuntzaren kasuan esan genezake astuna baino astunago, aspergarria ere badela. Eta enbarazu hori oraindik ere gurekin dugu; kontuak atera 2010.ean oraindik ez dela lortu musika ikasketak hezkuntza sistema orokorrean barneratzerik, eta kontserbatorio edo musika akademietako eskaintza zenbaitetan tamalgarria baldin bada, zer esan genezake hezkuntza orokorrean (deitu OHO, LH, BBB, DBH edo nahi den eran) musikak duen paperari buruz...

008

009

MUSIKA ESKOLAREN EGITURATZEA

Sorrera edo...

Hego Euskal Herriko musika eskolen egituratzean 1980ko hamarkada iraultzailea izan zela esan genezake. Hernanin behintzat, Udal Musika Akademia gainbehera zetorren arrazoi askorengatik, baina beste aldagai asko elkartu ziren (pertsona eta talde jakinen ekimena batez ere) egoera hari buelta emateko.

1982an, akademia hartan, Iruretagoienak ematen zituen solfeo eskolak, bandako instrumentuekin beste zenbait bandakidek laguntzen ziotela: Manuel Sagarnak zurezkoekin eta Jose Luis Fernandezek metalezkoekin. Txobitok txistu eskolak ematen zituen, eta Manuel Yabenek piano eta akordeoikoak, Iruretagoienari solfeo eskoletan ere laguntzen ziolarik. Ikaslegoa, ordea, behera zihoan, eta 1983-1984 ikasturtean 4 piano ikasle, 5 klarineteko, 7 akordeoiko eta 3 perkusioko baino ez zeuden, salbuespena txistua zelarik, ikasturte hartan Txobitok eta Mila Bergarak 42 ikasle zituztelarik, atabaleko beste 4 ikaslerekin. Denbora gutxirako ordea, 1984-1985 ikasturtean jada Txobito ez baitzen akademiako irakasle gisa ageri, nahiz eta 4 txistu ikasle mantendu zituen bere gisa. Iruretagoiena berak, ikasturte hartan hartuko zuen erretiroa.

1981etik, ordea, beste ekimen bat zetorren, indartsu, herriko musika hezkuntzaren paisaia aldatzera. Imanol Urbietak zuzentzen zuen egitasmoa, Donostiako "Txirula-mirula" eskolan gauzatuko zena, Hernaniko Udalean aurkeztu zen, eta bi urtez herriko ikastolatan eskolaurre eta oinarrizko hezkuntzan musika heziketan jardun ondoren, 1983an proiektu zabalagoa aurkeztu zuten: ikastolatako jarduerarekin batean, musikaren pedagogia ikastaro berezia antolatu zuten eta, guri dagokigunez, gitarra eskolak eskaini proiektu haren zabalpen gisa. Gitarra eskola hauek, hasieran, Udal Musika Akademiaren baitan bildu zituen Udalak, eta 1983ko hartan 120 ikaslek eman zuten izena. Akademiaren beheranzko joera erabat txikitzen zuen horrek.

Imanol Urbietaren eta bere 'ekipoaren' lana hagitz ezaguna da honez gero Euskal Herri osoan, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzan batez ere, baina Hernanin utzi zuen beste emaitza berezirik. Lehenengo lan talde hartan, Imanol Urbieta, Kontxi Aizarna eta Joxe Mari Altuna koordinazio lanetan ziren bitartean, Hernaniko eskolatan aritu ziren Jaione Eskudero, Amaia de la Caba, Eukene Amondarain, Joxean Urbieta, Marisol Ruiz eta, noski, Fernando Ederra ere. Aurrerantzean Fernandok hartuko zuen Hernaniko egitasmo bereziaren gidaritza, eta urte gutxitara Kantuz Musika Eskola izango zenean bilakatuko zen. Ezin dugu ahaztu, noski, Fernandorekin batean urte askotan Kantuz eskolaren arima izango zen Karmele Azpeitia ere.

Nolanahi ere, Kantuz musika eskola udal musika akademiatik aparte eratu zen, eta hala egin du bere bidea, nahiz eta bien arteko harremana ezinbestekoa izan den urtetan. Hortaz, gitarra eskolak ere ez ziren akademian bete-betean barneratu, eta Hernaniko Musika Eskola sortutakoan ere ez.

Akademiaren egoeraren aldaketa beste bide batetik etorri zen: goitik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila sortu zelarik, ikusi dugunez, herrietako oinarrizko musika ikastegiak ofizial egin ahal izateko atea zabaldu zen batetik. Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere sustatu nahi izan zuen, nonbait, probintziako musika jarduera, eta 1983 eta 84an instrumentuak erosteko laguntza bereziak eman zituen, bereziki herrietako musika banda eta akademiei zuzenduak. Egoera hura aprobetxatu beharra zegoen, eta hala, planifikazio handirik gabe, Rikardo Mendiola alkate eta Koro Etxeberria kultur zinegotzi zituen Hernaniko Udalak apostu berria egin zuen udal musika eskolaren alde.

1984. urtean piano irakasle bat kontratatu zuen Udalak, Montserrat Auzmendi del Solar. Lehenengo aldia zen bereziki pianoa irakasteko norbait hartzen zena, ikusi dugunez teklatuak organistaren eta akademiako zuzendari balioaniztun haien eskutan egonak baitziren ordura arte. Pianoa eta solfeoa izan dira kontserbatorioetako eta musika ikastegi ofizialetako plan pedagogiko guztietan agertu izan diren ezinbesteko lehen irakasgaiak, gutxienez 1992 arte, eta beharbada geroztik ere bai. Ez zegoen kontserbatorio izaterik pianorik gabe. Honela, Kantuzekoen gitarrak baino gehiago, piano eskolek ireki zuten Hernaniko Musika Eskolaren bidea. 1984-1985 ikasturte hartan, Udal Musika Akademian Juan Joxe Iruretagoienak jada solfeoko eskolak bakarrik ematen zizkien, Maribi Arruti eta Montse beraren laguntzaz, 95 ikasleri; desagertuak ziren gainerako soinu tresnak. Baina bat-batean pianoko eskaintza berrindartu zen, 19 piano ikaslerekin hasi zelarik.

010

Aldi berean, 1984ko hartan bertan, Koro Etxeberria zinegotziak eta bere taldeak badirudi beste premia bat ere sumatu zutela: euskal soinu tresna herrikoiak jotzen ikasteko aukera oso atzendua zen, eta pianoa edo klarinetea jotzen ikas bazezaketen Hernaniko gaztetxoek, zergatik ez txalaparta edo dultzaina ere? Hartara, Jose Ignazio Ansorena Donostiako Kontserbatorioko txistuko katedradunarekin eta Juan Mari Beltranekin harremanetan jarri, eta azken honi era horretako soinu tresnaz hornitzeko eskatu zioten, itxuraz, hurrengo ikasturtean apustu berri honi aurre egitekotan. Hala izan zen. Txistuak, danbolinak, txalaparta, alboka, dultzainak eta danborra erosi zituen Hernaniko Udalak, eta hura izan zen gerora Hernaniko Musika Eskola izan denaren berezitasun nabarmenenetakoaren hasiera.

1985-1986 ikasturtea

Hernaniko Musika Eskolaren lehen ikasturtetzat jo dezakegun 1985-1986 hartan, jada lanean zen Montserrat Auzmendiz gainera, beste hiru irakasle kontratatu zituen Udalak: Arantza Alberdi, solfeo eta piano eskolak emateko; Juan Mari Beltran, txistua, alboka, dultzaina eta txalaparta eskoletarako; eta Joxan Goikoetxea, akordeoikoetarako. Ikasturtea hasi orduko jabetu ziren, ordea, eskolari oinarri sendoa emateko hura ez zela nahikoa, Udalak helburutzat hartu baitzuen musika eskola berritu hari legezko estatus txukuna ematea.

Honen aurrean, 1964 eta 1966ko estatuko araudiek agintzen zutenez, hiru zentro motaren artean egin zezaketen aukera: zentro ez ofizial baimendua, zentro ez ofizial onartua edo oinarrizko musika kontserbatorioa. Donostiako Kontserbatoriak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko teknikariek hala gomendatuta, bigarrenaren alde egin zuten, baina horretarako gutxieneko baldintza batzuk bete beharra zegoen. Ikus ditzagun:

- 200 ikasle behar ziren gutxienez
- 6 irakasle titulatu ere bai, gutxienez. Horietako batek orkestrako sokazko instrumentuetakoa (biolina, biola, txeloa edo kontrabaxua) eta beste batek haizezkoetakoa (metalak, zeharkako flauta, klarinetea, oboea, fagota edo saxofoia) behar zuten izan gainera.
- Oinarrizko azpiegiturak behar zituen

011

012

Baldintza horiek betetzen zituen ikastetxeak Zentro Ez Ofizial Onartuaren izendapena eska zezakeen. Honek suposatzen zuen, batetik, egoera legal eta aitortuan egotea, eta bestetik zentro ofizial batekiko dependentzia zuzena (Gipuzkoako kasuan Donostiako Kontserbatorioarena alegia); baina batez ere gobernuaren diru-laguntzetara iritsi ahal izateko bidea zen, dudarik gabe.

Irailean emandako matrikulazioa ikusirik (200 ikasletik gora apuntatu ziren), baldintza guztiak betetzeko zera falta zen soilik: biolin eta saxofoi edo klarineteko irakasle bana. Zio honekin, urrian bertan kontratatu zen Erramun Oiartzabal saxofoi eta solfeo eskolak emateko, eta abenduan Eduardo Lassalette biolinekoetarako.

Musika eskolako ikasketen homologaziorako tramiteak jada 1984an hasiak zirelarik, 1986an osatu ziren baldintza guztiak, eta 1987an jaso zuen Hernaniko Musika Akademiak Zentro Ez Ofizial Onartuaren izendapena.

Donostiako Kontserbatorioko menpekotasuna, batez ere, zerean zetzan: ikasleek, Hernaniko matrikulaz gain, Donostiakoan beste bat ordaindu behar zuten. Bigarren matrikula honek suposatzen zuen ofizialki kontserbatorio batean izena ematea, eta maila amaierako azterketak (ekainekoak eta irailekoak) egiteko aukera ematen zuen. Azterketa hauek, oinarrizko graduaren amaieran, derrigor Donostiako Kontserbatorioan

013

014

015

016

egin behar ziren bertako tribunal batekin (nahiz eta Hernaniko irakaslegoaren ordezkariren bat egon zitekeen tribunal haietan), hau da, solfeoko 4. maila (eta bostgarrena)[6], koraleko lehenengoa (eta bigarrena), piano eta biolineko laugarrena eta gainerako soinu tresnatako hirugarreneko azterketak. Aurreko mailatakoak ere, hastapen edo prestaketa urtekoak ezik, derrigor egitekoak ziren, eta matrikula ordaindu beharrekoak, baina hauek Hernaniko zentroan bertan egin zitezkeen, bertako tribunal batekin. Bestalde, ikaslego librea Hernaniko musika eskolan matrikulatzeko aukera ere eman zuen izendapen berriak, gradua igarotzekoak ez ziren azterketak bertan egin zitzaketelarik eskolan ez zebiltzan hernaniarrek.

Legez, ikaslegoaren perfila bi eratakoa zen beraz: ofiziala ala librea. Baina Hernanin hirugarren perfil bat sortu beharra gertatu zen: ikasle ez ofizialena. Izan ere, dultzaina, alboka, txalaparta eta (bigarren ikasturtean) trikitixa ez zeuden legezko irakasgai ofizial gisa jasoak. Honek esan nahi zuen irakaskuntza horiek ez zutela inongo diru laguntzarik ez bestelako errekonozimendurik jasotzen Udalak eman zezakeenetik kanpo. Ez hori bakarrik: jada bigarren ikasturtetik Hernaniko musika eskola berrituan talde instrumentalak lantzen hasiko ziren: txistukoa eta akordeoikoa lehenengo, eta gero etorri ziren saxofoikoa, dultzainakoa eta albokakoa hurrenez-hurren. Musika ikasketa ofizialetan ordea, talde irakaskuntza ez zegoen aurrikusia oinarrizko mailan, ez bazen koraleko urte bat (eta azken hau emateko ere baimen berezia behar zenez, urte batzuk itxaron behar izan zen gure eskolan sartu ahal izateko). Hortaz, euskal musika tresna tradizionalen eta taldeko irakaskuntzaren aldeko apustua Hernaniko Udalak hartu behar izan zuen soilik bere gain. Eta hala izango zen 1993 arte. Egia esan, gaur egun ere ez da lortu instrumentu hauentzako onarpen ofizial beterik.

1985-1992: Musikategia

Hernaniko Musika Eskola esaten diodan honek, egia esan, ez zuen izen ofizial garbirik izango 1995 arte. Ofizialki "Academia de Música" gisa izena emanda bazegoen ere, "Musikategi" izena izan zen erabiliena 1991 arte, eta urte hartan "Kontserbatorio" izendapena lortu bazuen ere, 1993tik aurrera "Hernaniko Udal Musika Eskola" izatera pasako zen, azkenean izen ofizialtzat "Hernani Musika Eskola Publikoa" eman zitzaion arte. Hargatik, Hernaniko musika eskolaren lehen aldiari (1966ko plana indarrean zegoenari alegia) Hernaniko Musikategiarena esango diot, eta bigarrenari (1993-2010) Musika Eskolarena. Aldikatze hau, gainera, etengabe erabiliko dut aurrerantzean datuak aztertzeko garaian.

Lehenengo aldi honetan, Musikategiaren egituratze prozesuan eman ziren urratsak urtez urte laburtzen saiatuko

017

018

019

gara jarraian. Batez ere, hazkundeko urteak izan ziren, bai eskaintza pedagogikoari dagokionez, baita matrikulazioaren aldetik ere. 1992an musika eskolak arautzen zituen HSAOL legea ezarri zenerako, gure musikategia ongi oinarritutako zentroa izango zen, nahiz eta hasiera-hasieratik zituen hutsune askok hor jarraituko zuten. Adibidez, 1985ean Udaletxeko ganbaran hasi ziren eskolak ematen, behin-behineko egoeran, eta ordutik hasi zen behin eta berriz planteatzen eskolak bere egoitza propioa beharko zuela; urteak joan ahala, egoera larritu besterik ez zen egingo, eta 1997 arte itxoin beharko zen eraikin berri bat edukitzeko.

Nolanahi ere, 1985-86 ikasturte hark ez zuen balantze txarra utzi, ikusi dugunez arrakasta garrantzitsua izan baitzuen herritarrengan (matrikulazio kopuruak hala adierazten du), eta hala, 1986ko ekainaren 26an, herriko festetan, lehenengo ikasleen kontzertua antolatu zen.
Hortik aurrera, musikategiko ikasle eta irakasleen musika jarduerak etengabe egingo zuen gora, eta urte gutxian herriko bizitza musikalaren zutabe nagusietako bat bilakatuko ziren.

1986-87:

- "Zentro Ez Ofizial Onartua" izendapena lortzen da, oinarrizko mailan.
- Trikitixa gehitzen zaio eskaintza pedagogikoari, Joseba Tapia irakasle.
- Pianoa ikasteko plazak areagotzen dira eta solfeokoak ere bai, Garbiñe Orbegozo azken hauetako eskolak ematen hasten delarik.
- Juan Mari Beltran eta eskolako txalapartariek I. Txalaparta Festa antolatzen dute, apirilaren 9tik 11ra. Geroztik ez du huts egin beste 24 urtetan.

1987-88:

- Akordeoiko plazak areagotzen dira. Maribel Insausti ere azken hauetako eta solfeoko eskolak ematen hasten da.
- "I. Aste Musikala" izeneko zikloa antolatzen da, 1988ko maiatzak 9tik 14ra. Ikasleen kontzertuak, irakasleenak, Donostiako perkusio taldearen kontzertua eta Hernaniko musika bandarena, hala nola II. Txalaparta Festa biltzen ditu. Hurrengo ikasturtean abiatuko den Hileroko Kontzertu Zikloaren abiapuntua da.
- Dultzaina taldea lehenengo aldiz inauterietako sardinaren entierroan ateratzen da.
- Sanjuanetan ere, lehenengoz agertzen dira egitarauan musikategiko ikasleak (txistulari, dultzainero, txalapartari eta akordeoi joleak) dianak jotzen eta bestelakoetan.

1988-89:

- Korala izeneko irakasgaia ezartzen da, Garbiñe Orbegozo irakasle.
- Perkusioa gehitzen zaio instrumentuen eskaintzari, Javi Lera irakasle.
- Zipri Otxandorenak Erramun Oiartzabal ordezkatzen du saxofoi eskolatan, 4 urtez.
- Musikategia Gipuzkoako Musika Eskolen Elkartean sartzen da.
- Udaletxeko ganbaran jada denak sartzen ez direla eta, perkusio eta biolineko eskolak Biteri Kultur Etxean ematen dira.
- I. Hileroko Kontzertu Zikloa antolatzen da.
- Iganderoko ikasleen musika saioak antolatzen dira lehenengoz, apirilaren 2tik uztailaren 16ra (16 igandez).
- Eskolako ikasle eta irakasleek osatu eta Joxan Goikoetxeak zuzendutako "Hernaniko Akordeoi Taldea" estatuan barrena kontzertu aipagarriak ematen hasten da, Astor Piazzollaren omenez "Libertango" izeneko ikusgarria osatu eta, ondoren, CD bat grabatzeraino.

1989-90:

- Klarinetea eta tronpeta gehitzen zaizkio eskaintza pedagogikoari.
- Irakaslego berria: Ana Martinez (solfeoa), Mikel Mate

(klarinetea), Joseba Garmendia (tronpeta) eta Jesus Mari Garmendia (perkusioa).

- Ikasgelen peregrinazioak aurrera darrai: perkusio, tronpeta eta klarineteko eskolak Aristizabal kaleko lokal batera doaz.
- Lehenengo ordenadorea erosten da: Atari-ST delakoa, 30 megako disko gogorra duena. Estatu mailan, lehenengoetako musika eskola da aplikazio musikalak dituzten programa informatikoak eskolan sartzen. Joxan Goikoetxeak gertatzen du aurreneko ekipo hori software anitzekin, eta ondoren ikastaro eta hitzaldi ezberdinak eskainiko ditu ikastetxe eta kongresu ezberdinetan.
- Talde instrumentalak finkatzen dira, ordutegi lektiboetan hauen entsaio orduak ezarriz: txistu, dultzaina eta alboka taldeak, akordeoi orkestra, eta txalapartari nahiz trikitilari bikoteak.
- Akordeoi ikasleek lehenengo aldiz parte hartzen dute Arrasateko II. Akordeoi Jaialdian.
- Ikasturte amaierako ikasleen kontzertua kontzertu ziklo bihurtzen da, bakarrean jada ikasle guztiek parte hartzea ezinezko bihurtuta.

1990-91:

- Aurreko bi ikasturteetako eskaintzaren zabalpenak onarpen ofiziala jasotzen du (korala, perkusioa, klarinetea eta tronpetak alegia).
- Lehenengo Eskola Kontseilua eratzeko saiakera egingo da, 1990eko azaroan. Ordezkaritza hauek aurkeztu ziren: Iñaki Eizmendi Goiburu udal ordezkari, Manuela Zaldua Muruaga gurasoena, Itziar Etxeberria Balerdi ikasleena, eta Garbiñe Orbegozo Senperena irakasleena. Ez zen lortu Kontseilua eratzerik.
- Dakigula, lehenengo Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua antolatzen da.

1991-92:

Horretarako eskatzen ziren baldintzak betetzen zirela ikusirik, 1991.ean eskola "Oinarrizko Mailako" ikastegi edo kontserbatorio ofizial izendatzeko eskaria tramitatu zen, uztailean izendapena jasoz. Aipatu baldintzak honela labur ditzakegu: gutxienez 500 ikasle behar zituen zentroak, 8 irakasle titulatu, zerbitzu administratiboa, orkestra edo instrumentu talde bat, eta abesbatza. Baldintza horiek bete izanak bakarrik adierazten du ederki zenbaterainokoa izan zen gure eskolaren hazkundea lehenengo zazpi urte haietan. Bestalde, izendapen honek gradua igarotzeko azterketak egitera Donostiara ez joan beharra suposatzen zuen ikasleentzat, eta alderdi pedagogikoetan burujabetza handiagoa ematen zion eskolari.

Baina denbora gutxirako izan zen, ikasturte hartan bertan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak musika eskolak arautzeko legea izango zenaren aurreproiektua zabaldu baitzuen, eta 1992ko urrian aterako zen dekretua indarrean izango zen jada hurrengo ikasturtetik. Horrek bai, dexente gehiago aldatuko zuen musika hezkuntzaren panorama.

1992-2010: Musika Eskola

Musika Eskolak, legez behintzat, izen horrekin eta gaur ezagutzen ditugun eran, laurogeita hamabian 'jaio' ziren hortaz. HSAOL lege hark goitik behera eraldatu zituen, eta honen egituraketa eta eraginaz luze idatzi izan bada ere, eragin hori zertan zetzan azaldu beharrean nago, labur antzean bada ere.

Funtsean, musika hezkuntza bitan banatzen zen: araututakoa eta arautu gabea. Araututako hezkuntza emango zuten zentroak "**kontserbatorioak**" izango ziren, eta arautu gabekoa emango zutenak "**musika eskolak**". Kontserbatorioak (araututako irakaskuntza) hiru mailatan banatzen ziren: oinarrizko maila (4 ikasturte), erdi maila (bina ikasturteko 3 ziklo) eta goi maila (4-5 ikasturte). Ordura arteko kontserbatorioek bezalaxe, legez ongi ezarrita zuten ibilbide pedagogikoa, eta goi maila amaitzean soilik lortu ahal izango zen balio ofizialeko tituluren bat. Hernanikoak ordea, bistan denez, bigarren hautua egin zuen, musika eskolarena alegia; baina ez zen salbuespena izan horretan.

Gaur egun eta Hego Euskal Herriaz ari garela, goi maila hori, propio horretarako sortu zen Donostiako Musikenen eta Iruñako "Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan" egin liteke soilik. Erdi mailari dagokionez, eta beti ere ikastetxe publikoez ari garela, Eusko Jaurlaritzaren mende dauden Donostia (F. Escudero), Bilbo (J.C. Arriaga) eta Gasteizeko (J. Guridi) Kontserbatorioek eta Iruñakoak (P. Sarasate) nahiz beste bost udal kontserbatoriok eskaintzen dute soilik: Errenteria, Irun, Barakaldo, Leioa eta Durangokoek. Badira, nolanahi ere, beste 7 ikastetxe pribatu (denak Bizkaian) horretarako baimena dutenak. Denera 16 ikastetxe [ikus grafikoa].

Hego Euskal Herriko musika ikastetxeak erregimenaren arabera 2009-2010 ikasturtean



Eta oinarrizko mailaren aldeko apustua berriz, aipatu hiriburuetako lau kontserbatorioez gain, sare publikoan udal bakarrak egin du (Barakaldokoak), eta sare pribatuan, Bizkaian baimena 11 ikastetxek badute ere, Araban bakarra da, eta Gipuzkoan ez da alerik ere [ikus grafikoa].

Arututako eta arautu gabeko musika irakaskuntza publikoa 2009-2010 ikasturtean



Kopuru horiek asko aldatzen dira, ordea, Musika Eskolei erreparatzen badiegu. Hauek, honela banatzen dira sare publikoan (denak udal musika eskolak): Araban 6, Bizkaian 17, Gipuzkoan 19 eta Nafarroan 47. Sare pribatuan berriz, Araban 5, Bizkaian 12, Gipuzkoan 30 eta Nafarroan 7. Denera, 89 musika eskola publiko eta 54 pribatu[7]. Hego Euskal Herriko 177 musika ikastetxeetatik, 143 musika eskola izan dira 2009-2010 ikasturtean, ikastetxeen %81 (eta kontutan izatekoa da beste %19etan sartzen direla erdi eta goi mailako ikastetxeak ere). Kopuruei erreparatzen badiegu, musika eskolen aldeko apustua Gipuzkoan eta Nafarroan bereziki nabarmena dela ikusiko dugu, eta azken honetan sare publikoaren aldekoa.

Ezin harritu, beraz, Hernanikoak ere musika eskolaren aukera egin izana 1992ko hartan. Honek egokitze prozesu luze samar bat suposatu zuen, jakina. Batetik, 1995ean iraungi ziren arte, 66ko planeko ikasleei ikasketak burutzeko aukera eman behar zitzaien, eta bestetik, plan pedagogiko berria eratu behar zen. Hori ez zen erabat gauzatuko 1997 arte (eta 2002-2003 arte ez ziren iritsi behin betiko baimenak). Ostera ere, ia gaur arte iraun duen berregituratze prozesua jarri behar zen martxan beraz, eskolaren eguneroko jarduerari eutsiz.

Hasteko, lege berriak musika eskolen eskaintza pedagogikoa lau mailatan planteatzen zuen: 1. maila, hastapenekoa, 7 urte arteko haurrentzako musika tailer gisara aurkezten zena; 2. maila, hasierakoa, irakaskuntza arautuko oinarrizko mailaren pareko gaitasuna ezartzen zuena; 3. maila, gotortzekoa, asko jota arututakoaren erdi mailako bigarren zikloaren parera iritsiko litzatekeena; eta 4. maila, lehentasunezko jarduerakoa, musika eskolen "teilatu" edo deitu izan dena da, gaitasun mugarik ezarri gabe, eskolako taldeetan parte hartuz garatzekoa. Maila horietako bakoitza emateko musika eskolek baldintza jakinak bete behar zituzten zegozkien baimenak lortzekotan. Bestalde, hezkuntza sistema oso honen funtsa taldeko irakaskuntzan zetzan batik bat, eta alderdi teorikoak (solfeoak eta) osagarri gisa baino ez ziren aurrikusten. Bi ardatz horiek bakarrik, musika hezkuntzaren ordura arteko planteamenduak erabat iraultzea suposatzen zuten bada. Eta gainera, ezin ahaztu musika eskola hauen helburu nagusia *"edozein adinetako zaletuei tradizioan oinarritutako dantza eta musikaren alorretan prestakuntza praktikoa ematea"* zela, hau da, zaletuei bideratua zegoen, ez ibilbide profesionala egin nahi zutenei, nahiz eta *"gaitasun eta bokazio bereziak erakusten dituztenak lanbide-ikasketarako bideratzeko eta prestatzeko zeregina"*[8] ez zen alde batera utzi behar; hori, arututako irakaskuntza emango zutenen esku egongo zen. Koadro honetan laburbiltzen da, beraz, ikasketa plan berrira zetorren ikasleari planteatutako aukera kurrikularra:

Musika Ikastetxeak Euskal Herrian

	Musika Eskolak		Oinarrizko Hezkuntza Arautua			Erdi Mailakoa			Goi Mailakoa	
	MEPU	MEPR	OK	OUK	OBMI	EK	EUK	EBI	GK	DENERA
Araba	6	5	1	0	1	1	0	0	0	14
Bizkaia	17	12	1	1	11	1	3	7	0	53
Gipuzkoa	19	30	1	0	0	1	2	0	1	54
Nafarroa	47	7	0	0	0	1	0	0	1	56
DENERA	89	54	3	1	12	4	5	7	2	**177**

MEPU: Musika Eskola Publikoa (Udalak) / MEPR: Musika Eskola Pribatua / OK: Oinarrizko Kontserbatorioa (Gobernuena) / OUK: Oinarrizko Udal Kontserbatorioa / OBMI: Oinarrizko Baimendutako Musika Ikastetxea (pribatua) / EK: Erdi Mailako Kontserbatorioa (Gobernuena) / EUK: Erdi Mailako Udal Kontserbatorioa / EBI: Erdi Mailako Baimendutako Musika Ikastetxea (pribatua) / GK: Goi Mailako Kontserbatorioa (Gobernuena)

1992-93:

- Trikitixa irakasle berria sartzen da eskolan: Lurdes Alkorta.
- Instrumentuen eskaintza areagotzen da, biola sartuaz.
- Musika eskolak arautzen dituen dekretua indarrean jartzen da eta, ondorioz, eskaintza pedagogikoan aldaketak hasten: solfeo eta instrumentuetako hastapeneko maila ("preparatorioa") desagertzen da eta irakasgai berriak sortzen: Lengoaia Musikala eta Abesbatza. Talde irakaskuntza bete-betean txertatzen da eskolaren eskaintzan.
- Juan Mari Beltran eta Joxan Goikoetxeak "Egurraren orpotik dator..." diskoa grabatzen dute eskolako txalaparta ikasleekin batera. Egitasmo hau oso berritzailea da herri musika teknologia berriekin fusionatu eta tratatzeari dagokionean eta hedabideetan asko zabalduko da. Donostiako Musika Berrien Nazioarteko Jaialdian emango da estraineko, San Telmo Museoan

020

021

022

1993-94:

- Irakaslego berria: Aitor Larrañaga (tronpeta), Josune Aierbe (klarinetea) eta Miriam Fernandez Atxaerandio (biolina).
- Oinarrizko Mailako Kontserbatorio izendapena iraungi eta Musika Eskolaren baimena jasotzen du eskolak.
- 1. maila emateko behin-behineko baimena jasota, 4, 5 eta 7 urteko haurrentzako "musikaren hastapena" irakasgaia ezartzen da. Urte luzetan Ana Martinez izango da tailerraren arduradun nagusia.
- Musika Eskolaren lehen plan pedagogikoa garatzen da. Soinu-tresnen funtsezko irakastorduak ikasleko eta asteko 30 minutura murrizten dira eta lengoaia musikalekoak taldeko eta asteko 90 minutuan ezartzen, abesbatzak, derrigorrezko talde den urteetan bederen, 30 minutu izango dituelarik. Lehen indarketa eskolak[9] ematen zaizkie akordeoi, piano, saxo, trikitixa eta txistuko zenbait ikasleri.
- Hernaniko I. Albokari Topaketa antolatzen dute Juan Mari Beltran eta eskolako alboka taldeak, San Juan jaietako egitarauaren baitan.

023

024

025

1994-95:

- Eskaintza berria: musikaren hastapena 6 urteko haurrentzat.
- Eskolako plangintzaz kanpo, dultzainarako danbor ikastaroa antolatzen da lehen aldiz, Tolosako Asier Gonzálezen eskutik.
- 1966ko planaren azken ikasturtea izango da hauxe.
- Maiatzeko piano entzunaldiak finkatzen dira. Gero etorriko dira hastapenekoenak, akordeoikoak, eta urtean zeharreko besteak, hala nola eguberritako piano eta biolin entzunaldiak.

1995-96:

- 1966ko plana iraungitzearekin Solfeo eta Koral izeneko irakasgaiak desagertzen dira. Lengoaia musikalean sakondu nahi duten ikasleentzat "Musika Hezkuntza" izeneko hautazko irakasgaia txertatzen da.
- Kantuz abesbatzak antolatutako Gabonetako Abestien Jaialdian parte hartzen du lehenengoz eskolako abesbatzak.

- Hernaniko I. Dantzari Festan parte hartzen dute eskolako txistulari eta trikitilariek, gerora urtero izango den lez.
- Lehenengo musika eskolen arteko elkartrukea, Orioko musika eskolarekin.

1996-97:

- Biola desagertzen da eskolaren eskaintza pedagogikotik.
- Helduentzako solfeo taldea sortzen da, Miriam F. Atxaerandio irakasle.
- Ikasturtearen erdi aldetik, **Atzieta 4**ko eraikin zaharberritua erabiltzen hasten da eskolak emateko, hurrengo ikasturtetik aurrera eskolaren egoitza berria izango dena.

026

027

028

029

030

031

1997-98:

- Lehenengo zuzendaritza ezartzen da: Ana Martínez zuzendari eta Maribel Insausti idazkari.
- Eraikin berriaren inaugurazioa 1997ko azaroaren 26an. Azkenean musika eskolak badu egoitza. Laster, ordea, txiki geratzen hasiko da hau ere.
- Joera Ezberdinak izeneko adarrari dagozkion eskolak emateko behin-behineko baimena jaso eta aurreneko matrikulazioak gertatzen dira irakasgai honetan. Joxan Goikoetxea izango da arduraduna.
- Apirilaren 14an abesbatzak "Kantata 98" izeneko kontzertu erraldoian parte hartzen du, Donostiako Belodromoan, Euskadiko Orkestra eta beste 39 abesbatzekin batera eta Juan Jose Oconen zuzendaritzapean.
- Juan Mari Beltran eta Joxan Goikoetxeak bigarren diskoa grabatzen dute elkarrekin, "Beti ttun-ttun" izenekoa, eskolako txalapartariekin. Kontzertu eta emanaldi mordoska etorriko da ondoren.

1998-99:

- Plan Pedagogikoa itxuratzen da.
- Irakaslego berria: Roberto Pacheco (saxofoia) eta Iñaki Eguren (dultzaina eta txistua).
- Ikasleen banda sortzen du Robertok, lehenengo jendaurreko emanaldia ekainaren 17ko ikasleen kontzertuan egingo duelarik.
- I. Preludio Txikia antolatzen du musika eskolak, Kantuz eta Doinuzale musika eskolekin batean, herriko ikastetxe guztietako haurrak bilduz.
- Abesbatzak Amaia Zubiriaren "Hou Pitxu, hou!" diskoaren grabaketan hartzen du parte.
- Hernaniko doinu herrikoiak biltzen dituen "Hernanin entzuna" diskoa ere urte honetan grabatzen da. Joxan Goikoetxeak zuzendu eta ekoitzitako egitasmo aipagarri honek herriko musika talde guztiak bilduko ditu hauen artean musika eskolako txistulari eta abesbatza ere badirelarik.
- Joera ezberdinetako ikasleek osatzen duten Ekhin taldeak lehendabiziko maketa grabatzen du eta zuzeneko saio mordoska eskaintzen.
- "La sombra del sol" izeneko taldea ere joera ezberdinetako ikasleek osatzen dute. Hauek Urnietako salestarrenean ospatutako XXVI On Bosco-Adarra Txapelketan lehenengo saria lortzen dute. Ondoren 6 doinuz osatutako maketa grabatuko dute.
- Eli Goikoetxea ikasleak goi mailako akordeoi ikasketak amaitzen ditu, Donostiako Goi Mailako Udal Kontserbatorioan libretik lortuz titulazio. Oinarrizko mailatik gorenekoetara, ikasketa guztiak musika eskolan burutzen dituen aurreneko ikaslea da.

032

- Dakigula, lehenengoz hartzen dute parte piano ikasleek Donostia Hiria piano lehiaketan, sari ezberdinak lortuz urteen joanean.
- Eskolako trikitilariak Donostiako San Martin plazan jotzen dute, Behemendi elkarteko merkatariek eskatuta, urte askotan egingo dutena.
- Urrian Zaldibian antolatzen den Ardiki Egunean agertzen dira Hernaniko musika eskolako txistulari, albokari, dultzainero, trikitilari eta txalapartariak. Geroztik ez dute huts egin.
- Dultzaina taldea lehenengoz Antiguoko olentzeroan ateratzen da jotzen.

033

1999-00:

- Irakaslego berria: Montserrat Auzmendiren ordez Joxan Rodriguez hasten da pianoan, eta Jesus Mari Garmendiaren ordez Javi Morcillo perkusioan. Tronpeta, berriz, Aritz Lonbidek hartuko du.
- Eskola Kontseilua berrantolatzen da eta, oraingoan bai, martxan jartzen.
- Albokari, dultzainero eta txistulariak Bayernsbrönn-en (Alemaniako oihan beltza) Goierriko segalariekin.
- Akordeoi eta piano ikasle mordoska batek "Guildhall School of Music to London" eskola entzutetsuko azterketak egin eta diploma bereziak lortzen dituzte lehenengoz.
- Hernaniko VI. Albokari Topaketa, lehen aldiz udazkenean ospatzen da.
- Azaroan I. Hernaniko Trikitixa Txapelketa antolatzen dute, Kriskitina dantza taldekoekin batean, eskolako trikitilariek.
- Lehen aldiz musika eskolak Olentzeroa ateratzen du.
- Ekhin taldeak 8 doinuz osatutako CDa grabatzen du.
- Nati Merinori omenaldi berezia egiten zaio, bere 70. urtebetetzean, eskolako ikasle zaharrena delako (adinez nahiz iraupenez). Gaur egun ere halaxe jarraitzen du.

034


035

036

037

2000-01:

- Helduentzako solfeo taldea desagertzen da.
- 4. maila emateko baimena jasotzen da.
- Abesbatzak Errenteria Musikaleko Orkestra eta beste abesbatza batzuekin batera, "La misión" eta "Sonrisas y lágrimas" filmeetako musikekin kontzertuak eskaintzen ditu Alegia, Errenteria eta Deban.
- Akordeoi taldeak, Lasarteko Zero Sette akordeoi orkestrarekin batean, kontzertuak eskaintzen ditu Genevan (Suitza) eta Torrelavegan (Kantabria).
- Dultzaina taldeak lehen elkartrukea egiten du Errioxako dultzaineroekin.

038


039

040

041

042

- "Hernanin Jazz" jaialdiaren XVI. eta azken edizioa ospatzen da, Jorge Pardo edo J.M. Ecay-ren mailako jazzeko musiko handiak bertan direla. Musika eskolak jaialdiaren antolakuntzan parte hartzen du.

2001-02:

- Zuzendaritza berria: Arantza Alberdi zuzendari eta Garbiñe Orbegozo idazkari. Hurrengo lau ikasturteetan zuzendaritza elkarbanatua izango da, nahiz eta ofizialki bi urtetan bat eta hurrengo bietan bestea ageri zuzendari gisa.
- Gure eskola Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartean sartzen da.
- Irakasgai berriak: gitarra (Susi Elosegi) eta biolontxeloa (Irati Ortubia).
- Behin-betiko baimenak lortzen dira eskolaren adar eta maila gehienentzat. Trikitixa eta Joera Ezberdinak ematekoak geroago etorriko dira.
- Milagrosa kapera erabiltzen hasten da abesbatzaren eskolatarako, Atzieta 4ko egoitzan jada tokirik ez dagoela eta.
- Abuztuaren 23tik 25era txistulari, dultzainero eta albokariak, Errenteriako Ereintza dantza taldearekin, Iztanbuleko (Turkia) "Uluslarasi Beykoz Kültür Festivali" jaialdian.

2002-03:

- Trikitixa emateko behin-betiko baimena jasotzen da.
- Musika eskolaren logoa ere urte honetan asmatutakoa da.
- Urko Arozena, perkusio irakasle.
- Elgoibarko II. Instrumentu Taldeen Lehiaketan parte hartzen dute ikasleek lehenengoz, saria lortuz. Geroztik, lehiaketa hau antolatu den aldiro parte hartu du eskolak, sari eta poz ugari eskuratuz.
- Uztailaren 29tik 31ra, albokari, txistulari eta dultzaineroak Plasenciako (Cáceres) "VII Festival Folk Plasencia" jaialdian.
- Hernaniko I. Saxofoi Jazz Mintegia antolatzen du Roberto Pachecok eskolan.
- Joxan Goikoetxea San Joan Jaien Iragarpen Kontzertu herrikoiaren zuzendari artistikoa da bigarren aldiz. Edizio honetan kontzertu honen egitura eta antolakuntza indartzen dira parte hartzaileen ahalegin bereziaz eta errepertorioan berrikuntza nabarmenak eginaz. ETBk kontzertua erretransmitituko du.

2003-04:

- Zuzendaritzan aldaketa: Garbiñe Orbegozo zuzendari eta Arantza Alberdi idazkari. Zuzendaritzak elkarbanatuta darrai.

- Pianistek talde irakaskuntza gauzatzeko dituzten zailtasunei erantzuteko asmoz, teklatu taldeak sortzen dira.
- Uztailaren 18tik 20ra, txistulariek, Errenteriako Ereintza dantza taldearekin batean Bartzelonako "XXVI Festival Internacional de Música de Cantonigrós" jaialdian parte hartu eta lehen saria irabaziko dute.

2004-05:

- Iñaki Alberro biolontxeloko irakasle.
- Hernaniko I. Txistulari Jaialdia, Antonio Insausti "Txobito"ren omenez. Egitarauan, besteak beste, I. Txistulari Gazteen Txapelketa (gaur gaurkoz, jarraikortasunez Euskal Herrian jokatzen den bakarra).
- Abenduaren 19 eta 20an, abesbatzak Donostiako Kursaalean ospatutako Gabonetako VI. Gospel kontzertu zikloan parte hartzen du, beste hainbat abesbatzarekin batera eta Jerry Smith jaun agurgarriaren zuzendaritzapean.
- Dultzainero eta txistulariak Villar del Ríoko (Soria) "I Certamen de Música Tradicional" jaialdian.
- Kaldereroen musikarekin maketa grabatzen dute ikasleen bandak eta abesbatzak, herriko ikastetxeek eskatuta.
- Zarautzeko I. Nazioarteko Akordeoi Kongresua ospatzen da Hauspoz elkarteak (Euskal Herriko Akordeoi Elkartea) antolatuta, gure eskolako irakasle eta ikasleek zuzenean parte hartzen dutelarik antolakuntza horretan.

2005-06:

- Zuzendaritza berria: Roberto Pacheco zuzendari eta Iñaki Eguren idazkari.
- Andoaingo I. Piano Jaialdia antolatzen du "Seiasle" elkarteak Bastero kulturgunean, gure eskolako Arantza Alberdi elkarte horretako lehendakaria delarik hasiera hartatik. Geroztik urtero hartu dute parte gure eskolako pianistek ere.
- Dultzaina taldeak Errenteriako "Erromeria Eguna" delakoan parte hartzen du estrainekoz, geroztik ia urtero bertan izango delarik.
- Idoia Laburu akordeoi ikasleak Lehen Saria lortzen du Finlandiako "Primus Ikaalinen Accordion Competition" lehiaketan. Sari garrantzitsu hau Tarja Halonen Finlandiako lehendakariaren eskutik jasoko du eta gertaera zuzenean ikusiko da herrialde hartako telebista kate nazionalean hala nola, satelite bidez, mundu mailan ere. Ondoren Lasarte-Oriako Nazioarteko Akordeoi Jaialdian parte hartuko du, arrakasta handiz.

2006-07:

- Amaia Aldalur, hastapeneko irakasle. Ana Martinez pianoan ari da aurreko ikasturtetik.
- Saxofonistek "Hernasax" Saxofoi Topaketak antolatzen dituzte azaroaren 23tik 26ra.
- Chillida-Lekuko sagardo egunean lehenengoz parte hartzen dute eskolako ikasleek, geroztik urtero kale egin gabe jarduteko.

043

044

045

- Akordeoi ikasleek Lauhaizeta akordeoi orkestrarekin diskoa grabatzen dute azaroan.
- Apirilaren 28an akordeoi taldeak kontzertu berezia eskaini du Burgosen, eta 29an Madrilen.

2007-08:

- Zuzendaritza berria: Maribel Insausti zuzendari eta, berriro, Iñaki Eguren idazkari.
- Gitarrako plazak areagotzen dira.
- Perkusio ikasleek sanjuanetako lehenengo batukada eskaintzen dute, ekainaren 25ean.

046

047

048

049

- Musika eskolako txistulariek antolaturik, Jagoba Astiazaranek txistu kontzertu berezia eskaintzen du, ekainaren 6an, goi mailako ikasketak amaitu dituela eta.

2008-09:

- Azaroaren 17tik 20ra akordeoi taldea Castelfidardo-ko (Italia) "Concorso Internazionale per Orchestre di Fisarmoniche" jaialdian.
- Hernasax saxofoi taldeak kontzertu berezia eskaintzen du Javier Girotto Erromako kontserbatorioko saxofoi irakaslearekin batean, maiatzaren 9an.
- Maiatz hasieran, lehenengoz, Itziarko Erromeria Eguna antolatzen da eta eskolako dultzainero eta txistulariek parte hartzen dute.
- Txistu ikasleek praktikak egiten dituzte Donostiako Udal Txistu Taldearekin, Jose Ignazio Ansorenaren eskutik, lehenengoz maiatzaren 24an.
- Maiatzaren 29tik 31ra, Donostialdeko musika eskolek antolatutako "Mariren Labirintoa" musikalaren emanaldietan parte hartzen dute eskolako hainbat ikaslek. Baita honen inguruan antolatutako "sormenaren mobilizazioa" kontzertu sailean ere, Donostiako Victoria Eugenia antzokia eta Okendo plazan.
- Alboka eta txalaparta ikasle gazteek Madrileko "día europeo de la música" delakoaren inguruan antolatutako "The Chavales" jaialdian jo dute, ekainaren 21ean, arrakasta handiz.

2009-10:

- 6. zuzendaritza: Joxan Goikoetxea zuzendari eta Amaia Aldalur idazkari.
- Alboka, dultzaina eta txalapartako plazak areagotzen dira, Haritz Ezeizak hartzen dituelarik albokakoak eta dultzainakoen erdiak.
- Tronpeta eskolak Elizatxo ikastolan ematen dira, toki faltan.
- Akordeoi ikasle batzuk "For Children" diskoaren grabaketan hartzen dute parte. UNAC izeneko akordeoiaren sustapenerako elkarte berriak editatzen du diskoa eta Andoaingo Nazioarteko Jaialdia antolatzen, bertan gure eskolako ikasle eta irakasleek Richard Galliano edo Frank Maroccoren mailako akordeoi-jole gonbidatuekin batera jo ahal izango dutelarik.
- Otsailaren 20an, eskolaren 25. urteurrena dela eta, ikasleen bandak Hernaniko Udal Musika Bandaren kontzertuan parte hartzen du, gonbidatu gisa.
- Hileroko kontzertu zikloaren ordez, ikasle ohien kontzertu ziklo berezia antolatzen da, martxoaren 27, 28 eta apirilaren 16an.
- Eskolaren 25. urteurrena dela eta, San Juanetako Jai Batzordeak eta Hernaniko Udalak omenaldi berezia egiten dio eskolari, herriko festetan banderak igo eta jaisteko ohorea emanaz, ekainaren 23an eta 27an.

25 urte eta gero...

"Hernani" Musika Eskola Publikoak, 467 ikasle eta 19 irakaslerekin amaitu du bere 25. ikasturtea, Atzieta kaleko 4.ean duen egoitzan, eta Udalak egoitza berria bilduko lukeen kulturgune berri baten egitasmoa martxan jarri duelarik. Atzietako egoitza, Milagrosa kapera eta Elizatxo ikastolako gelaren bat erabiltzeaz gainera, urte guzti hauetan ezinbesteko areto izan ditu herriko areto bakanak: Sandiusterri eta Biteri Kultur Etxeko areto nagusia. Horietan eta, nola ez, Ezkiaga pasealekuan, Gudarien Plazan (Udaletxeko arkupea da behar bada herriko musika jardueraren testigu gailena) eta Plaza Berrin, hala nola herriko kale eta auzo gehienetan barrena entzun dira, eta entzungo dira, gure ikasle eta irakasleen doinuak, hala nola kanpotik ekarritako musikari eta artista ugarirenak.

Gaur gaurkoz, 4-7 bitarteko haurrentzako musikaren hastapeneko tailerrak eskaintzen dira batetik, eta 8-100 urte bitartekoentzako musika eskolen plangintzako 2., 3. eta 4. mailak. Bigarren mailan lengoaia musikala (lau urtez), taldeko irakaskuntza (abesbatza nahiz talde instrumentalak) eta funtsezko irakaskuntza diren soinu tresnak ikas daitezke, hala nola lengoaia musikalean beste bi urtez sakondu daitekeen, "musika hezkuntza" deritzogun hautazko irakasgaian. Hirugarren mailan taldeko irakaskuntza da nagusi, baina soinu-tresnen irakaskuntzak ere badarrai. Eta azkenik, 4. mailan taldeko irakaskuntza ia soilik. Bigarren eta hirugarren mailatan, gutxi gorabehera seina ikasturteko iraupena aurrikusten da ikasleengan, baina iraupen hau ikasleen beharren arabera laburtzen edo luzatzen da.

Funtsezko irakasgaietan, 16 dira "Hernani" Musika Eskola Publikoak eskaintzen dituenak:

Alboka
Akordeoia
Biolina
Biolontxeloa
Dultzaina
Gitarra
Klarinetea
Perkusioa
Pianoa
Saxofoia
Trikitixa
Tronpeta
Txistua
Txalaparta (taldeko irakaskuntza)
Abesbatza (taldeko irakaskuntza)
Joera Ezberdinak (oro har, taldeko irakaskuntza)

Eta historia honen guztiaren protagonista nagusiak, noski, eskolako ikasle eta irakasleak izan dira, guraso, eskolako beste langile eta herritar guztiekin batean. Hori dela eta, hauei zabalduko diegu hurrengo tartea.

051

052

053

IRAKASLEGOA ETA BESTE BATZUK

Hernaniko musika eskolan, kontratu finkoko irakasleak eta lanaldi osoan jardun direnak, 11 izan dira 25 urteotan: Arantza Alberdi, Lurdes Alkorta, Montserrat Auzmendi, Juan Mari Beltran, Joxan Goikoetxea, Maribel Insausti, Ana Martínez, Garbiñe Orbegozo, Roberto Pacheco, Erramun Oiartzabal eta Joseba Tapia. Horien artean, Arantza Alberdik bete ditu 25 urteak eskolan lanean.

Baina, inor ahaztu ez bazaigu behintzat, Hernaniko musika eskolatik 95 irakasle ezberdin pasa dira. Batzuk egun bat edo bitako ordezkapenak egitera, eta beste batzuk hamar, hamabost edo hemezortzi urtez lanera.

Aurretik esan beharra dago, Hernanikoan, ez ditugula lan baldintza txarrenak izan, ezta gutxiago ere, bertako irakasle izan garenok. Baina musika irakasleen lanpostuek oso egoera xelebreak izaten dituzte maiz, eta gurean ere hala gertatu izan da 25 urte hauetan. Arazoa estrukturala da seguru asko, lanbide honek espezializazio maila altua eskatzen baitu, eta, nire irudiko, batzuetan oraindik altuagoa jarrarazten diogu musikako profesionalok geurok. Hau da, soinu tresna jakin bateko eskolak eman ahal izateko adibidez, tresna jakin horri dagokion titulazioa eskatzen da, eta irakasle bakar batek irakasgai ezberdinak emateko "gaitasuna" izatea (legez behintzat) oso nekeza gertatzen da. Pianistak dira, beharbada, salbuespen nabarmenena, solfeoaren inguruko irakaskuntza ere, oro har, haien esku egon ohi baita. Egoera honek suposatzen du ikasle gutxi erakartzen dituen instrumentu bateko irakasleak oso zaila izango duela lanaldi oso bat betetzea, gaur gaurkoz, musika eskola bakar batean. Honela sortzen dira astegun bat eskola batean, kontratu mota batekin, eta beste bat beste herri batekoan, eta beste kontratu arras desberdin batekin, lanean ibili behar izaten duten "gents de voyage" berezi horiek. Musika irakasleak, alegia.

Lanaldi osoko lanpostu txukunak eratu ahal izateko zailtasun honek errotazio handia eragin du, eragiten du eta, dudarik ez, eragingo du oraindik ere. Eta hori bakarrik ez, kontratazioari erreparatzen badiogu, lantoki berean, lau, bost eta sei perfil ezberdinetako irakasleak aurkituko ditugu, baita lanpostu bera betetzen ere. Nolanahi ere, esan bezala, Hernanikoa salbuespena ez bada ere, ez da txarrena izan horretan, urrutitik ere. Eta hala ere, datu bat ematea nahikoa izango da egoeraren aldrebesa ulertzeko: Hernaniko eskolako irakasle plazen %44 ez da ofizialki existitzen, nahiz eta horietakoren bat, izan, 25 urteotan izan den.

Hernaniko musika eskolan izan diren irakasleen zerrenda ekarriko dut bada, jarraian, aldamenean bakoitzak zein irakasgai eman izan duen aipatuaz. Baina ohar pare bat egin beharrean nago aurrena: batetik, talde instrumentalen irakasgaiak ez ditudala aipatu, Joera Ezberdinak eta Txalaparta salbu, horiek zehaztea zaila gertatzen delako, batez ere oso aldi laburretan aritu diren ordezko irakasleen kasuan. Bestetik, irakasle bakoitzak zehazki zein epe bete duen zehaztu beharrean, iraupen horien luze-laburraren arabera sailkatu ditudala, batik bat hain egoera ezberdinetan egonda banan-banan bakoitzaren lan egoerak deskribatzen hasi beharra suposatuko lukeelako, eta hori, astuna izateaz gainera, ez zait beharrezkoa iruditu.

10 urte edo gehiagoan jardundakoak

Aierbe Gonzalez, Miren Josune (klarinetea)
Alberdi Salaberria, Arantza (pianoa, solfeoa)
Alkorta Pagadizabal, Lourdes (trikitixa)
Auzmendi del Solar, Montserrat (pianoa)
Beltran Argiñena, Juan Mari (alboka, dultzaina, txalaparta, txistua)
Eguren Etxabeguren, Iñaki (dultzaina, txistua)
Fernandez Atxaerandio, Miriam (biolina, lengoaia musikala)

054

055


056

Garmendia Olaizola, Jesus Mari (perkusioa)
Goikoetxea Maritxalar, Joxan (akordeoia, joera ezberdinak)
Insausti Arrizabalaga, Maribel (akordeoia, solfeoa)
Iragorri Aldandondo, Elixabet (akordeoia, joera ezberdinak)
Lonbide Lorente, Aritz (tronpeta)
Martínez Muñoz, Ana (hastapena, pianoa, lengoaia musikala, abesbatza, solfeoa)
Orbegozo Senperena, Garbiñe (solfeoa, korala, abesbatza, lengoaia musikala, musika hezkuntza, hastapena)
Pacheco García, Roberto (saxofoia)

4-10 urte bitartean jardundakoak

Alberro Bilbao, Iñaki (biolontxeloa)
Aldalur Goikoetxea, Amaia (hastapena, lengoaia musikala eta abesbatza)
Arozena Muxika, Urko (perkusioa)
Elosegi Erdozia, Susana (gitarra, lengoaia musikala)
Garmendia Torrano, Joseba (tronpeta)
Larrañaga Burguera, Aitor (tronpeta)
Lassalette Garbaio, Eduardo (biolina)
Loitegi Berasategi, Xabier (akordeoia)
Mate Ormazabal, Mikel (klarinetea)
Oiartzabal Urretabizkaia, Erramun (saxofoia)
Otxandorena Noble, Zipri (saxofoia)
Tapia Usabiaga, Joseba (trikitixa)

Urtebete eta 3 bitartean jardundakoak

Anduaga Permach, Joxean (akordeoia)
Artuzamonoa Basurto, Jon (tronpeta)
Azurmendi Arozena, Idoia (pianoa)
Ezeiza Zabala, Haritz (alboka, dultzaina)
Ezeiza Zabala, Oihana (akordeoia, lengoaia musikala, abesbatza)
Ibañez Mendikute, Leire (solfeoa)
Irijoa Cortés, Ibon (saxofoia)
Iturralde Izuzkiza, Katrin (hastapena, pianoa)
Landaluze Otadui, Hector (biola)
Lera Santamaria, Francisco Javier (perkusioa)
Lizarraga Etxeberria, Maddi (akordeoia, lengoaia musikala, abesbatza, joera ezberdinak)
Lizarralde Alkorta, Saioa (trikitixa)
López Garcín, Fernando (biola)
Morcillo Lanberri, Javier (perkusioa)
Moreno, Luis Mari "Pirata" (saxofoia)
Mujika Zabalo, Idoia (saxofoia)
Ortubia Rodriguez, Irati (biolontxeloa)
Pacheco García, Jorge (perkusioa)
Rodriguez Ormaetxea, Joxean (pianoa)
Ugarte Preciado, Nerea (lengoaia musikala, abesbatza)
Urruzola Garmendia, Juan Mari (dultzaina, txistua)

Ordezkapen luze edo ugaritan jardundakoak

González Granda, Diana (hastapena)
Hurtado Gurrutxaga, Beatriz (pianoa eta hastapena)
Iparragirre Lizaso, Ana (hastapena, lengoaia musikala, abesbatza, pianoa)
Solano Maiza, Kristina (trikitixa)
Soriazu Casas, Alejandro "Satxa" (pianoa eta lengoaia musikala)
Zazpe Ezeiza, Maialen (akordeoia, lengoaia musikala, abesbatza, hastapena)
Zubeldia Arzallus, Larraitz (gitarra)

Ordezkapen laburragotan jardundakoak

Alkorta Miranda, Garikoitz (trikitixa)
Arbelaitz Gallego, Aloña (pianoa)
Arozena Gorostidi, Patricia (txistua)
Arrieta Arrillaga, Miren Idoia (akordeoia)
Arrieta, Leire (akordeoia)
Atxega Zubikarai, Amaia (pianoa)
Aurkia Garaialde, Susana (trikitixa)
Beitia Amondarain, Itziar (pianoa)
Beltran Mendoza, Aitor (akordeoia)
Bocos García, Marta (pianoa)
Carrasco Rodríguez, Serafín (pianoa)
De Felipe Prieto, Xabier (biolina)
Egaña Etxeberria, Izaro (pianoa)
Egilegor Urbistondo, Garbiñe (lengoaia musikala eta abesbatza)
Etxeberria Urretabizkaia, Juanmi (akordeoia)
Etxenagusia Oiarzabal, Miren Junkal (trikitixa)
Galardi Cuñado, Mikel (biolina)
Goikoetxea Miranda, Oihana (trikitixa)
Gurrutxaga, Teresa (pianoa)
Kalonje Estibariz, Añarbe (trikitixa)
Lasalde Galarza, Arantxa (dultzaina)
Martínez Muñoz, Montserrat (hastapena eta pianoa)
Miner, Arkaitz (gitarra)
Montero Imaz, Judith (saxofoia)
Mujika Mujika, Josune (gitarra)
Navas Varga, Ricardo (tronpeta)
Oiartzabal Urretabizkaia, Isaak (saxofoia)
Ortega Barrenetxea, Ainara (biolina)
Ortega Barrenetxea, Joana (pianoa)
Pacheco García, Itsaso (saxofoia)
Pacheco García, Laura (perkusioa)
Pascual Puy, Jose Antonio (lengoaia musikala eta abesbatza)
Pérez Rouco, Xabier (tronpeta)
Rodríguez Hitos, Lourdes (klarinetea)
Rodríguez Agirre, Itxaso (trikitixa)
San Martin Beldarrain, Paul (pianoa)
Solano Maiza, Xabier (trikitixa)
Sukunza Eizmendi, Xabier (lengoaia musikala)
Ugalde Álvarez, Sara (biolina)
Zeberio, Miguel (hastapena)

Eskolako beste langileak

Irakas lanetan aritzen ez den eskolako pertsonala batik bat administratzaile, atezain eta garbitzaileek osatu izan dute. 1997 arte (Atzietako etxea egokitu zen arte alegia), administratzaileak Hiazinto Fernandorena eta Mila Mujika izan dira, eta Milak jarraitu zuen, tartean Ana Larredek ordezkapenen bat eginda, 2008an Josetxo Etxeberriak atezain eta administratzaile lanak hartu zituen arte. Atezainak berriz, laurogeita hamazazpiko hartara arte, udaletxeko atezainak izan ziren noski, udaletxeko ganbaran baitzuen eskolak egoitza nagusia: Jose Luis Zumeta nagusiki, baina honekin batera Udaltzaingoak bereziki eta inoiz errejistroko langileek ere bete izan zuten lan hori. Eskola Atzietako etxera aldatu zenean, Marisa Mecerreyes izan zen urte batzuez atezain eta garbitzaile, Axun Olaran, Arantza Oiarbide, Ixiar Iraola eta Oihane Bakedanok ordezkapen bat baino gehiago egin izan zutelarik. 2003. urtean Amaia Yarza izendatu zuten atezain, eta Alicia Aranburu dugu geroztik eskolako garbitzailea.

Aginte organoak

Eskolaren titularitatea, udal eskola publikoa denez, Hernaniko alkateari dagokio, eta hortaz, 25 urteotan Hernanin alkate izan direnak izan ditugu musika eskolako lehendakari:

Ricardo Mendiola jauna
Agustin Ezponda jauna
Jose Antonio Rekondo jauna
Mertxe Etxeberria anderea
Jose Antonio Rekondo jauna
Marian Beitialarrangoitia anderea

Eskola Kontseilua antolatzeko lehen saiakera berriz, esana dugunez, 1990ekoa da, baina besteak beste hautagai nahikorik aurkeztu ez zelako, edota eskolaren zuzendaritza osatzeko prozesua asko luzatu zelako, 1999 arte ez zuen organo honek behar bezalako itxura hartu. 1999ko azaroaren 26an eratu zenetik, hauek izan dira kontseilu honetako kide izan direnak:

Lehendakariak: lehen aipatutako alkate jaun eta andereak.
Zuzendariak: Ana Martínez, Arantza Alberdi, Garbiñe Orbegozo, Roberto Pacheco, Maribel Insausti eta Joxan Goikoetxea.
Idazkariak: Maribel Insausti, Garbiñe Orbegozo, Arantza Alberdi, Iñaki Eguren eta Amaia Aldalur.
Udal ordezkariak (zinegotziak): Mila Apezetxea, Iñaki Arratibel, Txema Mercado, Natalia Ugalde, Usoa Barrutiabengoa eta Idurre Lukas.
Irakasleen ordezkariak: Montserrat Auzmendi, Garbiñe Orbegozo, Arantza Alberdi, Roberto Pacheco, Miriam Fernandez, Lurdes Alkorta, Elixabete Iragorri, Ana Martínez, Susana Elosegi, Juan Mari Beltran eta Haritz Ezeiza.
Ikasleen ordezkariak: Joseba Aldasoro, Miren Andone Marin, Oihana Goikoetxea, Itziar Etxeberria, Rafa Lizeaga, Añarbe Kalonje, Iker Apaolaza, Leire Goñi eta Lurdes Mateo.
Gurasoen ordezkariak: Rafa Lizeaga, Xabier Odriozola, Mari Jose Mendiola eta Jose Angel Sota.

Eskola Kontseiluaz gainera, irakasleen klaustroak eta zuzendaritzak osatzen dituzte eskolako aginte organoak, Udaleko Hezkuntza Batzordea eta, batez ere, Udal Batza, guztien gainetik dituztela. Horiek guztiak izan dira gure eskola komunitatea osatu dutenak, ez balitz talderik garrantzitsuena ez dugulako orain artean aipatu: ikasleena alegia.

057

058

IKASLEGOA

Kontuak gaizki ez badabiltza, Hernaniko musika eskolatik 1883 ikasle pasa dira joan den 25 urtean. Horien guztien izen-abizenak lan honen amaieran txertatuko ditugu, eranskin gisa, hemen luzetxo joko lukeela eta. Orain horien azterketa estatistiko labur bat baino ez dut aurkezteko asmoa. Eta horretarako, lehenik eta behin, bereizketa garbi bat egin beharra daukat ikasle eta matrikulazioen artean. Izan ere, eskolak plan pedagogiko ezberdinak ezagutu dituelako batetik, eta ikasle bakoitzaren interes eta egoeren artean ere ikaragarrizko aldeak aurki litezkeelako bestetik, hauek egin izan dituzten eta egiten ari diren ibilbide kurrikularrek ez dute, askotan, zer ikusirik elkarren artean. Honela, lehendabiziko urteetan aurki ditzakegu solfeorako bakarrik matrikulatutako ikasleak, soinu tresna jakinean bakarrik aritutakoak (txalaparta, alboka, dultzaina eta trikitixa ikasteko, adibidez, hasieran solfeorik eskatzen ez zelako, edota pianista, txistulari, soinu jole eta gainerakoen kasuan, solfeo ikasketak beste zentro batean edo aldez aurretik Hernanikoan bertan eginak zituztelako), edo solfeo, soinu tresna eta koraleko ikasketak batean egiten ari zirenak. Beraz, ikasturte batean ikasle batek egin zezakeen matrikula bakarra, edo hiru eta lau (gutxi izanda ere, beti izan dira bi soinu tresnatan matrikulatutako ikasleak ere). Eta malgutasun hau areagotu egin zen 1992ko plana indarrean jarri zenetik, batez ere taldeko irakaskuntzen eraginez. Ez da ahaztu behar ikasle baten ibilbide kurrikularra ez dela eskolan amaitzen, eta askotan hasi ere ez. Honela bada, soinu tresna edo instrumentu jakin bateko ikaslegoak eskolan jasan duen eboluzioa aztertu nahi badugu, ikasle kopuruari baino gehiago matrikula kopuruari erreparatu beharko diogu.

1883 ikasle izan baditu Hernaniko musika eskolak, hauek 18.494 matrikula gauzatu dituzte 25 ikasturteotan. Hau da, eskolan batez beste 5,16 ikasturte eginak izango lituzke ikasle bakoitzak, ikasturte bakoitzean 1,69 irakasgaitan matrikulatuta. Datu hotzak dira horiek ordea, ikasle bakoitzaren iraupenari dagozkien datu errealak hartzen baditugu, esaterako, aipatutako ibilbide kurrikularren aniztasuna berehala jartzen baita agerian, 5,16 ikasturte horietatik oso urruti. Honela, asko ez izanda ere (ezin, bada), 14 ikasle izan ditugu eskolan 20 urte edo gehiagoz matrikulatu izan direnak; horietako batzuek oraindik ere eskolan darraite gainera. Soinu tresna bat baino gehiago jotzen ikasi dutelako, edota instrumentu taldeetan edo abesbatzan urte luzez lanean jardun direlako, iraupenaren mutur horretan egon direnen izenak ematea merezi du. Hauetxek izan dira, iraupen luzeenaren arabera: Natividad Merino (pianoa eta akordeoia), Xabier Iriarte (dultzaina), Garbiñe Egilegor (akordeoia), Oskar Angulo (alboka), Ramon Etxeberria (dultzaina eta txalaparta), Iker Apaolaza (txistua eta dultzaina), Juan Bautista Cuenca (saxofoia), Oihana Ezeiza (akordeoia), Joseba Aldasoro (akordeoia, perkusioa eta joera ezberdinak), Juan Francisco Álvarez (dultzaina eta klarinetea), Edgar Carbajo (saxofoia), Rosa Ormaetxea (pianoa), Maddi Lizarraga (akordeoia) eta Maialen Zazpe (akordeoia eta pianoa).

Solfeo eta lengoaia musikalaren inguruko irakasgaiak, hala nola abesbatza alde batera utzita, ikasle gehien bildu dituzten soinu tresnak pianoa eta akordeoia izan dira nabarmen, 362 eta 317 ikaslerekin hurrenez hurren. Hori arrazoi ezberdinei zor zaio noski: eskolaren eskaintzari gehienbat, ez baita ahaztu behar laugarren ikasturtetik bi tresna horietarako bina irakasle izan dituela ia lanaldi osoan; bes-

talde, eskaerak ere badu zerikusirik, batez ere aurreneko urteetakoak, ikaslerik izan ez balitz ez baitzen eskola hala egituratuko. Ikasle kopuruari beharrean matrikulazioari erreparatzen badiogu ordea, edo hobe, biak harremanetan jartzen, soinu tresna bakoitzean ikasleek oso batez besteko iraupen ezberdinak izan dituztela ohartuko gara, eta honek ere eragin izan du batean edo bestean ikasle gehiago edo gutxiago sartu izana; izan ere, urteen joanean plazak ugarituz joan badira ere, gurean plazak mugatuak izan dira ia beti, kontratatutako irakasleen irakas denboraren arabera. Hala bada, eta batez beste ari naizela azpimarratuta, iraupen luzeeneko ikasleak klarinetekoak (5,54 matrikula ikasleko) eta trikitixakoak (4,82) izan dira. Soinu tresna guztien arteko batez bestekoa ikasleko 3,90 matrikulatan dagoela kontutan izanda, desbiderazio txikiena duten instrumentuak pianoa (4,09), biolina (4,10) eta txistua (3,76) izan dira, eta iraupen laburrena aurkezten dutenak berriz txalaparta (2,37) eta alboka (2,24). Bi azken hauena ere ez da ulertzen zaila: hasieran ikasketa plangintzarik ez zuten soinu tresna hauek (ohartu, beste muturrean, trikitixa ere halaxe zegoela), eta eskolan bertan sortu behar izan zuen bietako irakasle izan den Juan Mari Beltranek. Honek, hasiera batean, bina ikasturtetan ezarri zuen plangintza hori, eta 1992ko planarekin nahiz urtetan soinu tresna horien metodologian egindako aurrerakuntzei esker, apurka zabaltzen joan zen ikasketa plana, ia beste soinu tresnen pare jartzeraino; hori ordea oso kontu berria da, azken sei-zortzi ikasturteetakoa [ikus grafikoa].

Zehazki irakasgai bakoitzean ikaslegoak izan duen eboluzioa ikusi aurretik, ordea, oro har eskolan gertatutakoari egingo diogu begiratutxo bat. 1985-1986 ikasturtea 212 ikaslerekin hasi bazen, handik 25 urtera 467 ikasle izan ditugu matrikulatuta, hau da, bikoiztu baino gehiago egin da ikaslegoa. Dena den, hazkunde horrek gorabehera nabarmenak izan ditu ondoko grafikoan ikus daitekeenez, oro har joera goranzkoa izan bada ere. Hala, hazkunderik handiena lehen lau ikasturteei dagokie, hain zuzen ere eskola garatzen ari zenekoei: irakaslegoa gehitu ahala plazak ere ugaritzen ziren, eta alderantziz, eskaera gehitu ahala irakaslego berria kontratatzen zen. 1988-1991 bitartean, egoera nolabait egonkortu egin zen, beheranzko joera txiki bat nabaritu zitekeelarik; ez oso esanguratsua ordea. 1992-1993 ikasturteak jasan zuen erorialdi nabarmena, 62 ikasle galdu zirelarik, hau da, aurreko ikasturteko ikaslegoaren ia bostetik bat (%17,22).

Matrikulazioari dagokionez, eskolak ezagutu duen krisirik markatuena musika eskolen legea indarrean jartzearekin gertatu zen. Ez da kasualitatea. Plan pedagogiko batetik bestera igarotzeak egokitze prozesu sakon eta azkarrean murgildu zuen eskola, batez ere hurrengo hiru ikasturteetan, eta horixe erakusten du grafikoak. 1992-1993 ikasturte hartan, solfeoko hiru maila desagertu ziren bat-batean

059

060

061

(hastapenekoa eta bi aurrenekoak), baina ez zen oraindik 4-7 urtekoen tailerrik sortu; horrek erakarri zuen solfeoa eta lengoaia musikalaren inguruko matrikulazioan aurreko ikasturteko 250 matrikulatatik 202 matrikulatara jeistea. Soinu tresnatako matrikulazioak ongi eutsi zion, ordea, trantsizioko lehenengo urte hari (240 matrikulatatik 243ra, mantendu egin zen noski), eta lengoaia musikalean hasten zen ikaslego guztia abesbatzan matrikulatzeak, talde berri honi oinarri sendoa emateaz gain, ikaslegoan izan zen kolpeko beherakada hura matrikulazioan goranzko joera izatea suposatu zuen: aurreko ikasturtean koralak zituen 48 matrikulatatik koral eta abesbatzako 141era igo zen.

Ikasle eta matrikula kopuruak 1985-2010



	1985-1986	1986-1987	1987-1988	1988-1989	1989-1990	1990-1991	1991-1992	1992-1993	1993-1994	1994-1995	1995-1996	1996-1997	1997-1998	1998-1999	1999-2000	2000-2001	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010
Matrikula kopurua	269	324	406	489	560	557	541	589	650	770	724	765	795	854	876	888	904	911	952	960	939	944	928	949	950
Ikasle kopurua	212	249	311	349	368	369	360	298	343	377	356	384	389	415	425	424	428	428	448	459	465	463	465	459	467

1993-1994 ikasturtean, musika hastapeneko tailerrak sortu ziren, eta horrek apur bat gelditu zuen mailak eta matrikulak galtzen zihoan solfeoaren inguruko matrikulazioaren beheranzko joera: 202 matrikulatatik 181era jeitsi zen; aurreko %19,2ko erorialdiaren ondoan, %10,4koa. Baina, gainera, talde instrumentalak ezartzen hasi ziren, 3 matrikulatatik 40ra pasaz (eta hurrengo ikasturtean 147 izango ziren).

Honek guztiak bi ondorio izan zituen, grafikoan ikus daitezkeenak: batetik, ikasle kopuruaren goranzko joera ezarri zuen ostera, eta bestetik ikasle bakoitzaren matrikula kopurua igo zuen. Azal dezadan azkeneko hau: 1985 eta 1992 arteko lehen zazpi ikasturteetan ikasle bakoitzak batez beste 1,40 irakasgaitan egiten zuen matrikula. Aldiz, 1992-1995 trantsizioko hiru ikasturte horietan ikasleko 1,97 matrikulatara igo zen gorabehera handiekin: lehenik tasa hori tokitara joan zen, 1,50etik 1,98ra igaroz ikasturte bakar batean; ondoren ikasle kopuruak ere goranzko joera hartu zuen eta, ikasleko matrikula tasei eutsiz, markak hautsi zituen 1994-1995ekoan, 377 ikasle eta 2,04ko matrikula tasara iristeko. Hurrengo ikasturtean ostera behera egin zuten biek, baina egoera normaltzera zetorren beherakada baino ez zen izan nonbait, aurrerantzean igoera mantsoagoa eta orekatuagoa izateko.

Hurrengo hamabost ikasturteetan, aipatzen ari garen tasa hori beste apurtxo bat igoko zen 2,06 matrikulataraino[10]. Honek esan nahi du musika eskolako ikasleak kontserbatorio edo musikategikoak baino irakasgai gehiagotan matrikulatzen direla, baina ez du zertan adierazi denbora gehiago igarotzen dutenik eskolan, ez baita ahaztu behar solfeoen eta funtsezko irakasgaien denbora lektiboak urritu egin zirela, nahiz eta talde instrumentalekoak areagotu. Denbora hori ugaritzea ez dator hainbeste ikasleko matrikula tasa handitzearekin, nola ikasleek eskolan duten iraupena haztearekin. Nolanahi ere hazkunde hori hor dago, nahiz eta ez dugun kuantifikatzerik lortu, eta badakigu, batera edo bestera, taldeko irakaskuntzako orduei zor zaiela batik bat.

Azkenik, 1996-2010 bitartean, esandako hazkunde orekatu horren baitan gorabehera batzuk ere badirela aipatu beharra dago. 2003-2004an gorako joera gehiago nabarmentzen den bezala, hortik aurrerako ikasturteetan batzuetan gora besteetan behera, paretsu dabiltza ikasle nahiz matrikula kopuruak, 465 eta 940 inguruan, hurrenez hurren. Gorabehera bakoitza nahiko erraz azal daiteke plaza eskaintzaren arabera: soinu tresnatan plaza gutxi batzuk sortzen joan direlako (gitarra, biolontxeloa, alboka, txalaparta,...), indarketa eskolekin ikasle jakinen denbora lektiboak aldatzen joan direlako, edota talde instrumentalek egitura ezberdinak hartu dituztelako, urte horietan eskaini izan den plaza kopurua aldatzen joan da, baina eskaerak beti gainditu du eskaintza hori. Eskolaren egituraz kanpoko aldagaiak ere kontuan hartu behar lirateke, noski, ikaslegoaren eboluzio hau argitzeko, eta neronek ontzat emango

nuke herri mailan urtetan egindako lanak eragin dituela halako "aztura kultural" batzuk edo; nola azaldu bestela txalaparta ikastera, esaterako, Hernanin haur eta gazteak inguratzea, beste herrietan horrelakorik gertatzen ez denean. Ez dut uste horrelakoak eskolaren eskaintza hutsari zor zaizkionik, beste zerbaitek egon behar du herritarren belarritan horretarako; baina zaila da, oso, horrelako aldagaiak neurtzen. Gehienez ere herriko biztanleriaren eboluzioarekin alderatu genezake eskolarena [ikus grafikoa].

Hernaniko biztanleria



	1981	1986	1991	1996	2001	2006
Guztira	19823	19096	18489	18627	18287	18866
20-64	11128	11426	11581	12167	11979	12200
0-19	7247	5955	4801	3909	3506	3482
>=65	1448	1715	2107	2551	2802	3184

Hernaniko biztanleriak[11] 1981 eta 2006 urte bitartean egindako eboluzioaren alderantzizkoa da, ordea, musika eskolako ikaslegoak bizi izan duena. Deigarria da populazioak behera egin duen bitartean (1981-1991 eta 2001) musika eskolakoak gora egin duela eta, alderantziz, eskolan ikaslegoa gutxitu denean izan duela herriak hazkunde txiki bat (1996), 2006koan soilik aldatzen delarik joera hori. Ez dut uste, nolanahi ere, harreman zuzenik dutenik aurkako bi eboluzio horiek, eskolaren hazkundea seguru asko Hego Euskal Herri guztiko eskolen hazkundearekin lotuagoa baitago, egoera sozioekonomiko eta politikoekin gehiago populazioaren eboluzio hutsarekin baino. Eta adinei erreparatzen badiegu ere, antzeko ondorioak aterako ditugu, kontuan izan behar baita eskolako ikasleen gehiengoa 4-19 urte bitartean kokatzen dela, eta adin horrek erakusten duen beheranzko parabolaren justu aurkakoa da eskolako ikaslegoak azaltzen duena.

Ikaslegoa sexuaren eta adinaren arabera

Bada uste oso zabaldua musika ikasketak oso feminizatuta daudenekoa, eta Hernaniko musika eskolako ikaslegoari dagokionez, aurreneko begiratuan datuek baieztatu egiten dute uste hori, eskolatik pasa diren ikasleen %55 emakumeak izan baitira. Baina datu hori erlatibizatu beharra dago. Lehenik, bi sexu edo generoen arteko aldea ez delako, zenbaki absolututan, hainbesterainokoa ere. Eta bestetik, hogeitabost urteotan barrena sexuaren arabera ikaslegoak izan duen banaketari heltzen badiogu, aldeak oso txikiak izanda ere, bai baitirudi gizonezkoen presentzia apurka igotzen ari dela, azkeneko zortzi urteotan behintzat, 2003-2004 ikasturte arte ez baitzuen gizonezkoen portzentaiak %45en langa igarotzerik lortu, eta geroztik inguru horretan dabil. Aldeak, hala ere, oso txikiak dira esan dugunez, eta arriskutsu samarra izan liteke joera leun horren araberako aurrikuspenik egitea [ikus grafikoa].

Generoaren araberako banaketak beste maila batzuetan erakusten ditu datu esanguratsuak. Ikasleek eskolatik irten eta ikasketak jarraitu edo lan mundura jauzi egiterako orduan, adibidez, aldeak askoz gehiago nabarmenduko liratekeelakoan nago, eta ez dut uste emakumeen alde izango litzatekeenik. Datu horiek ez dauzkagu hemen eskura ordea. Eskolaren baitan, soinu tresnen arabera ematen den banaketan ikusiko dugu garbi zenbateraino eragin lezakeen generoaren aldagaiak, ikasleak aukera egin behar duen garaian,

Ikasleen banaketa sexuaren arabera



	1985-1986	1986-1987	1987-1988	1988-1989	1989-1990	1990-1991	1991-1992	1992-1993	1993-1994	1994-1995	1995-1996	1996-1997	1997-1998	1998-1999	1999-2000	2000-2001	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	GUZTIRA
Emakumeak %	62,74	62,74	62,74	54,59 %	54,59 %	54,59 %	54,59 %	54,59 %	650	770	724	765	795	854	876	888	904	911	952	960	939	944	928	949	950	54,59 %
Gizonak %	37,26	37,26	37,26	45,41 %	45,41 %	45,41 %	45,41 %	45,41 %	343	377	356	384	389	415	425	424	428	428	448	459	465	463	465	459	467	45,41 %

batera edo bestera. Baina aurretik, ikus dezagun adinaren araberako banaketan zer gertatzen den orokorrean.

Musika eskolako ikaslegoaren gehiengoa (matrikulazio osoaren %66,57) 8 eta 14 urte bitarteko adin tartean kokatzen da. Hala behar zuen izan, lege eta araudi ezberdinek horretara bultzatzeaz gain, soinu tresnekin hasteko adin egokiena ere bai baita. Baina grafikoari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu adin tarte horri zegokion portzentaia zabalagoa zela 1985-1991 tartean 1993tik aurrera baino. Batetik, 1966ko plana indarrean zela, 7 urtetik beherako haurrek ez zuten sarrerarik izaten oinarrizko musika ikasketetara, eta hortaz 4-7 adin tartea dezente murritzagoa zen: 20,6 ikasle inguru batez beste 1991 artekoan, eta musikaren hastapena edo 4-7 urtekoentzako tailerrak ezarri zirelarik, 1996tik aurrera 115,8 ikasle izan dira batez beste. Bestetik, plan pedagogikoa aldatzeak ere ikasketak luzatzeko aukera ekarri zuen, eta horrek ere eragingo zuen 14 urtetik gorako ikaslegoa hainbeste haztea, batez ere 15-18 urteko adin tartea eta 19-30 urtekoa, aipatu epeetan (1985-1992 eta 1996-2010) 38 ikasletik 97,3ra eta 28 ikasletik 62ra igo baitziren, hurrenez hurren eta batez beste. Helduen presentzia ere areagotu da eskolaren bigarren aldi honetan, batez besteko 12,7 ikasletatik 47,4ra pasaz, baina egia da oraindik ere 30 urtetik gorakoen presentzia oso urria dela beste adinekoen proportzioan, batez ere 65 urtetik gorakoena hutsala delarik. Oinarrizko musika ikasketek gazteentzat eta, batez ere, haurrentzat izaten jarraitzen dute eta hala daude bideratuta, eta helduentzako ate bat egin bada ere, oraindik zabaltzeko dago [ikus grafikoa].

Nolanahi ere, aipatutako hazkundeak eskolaren goranzko joeraren argitan azaltzen dira, eta ostera adinaren araberako ikasleen banaketari erreparatzen badiogu, 8-14 bitarteko ikaslegoari kalte egin gabe, Musika Eskola eratzen zuen 92ko egituraketak, lehen ikasturtean dena hankaz gora jarri bazuen ere (4-7 urteko haurrik ez baitzen matrikulatu), 1993tik aurrera eskolari itxura berria eman ziola ikusiko dugu, musika eskola herri guztiarentzako zerbitzua izateko bidean, sartzeko aukera behintzat emanaz beste adin horiei: lehen aldiko %23,85etatik, 1993-2010 bitarteko %36,26etara pasa zen ikaslego osoan 8-14 urte ez zituztenen proportzioa, hauetan hirutatik bat haurra (4-7 adin tartean ikaslegoaren %12,51), beste bat gaztea (15-18 tartean %11,39) eta hirugarrena heldua izan delarik (19tik gorakoak %12,35). Beste kontu bat da banaketa horrek soinu tresna eta irakasgaien arabera zein eragin izan duen, eta berriz ere esan beharra daukagu, sexuaren kasuan bezalaxe, maila horretan agertzen direla desberdintasun handienak.

Eta atal honekin amaitzeko, gauza bera esan behar ikasleen jatorriari buruz. Azken aldagai honen araberako banaketari begiratuta, orokorrean ez dugu aurkituko espero ez genuenik. Eskolako ikaslegoaren %87,25 hernaniarra izan da, eta hala behar zuen, udal eskola publikoa dela kontuan izanda. Hernaniarrek izan dute beti lehentasuna eta, ekonomikoki ere, beraiei eman zaie eskolan sartzeko erraztasuna. Hernaniz kanpoko ikasleak bost inguru ezberdinetan sailkatu ditugu: 1. inguruan Gipuzkoako herrien artean Hernanirekin muga egiten dutenak dira, horiek dituztelarik portzentaiarik altuenak, eta bost herri horien artean, nabarmen, donostiarrak izan dira Hernanikora gehien inguratu direnak, denera 88 ikasle, jarraian urnietarrak (33 ikasle) eta lasartearrak (beste 23) datozelarik. Azken hauei dagokienez, kontuan izatekoa da Lasarte-Oria udalerri gisa 1986an sortu zela, ordura arte lasartear asko Hernaniko udalerrikoak zirelarik, eta hango musika eskola sortu artean, Hernanikora etortzen jarraitu zuten askok; haietakoak dira 23 lasartear horietako gehienak. Astigarragakoak 14 izan dira eta errenteriarrak 8.

2. ingurua gertuko Nafarroari esan diogu, Arano ere mugakide baita Hernanirekin, eta Goizueta ere ia-ia, baina gainera bi herri horietako biztanleek lotura handia dute Herna-

Ikasleen banaketa adinaren arabera



	1985-1986	1986-1987	1987-1988	1988-1989	1989-1990	1990-1991	1991-1992	1992-1993	1993-1994	1994-1995	1995-1996	1996-1997	1997-1998	1998-1999	1999-2000	2000-2001	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	GUZTIRA
65-100 %	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,14	0,26	0,25	0,23	0,23	0,23	0,22	0,22	0,21	0,21	0,21	0,21	0,43	0,63	0,42	0,20
31-65 %	2,60	3,29	2,10	2,29	2,86	3,60	3,15	2,21	4,92	5,32	4,28	5,36	7,55	7,73	6,51	4,28	3,54	3,95	3,05	4,17	4,37	3,81	4,74	5,81	5,61	4,53
19-30 %	4,83	6,91	7,61	6,88	6,44	6,85	4,81	4,07	7,38	8,31	7,60	10,20	10,57	8,90	6,16	6,31	7,08	7,14	6,72	8,44	6,50	5,93	4,96	4,33	4,34	6,81
15-18 %	6,69	6,91	6,82	7,92	12,52	11,71	12,59	11,71	12,00	15,06	15,19	12,03	10,31	10,66	11,76	11,49	9,07	9,00	8,82	9,79	11,40	11,97	11,75	11,73	11,66	11,08
8-14 %	74,72	76,32	76,38	78,33	75,31	75,14	76,85	82,00	68,15	59,87	59,94	56,73	57,23	59,13	61,76	63,96	66,70	66,74	68,59	66,04	65,39	65,89	65,73	65,54	66,21	66,57
4-7 %	11,15	6,58	7,09	4,58	2,86	2,70	2,59	0,00	7,54	11,43	12,85	15,42	14,09	13,35	13,58	13,74	13,38	12,95	12,61	11,35	12,14	12,18	12,39	11,96	11,76	10,83

nirekin. Hori ez da gure eskolako aranoar eta goizuetar kopuruan islatzen (2 eta 4 ikasle hurrenez hurren), izan ere asko baitira Hernanin bizilekua dutenak, eta hartara hernaniarren multzoan sartzen dira jaiotzez edo bihotzez goizuetar diren asko; goizuetarrak bereziki.

Gainerako 3 inguruak gertutasunaren arabera antolatu ditugu, eta ikusiko da Hernanitik urrundu ahala ikaslegoaren proportzioa jeisten doala. Ez dugu arrazoirik eman behar hori ulertarazteko. Gertuko Gipuzkoako herrien artean, Pasaiatik 8 ikasle etorriak dira gurera, Oiartzundik 7, Andoaindik 5, Adunatik eta Usurbildik bina, eta Lezo nahiz Oriotik bana. Gainerako gipuzkoarren artean, Irundik 5, Tolosatik 4, Zarauztik 3, Hondarribia eta Villabonatik bina, eta Abaltzisketa, Altzaga, Arrasate, Hernialde eta Ordiziatik bana izan dira Hernanin. Eta azkenik, gainerako Euskal Herritik, Arabako Otazutik bi lagun eta Uharte Arakil, Donibane Lohizune eta Miarritzetik beste bana inguratu zaizkigu. Ez da bizkaitarrik ez zuberotarrik izan gurean, ez bada 1883 ikasletatik 23ren jatorria argitzerik izan ez dugulako (jatorria esaten diot lehen aldiz eskolan matrikulatutakoan ikasleak zuen bizilekuari, ez jaioterriari berari). [ikus grafikoa].

Ikaslegoa jatorriaren arabera



Ikaslegoa, soinu tresnen arabera

Ondoko koadroan, eskolak eskaini izan dituen irakasgai bakoitzean denera zenbait ikasle izan diren agertzen da, eta honekin batean ikasle horiek zenbat matrikula gauzatu dituzten.

IRAKASGAIA	IKASLE KOPURUA	MATRIKULA KOPURUA
Solfeoa eta lengoaia musikala		
Solfeo	**574**	1802
Musika hastapena	**794**	1850
Lengoaia Musikala	**794**	2388
Musika Hezkuntza	**128**	197
Abesbatza eta korala		
Korala	**165**	299
Abesbatza	**808**	2260
Soinu tresnak		
Pianoa	**362**	1479
Akordeoia	**317**	1414
Trikitixa	**153**	737
Saxofoia	**140**	627
Txalaparta	**119**	282
Biolina	**98**	402
Txistua	**79**	297
Dultzaina	**56**	191
Alboka	**54**	121
Perkusioa	**52**	177
Tronpeta	**34**	143
Klarinetea	**28**	155
Gitarra	**11**	46
Biolontxeloa	**8**	36
Biola	**2**	6
Talde instrumentala		
Pianoa / teklatuak	**173**	589
Akordeoia	**167**	758
Saxofoia	**94**	433
Trikitixa	**91**	455
Panderoa	**50**	91
Biolina	**49**	176
Dultzaina	**44**	224
Alboka	**41**	176
Txalaparta	**37**	132
Joera ezberdinak	**35**	89
Txistua	**31**	150
Perkusioa	**30**	105
Tronpeta	**19**	76
Klarinetea	**18**	88
Biolontxeloa	**6**	24
Gitarra	**5**	17
Biola	**1**	2
GUZTIRA	**1883**	**18494**

Soinu tresna eta irakasgaien arabera ikaslegoak izan duen banaketa aztertzeko, ordea, eskolaren garapenak ekarritako zenbait aldagai izan behar ditugu kontuan. Lehenik, eta talde instrumentalei dagokienez, ez da ahantzi behar oro har talde jakin batean soinu tresna batekin jardun den ikaslea funtsezko irakasgaian edo soinu tresnan aritu den bera izan dela, baina batez ere musika eskolako 3. mailako taldeak sortzen direnetik, noiz edo noiz izaten direla beste nonbait soinu tresna jotzen ikasi eta taldea eskolan egiten duten ikasleak ere. Hori dela eta, talde instrumentalean eskolan irakasten den soinu tresna batekin aritu diren ikasle guztiak tresna horretako ikaslegoaren multzoan bildu ditugu.

Bigarrenik, "joera ezberdinak" deritzogun irakasgaiko ikaslegoa oso zaila da soinu tresnaren arabera sailkatzea, bertan bildu izan baitira eskolan soinu tresna jakin bat jotzen ikasi duten ikasleekin batera kanpotik etorritako beste batzuk, eskolakoak izan arren beste tresna batekin edo kantuan jardun direnak, edota besterik gabe, informatika musikala ikasten aritu direnak (izenak berak dioen bezala, joera ezberdinetako jendea), eta gainera, funtsezko irakasgaia izanda ere, gehienean taldean egin izan da. Joera ezberdinetako ikaslegoa, beraz, multzo batean bildu dugu eta, soinu tresnekoekin batera, funtsezko irakasgaien artean kokatu.

Hirugarrenik, hizkuntza eta teoria musikalaren inguruko irakasgaiek eskolaren bi aldi nagusietan jasan duten eraldaketa izugarria daukagu. Nahiz eta alde askotan arras ezberdinak izan (helburuak, metodologia, edukien sekuentziazioa,...), garai bateko "solfeo" eta gaur egungo "lengoaia musikala" nahiz "musika hezkuntza" irakasgaietako ikasleak nolabait parekatu litezke; orduko solfeoko hastapeneko mailako ikasleak gaurko "musika hastapena" edo 4-7 urtekoen tailerrarekin bat egitea, ordea, askoz zailagoa da. Hortaz, esandako lehen hiru irakasgaiak bateratsu jarri ditugu eta, "hastapena" deitzen duguna, solfeoaren inguruko irakasgaiekin batera kokatuta ere, bat ez egiten saiatu gara.

Laugarrenik, biolako ikasleen kasua aipatu behar da, irakasgai hau ikasturte gutxi batzuetan eman bazen ere, esperimental samarra izan baitzen, bi ikasle baino ez ziren izan eta. Biolako ikasleak biolinekoekin bildu ditugu beraz.

Bostgarrenik panderoaren kasua daukagu. Panderoa ez da irakasgai gisa eskolan txertatu, baina zenbaitetan trikitixako irakasleak taldeko irakasgai gisa ikasturte bat edo beste eskaini izan dio, eta gero panderista horiek talde batean edo bestean jardun izan dira (batez ere trikitilari, albokero eta akordeonistekin), horregatik panderoko ikasleek beste multzo berezi bat eratu dutelarik urteen joanean.

Eta azkenik, abesbatzako ikaslegoaren kasua daukagu. 66ko planean bazen "korala" zeritzan irakasgaia, baina arras ezberdina zen gaurko "abesbatza" irakasgaitik. Korala bi ikasturte justutako irakasgaia zen, oinarrizko mailaren osagarri, honen amaieran egin ohi zena; abesbatza aldiz, taldeko jarduera da, eta soinu tresnekin hasi berriak diren ikasle gehienentzat aurreneko urteetan derrigorrezkoa bada ere (talde instrumentalean hasteko gutxieneko gaitasuna duten arte), hortik aurrera ikasleek, lehen ez bezala, abesbatzan jarraitzeko aukera dute, eta askok egiten du hautu hori; areago, izaten dira ikasleak funtsezko irakasgaitzat abesbatza hartzen dutenak ere. Hortaz, korala solfeoaren inguruko irakasgaiengandik gertuago ikusi dugu batetik, eta bestetik abesbatzako ikasleen artean galbahea pasa dugu, abesbatza funtsezko irakasgaitzat egin duten ikasleekin multzo bat osatuz. Honek, nolanahi ere, ez du ezertako ere abesbatzaren errealitatea islatzen, abesbatzako partaide helduenetan gehienek soinu tresnarekin batera partekatu baitute jarduera hau, eta horiek ez dira azaltzen multzo honetan.

Hori guztia kontuan izanda, soinu tresnen araberako ikaslegoaren banaketak beste itxura bat hartzen du, hurrengo grafikoan ikusten denez. Banaketa horretan berehala ikusten da eskolaren eskaintzak zenbateraino eragiten duen eskaeran bertan, eta hau egituratu den eran itxuratu dela ikaslegoa ere. Hala, bi lanaldi ingurutako ordu lektiboak izan dituzten soinu tresnak dira ikaslegoaren zati handiena dutenak: pianoa eta akordeoia alegia. Jarraian, lanaldi osoa izan duten beste biak datoz: trikitixa eta saxofoia. Eta ondoren daude ordukako banaketa izan dutenak. Horietan txalaparta da ikasle gehien bildu duena, baina hori gehienbat txalaparta jotzeko bi lagun derrigorrezkoak izateari zor zaio, bikotean matrikulatzeak (nolabaiteko taldean) ordu kopuru berean tresna honetako ikaslegoa ia bikoiztu egiten duelarik. Eta proportziorik txikienak eskolan berandutxo eta ordu lektibo gutxirekin sartu diren irakasgaiek dituzte: gitarrak eta biolontxeloak. Harritzekorik ezer ez, beraz [ikus grafikoa].

Ikasleen banaketa soinu tresnen arabera



062

063

064

065

Soinu tresnako ikasle izan ez direnen artean berriz, 4-7 urte bitarteko hastapenekoek dute proportziorik altuena, baina hori ere ez da harritzekoa: ikaslegoaren %13,9 horretan sartzen dira eskolako 1. mailan jardun izanda, 2. mailan jarraitu ez dutenak, baina horiekin batera daude 2009an oraindik zortzi urte bete ez zituztenak ere, eta horietako gehiengoa hurrengo urteetan soinu tresnetara igaroko da. Beharbada deigarriagoa da, gaurko eguneko ikuspegitik, solfeo hutseko ikaslegoa oraindik ere eskolatik pasa den ikaslegoaren %6,1 izatea. Gogoratu beharra dago horiek ez direla eskolan izan diren solfeo ikasle guztiak, solfeoa bakarrik ikasi zutenak baizik, eta solfeoko azkeneko ikasleak 1995ean desagertu baziren, kontuak atera zenbat jende izan zitekeen solfeo hutsa ikastera musika akademia eta kontserbatorioetara inguratzen zena. Hori da, seguru asko, gaur egungo musika ikasketen errealitatea ordukoetatik gehien aldentzen duen alderdia.

Pianoa eta akordeoia

Pianoa eta akordeoia dira, esana dugunez, ikasle gehien izan dituzten soinu tresnak, berauek baitira gure eskolan bi irakasle izan dituztenak, pianoak lanaldi osoan eta akordeoiak bat lanaldi osoan eta bigarrena %85ean. Horrek berak azaltzen du pianoa izatea ikasle gehien dituen soinu tresna. Baina era berean, ez da ahaztu behar pianoa ikasteko eskaera ere ia beti joan dela bide horretatik (ez da aski plazak eskaintzea, horiek bete ere egin behar dira). Akordeoiak berriz, eskaera handia zuen eskola egituratzen ari zen aurreneko urteetan, baina gorabehera handiagoak bizi izan ditu, batez ere 2000ko hamarkadan izan dituelarik urteak plaza bakarren bat hutsa geratu izan zaiona. Denera, 362 piano ikasle eta 320 akordeoi ikasle izan dira.

Ikaslego horren banaketari dagokionez, sexuaren arabera, piano joleen %65,19 eta akordeonisten %75 emakumeak izan dira. Kontuan izanda batez beste eskolako matrikulazio osoaren %56,27 osatzen dutela emakumeek, esan liteke "feminizatutako" soinu tresnak direla, batez ere, eta nabarmen, akordeoia. Dena den, feminizazioaz hitz egitea arriskutsua da, ondoriotan ikusiko dugunez horrek ez baitu esan nahi emakumeek gizonek baino aukera gehiago dutenik; soil-soilik instrumentu hauetan emakume gehiago biltzen dela.

Adinaren araberako banaketari dagokionez, biek dituzte antzeko tasak. Oro har eskola osoaren batez besteko joeren inguruan dabiltza, hau da, ikaslego gaztea dute. Beharbada zertxobait gazteagoa da soinu tresna hauen kasuan, 8-14 urte bitartekoak ikaslegoaren %75 baitira pianoaren kasuan eta %71 akordeoiarenean, eskolako totalaren

066

067

068

%64aren ondoan. Horretaz gainera, helduen kasua oso berezia da, akordeoiari dagokionez behinik behin. 19-30 adin bitartean, biolinaren atzetik, eskolako soinu tresnen artean portzentaiarik baxuenetakoak dituzte (beste datu bat soinu tresna hauetako ikaslegoaren 'gaztetasuna' azpimarratzeko), eta 31-65 adin tartean, nabarmen akordeoia da proportzioan ikasle gutxien izan dituen instrumentua, beste guztien gainetik. Baina erretiroko garaian, 65 urtetik aurrerako ikaslegoa eskolan oso urria izan bada ere, den-dena akordeoian dago kontzentratua. Hortaz, esan genezake akordeoia dela eskolako soinu tresna gazteenetakoa, eta aldi berean edadetuena.

Ikaslegoaren jatorriari dagokionez ez dute soinu tresna hauek aparteko berezitasunik ageri. Euskal Herriko ia musika eskola guztietan ikas liteke pianoa jotzen noski, eta akordeoia ere gehientsuenetan txertatua dago; hortaz, Hernanitik kanpoko ikasle gutxi inguratzen da hauek ikastera gurera, eta horiek inguruko herrietakoak izan ohi dira: Donostia, Urnieta, Astigarraga eta Lasartekoak.

Trikitixa eta panderoa

Trikitixa da, saxofoiarekin, ikasle asko biltzen duen beste soinu tresna, honek ere lanaldi osoan baitu irakasle bat. 156 trikitilari pasa dira, denera, Hernaniko musika eskolatik, ikaslego osoaren %7,4. 1986-1992 bitartean Joseba Tapia izan zen trikitixa irakasle, baina geroztik, ikasle kopuru gehien bildu den urteetan, Lurdes Alkorta izan da arduradun nagusia. Eta akordeoi bat izaki, akordeoi kromatikoaren antzeko joerak erakusten ditu ikaslegoaren banaketak gure diatoniko txikiaren kasuan. Emakumeak dira nagusi (ikaslegoaren %69), feminizaziorako joera erakusten duten instrumentuen artean kokatuz, eta ostera ikaslego gazteenetakoa dutenen artean kokatzen gara, totalaren ia %90 zortzi eta hemezortzi urtetako adin tartean baitago. Nolanahi ere, akordeoia eta pianoa baino zertxobait ikaslego helduxeagoa du, apalak izanda ere, 19-30 (%7,89) eta, batez ere, 15-18 (%21,81) adin tarteetan baditu portzentaia aipagarriak eta.

Esana dugu Arano eta Goizuetako ikaslegoaren presentzia, txikia bada ere, berezia dela herri hauek Hernanirekin duten harremanagatik. Bada, 6 ikasle horietako 3 trikitilariak izan dira. Nik uste horrek erakusten duela, neurri apal batean, trikitixaren jatorria herri musikan dagoela, eta aldi berean aipatutako herri horietatik Hernanira etorri direnak euskal kutsuko soinu tresnek erakarri izan dituztela gehienbat. Ustea besterik ez da, dena den. Egiaz, Hernaniko eskolako trikitilarien %90,4 hernaniarrak izan dira; eskolako ikaslego hernaniarra ia %86 dela gogoan hartuta, oso normala bestalde.

Ikaslegoari dagokionez, trikitixaren berezitasun nagusietako bat panderoaren kasua izan da. Trikitilari taldeak osatzeko pandero joleak behar direla eta, trikitixako irakasleak ikasturte jakin batzuetan pandero eskolak eman izan ditu, taldean, panderista hauek formatzeko. Gero, pandero jole horietako batzuk trikitixa edo alboka taldeetan jarraitu izan dituzte ikasketak. Baina honek eragin du, aldi berean, ikasle multzo berezi hori sortzea: eskolan funtsezko irakasgaitzat panderoa izan gabe, panderoa jotzen ikasi dutenena. Horiek, denera, 50 izan direlakoan gaude, baina aitortu beharra dago litekeena dela gehiago ere izatea, ikasle hauen matrikulazioa ez baita beti behar bezain garbia izan.

Panderoko ikaslegoaren berezitasuna ez da hori bakarra. Zalantzarik gabe, instrumenturik feminizatuena da, panderisten %90 emakumeak izan baitira. Gainerakoan, adinen eta jatorrien banaketari dagokienez, ez dago aipatzeko ezer berezirik, ez bada, trikitixaren aldean, 30 urtetik gorako ikasleak, proportzioan, gehixeago izan direla. Soinu tresna gazte horien artean gaude berriro hala ere.

069

070

071

072

073

Saxofoia, klarinetea eta tronpeta

Haizezko soinu tresnen artean saxofoia da gure eskolan erregea, lanaldi oso bateko irakasle batekin 151 ikasle osatu baititu mende laurden honetan. Klarinetea eta tronpetaren kasua, ordea, oso desberdina da. Batetik, gerora sartutako instrumentuak dira, 21 ikasturtez eskaini izan direlarik Hernanikoan; eta bestetik irakaslegoa orduka kontratatu izan da, hauen ordutegia lanaldiaren %20an finkatu zelarik 1995 inguruan. Hori dela eta, ikasle kopuru txikia duten soinu tresna horietakoak dira: tronpetak 34 eta klarineteak 28. Bestalde, ikus daitekeenez tronpetak oro har eskaera gehixeago izan du klarineteak baino, hortik bien arteko alde hori.

Ikasleen banaketari dagokionez, saxofoiak adin taldeetan ez du aparteko berezitasunik erakusten. Eskolako totalaren portzentaietatik hurbilena dabilen tresna da izan ere, "estandarra" esan genezake, eta hortaz nagusi 8-14 urte bitarteko ikasleak badira ere, nagusiagoek badute presentziarik. Tronpeta ere, saxofoiaren tankeratsu dabil, 8-18 urtekoen aldera gehixeago. Eta klarineteak ere tronpetaren portzentaia beretsuak erakusten ditu, salbuespen batekin: 31-65 adin tarteko matrikulek klarinetekoen %16,5 osatzen dute, batez besteko %6,9 baino nahiko altuago, eta hori 18-30 bitartean batez bestekoa baino askoz beherago dabilelarik. Hori, klarinetea irakatsi izan den aurreneko urteetan hurbildu zen ikaslego urria heldua izateari zor zaio (Gabriel eta Juanin izan ziren lehenengo helduak).

Sexuaren arabera, orain artean aipatu ditugun tresnak ez bezala, soinu tresna maskulinizatuak dira hiru hauek, baina ñabardura aipagarriak dituzte hirurek ere. Klarineteko ikaslegoa, biolentxelokoarekin batean, erdi eta erdi dago: %50 gizonezkoak dira. Horrek esan nahi du eskolako batez bestekoen aldean emakumeen presentzia urriagoa dela, baina hortik maskulinizazioaz hitz egitera badago bidea.

Tronpetak, ordea, perkusioaren ondoren, gizonezkoen tasarik altuenak ditu: ikasleen %88,24. Jarraian, eta alboka eta dultzainaren atzetik, saxofoia dator tasa horietan: %76,16 dira gizonezkoak. Horrek ez du esan nahi eskolaren joera orokorretik urrun dabiltzala bakarrik: emakumezkoek bost soinu tresna horietan oso toki gutxi dutela ere adierazten du. Esan dezadan desoreka hori ez zaiola eskaintzari zor, plazak era berean eskaintzen baitzaizkie sexu batekoei zein bestekoei, baina eskaera ere badakigu ez dela hutsetik sortzen, eta merezi luke ongi aztertzeak non dauden gertaera hauen arrazoiak. Asko eskolaz kanpokoak izango dira, inguru soziokulturalari egotzi lezazkiokeenak, baina barne kausalitateei erreparatzea ere tokatzen da,

074

075

076

077

078

079

proportzioak hain desorekatuta daudela ikusita. Nik hemen ez daukat analisi hori egiteko behar adina datu, ordea.

Azkenik, jatorriari dagokionez, saxofoiaren kasua tronpeta eta klarinetearen oso bestelakoa dela esan behar. Azken bi hauek, gitarra eta biolontxeloarekin batera, instrumenturik "hernaniarrenak" direla esan genezake, tronpetako ikasle bakarra izan baita Hernanikoa ez dena (Astigarragakoa bera), eta klarinetekoak berriz den-denak izan dira herrikoak. Baina saxofoiko ikaslegoarena beste kasu bat da. Alboka, dultzaina eta txalapartako ikaslegoa alde batera utzita (hauen proportzioak oso urruti dabiltza beste guztienetatik), saxofoikoa da proportzioan kanpotar gehien biltzen duena, ikaslegoaren %16. Eta hori bakarrik ez, jatorri ezberdinei begiratuta, esandako hiru soinu tresnen ondoren, berriro ere saxofoiak azaltzen ditu ugarienak: Donostia, Lasarte, Errenteria, Urnieta, Goizueta, Aduna, Oiartzun, Pasaia, Tolosa, Villabona, Ordizia eta Zarauztik inguratu dira saxofonistak Hernanira. Horren arrazoi nagusia, seguru asko, talde instrumentalean dago. Erramun Oiartzabalek aurrena, baina batez ere Roberto Pachecok osatutako saxofoi taldeak heldutasun musikal handia lortu du azken hamabost urteotan, eta beste herrietako saxofoi joleak erakarri ditu, maiz profesional mailakoak ere bai, gure eskolara.

Alboka, dultzaina, txistua eta txalaparta

1992ko dekretuak izen panpoxa eman zien trikitixa eta lau soinu tresna hauek biltzen zituen adarrari: "tradizioan oinarritutako musikatresnak". Ez noa ni hemen soinu tresna hauek herri kulturan duten sustraia aztertzera (ezta klarineteak edo gitarrak izan lezaketena ukatzera ere), baina urteen joanak garbi erakutsi duena zera da: besteekiko oso 'tradizio' ezberdinak jarraitu direla soinu tresna hauek musika hezkuntzaren sisteman txertatzeko garaian. Eta bostek ere (trikitixa hauekin hartu behar baita) ibilbide ezberdina egin dutela elkarren artean.

Esana dut lehenago ere, baina errepikatzeak merezi du, Hernaniko musika eskola izan dela Euskal Herri osoan bost instrumentuok bere eskaintzan txertatu dituen aurrenekoa, eta zoritxarrez, ia azkenekoa ere bai (dakidala, Gasteizko Udal Folklore Akademia eta, oso berriki, Bilbao Musika dira besteak). Baina Hernanikoan ere, ez da oso orekatua izan eskaintza hau. Lanaldi osoko irakasle bat izan dute alboka, dultzaina, txistua eta txalapartak, laurak batera, 2009-2010 ikasturtean %60ko beste lanaldi bat gehitu zaion arte. Soinu tresna horiei eskainitako irakas denbora eskaeraren arabera antolatu izan zuen irakasleak, ordea, 1990 arte, eta eskaera horretan txistua nagusitu izan da ia beti (txalapartak ere indar handia hartu zuen

080

081

082

083

084

085

bigarren ikasturtetik aurrera eta, batez ere, 1995etik honuntz).

Denera, 132 txalapartari, 79 txistulari, 61 dultzainero eta 57 albokari pasa dira Hernaniko musika eskolatik. Baina hauen banaketari erreparatzera, txistuaren kasua beste hiruretatik aparte aztertu beharra daukagu. Izan ere, txistua da tradizioan oinarrituta omen dauden soinu tresna horietan 1985erako ikasketa ofizialak zituen bakarra, eta itxuraz beste gauzaren bat dirudien arren, geroztik ere bai. Honek eragin du, beste arrazoi askoren artean, txistuko ikasleen banaketa gure eskolan gainerako soinu tresnetakoetatik gertuago egotea, eta alderantziz, txalaparta eta, bereziki, alboka eta dultzainarena arras ezberdina izatea.

Txistularien %67 emakumeak izan dira, generoen banaketan batez bestekotik gora, baina ez asko ere. Adinaren arabera ere, saxofoia bezalaxe, estandarretan kokatu behar dugu, ia-ia haren banaketa bera azaltzen du eta. Eta jatorriari dagokionez ere, ohikoa: ia %90 hernaniarra, eta kanpoko gutxi horiek gertu-gertukoak (2 urnietar txistulari sonatu, lasartear bat eta 4 donostiar, horietako bat Ierrook idazten ari dena).

Aldiz, alboka, dultzaina eta txalapartako ikasleen banaketa oso bestelakoa da. Ez txistukoenaz bestelakoa bakarrik, baita gainerako soinu tresna guztietakoenaz ere. Sexuari begiratuta, txalapartak jada erakusten du maskulinizaziorako joera txiki bat, gizonezkoen %56az eskolako batez besteko proportzioa iraultzen baitu, baina albokak (%88) eta dultzainak (%82) muturrera daramate joera hori, perkusioa eta tronpetarekin batera %80ko proportzioa gainditzen duten "mutilen instrumentu" bilakatuz. Tira, instrumentuek ez dute kulparik. Barkatu.

Adinei dagokienean ere, eskolako ikaslego helduaren proportzio altuenak, alde handiz, txalapartak (%36,47), albokak (%36,70) eta dultzainak (%23,61) dituzte: hiruetan ere, 18 urtetik beherako ikaslegoa ez da %40ra iristen! Komeni da gogoraraztea 4-18 tarteko batez bestekoa %81,30 dela. Honela, hiru tresna hauek, eta dultzaina bereziki, eskolako tresna "zaharrenak" bihurtzen dira. Eta ez da broma, dultzainak 31-65 adin tartean du eta, matrikulazioaren proportziorik altuena: dultzaineroen %36,87, batez besteko %6,86en aurrez aurre. Txalapartarien perfila gaztexeagoa da, 18-30 bitartean kokatzen baita hauen %41,3; eta albokak ere hor du bere %38,72. Nolanahi ere, azken bi hauen kasuan aipatzekoa da 8-14 urteko adin tarteko proportzioak 31-65ekoak baino zertxobait altuxeagoak direla. Azken hamar urteetan haurrak ugaritzen hasi dira bi tresna horietan, eta horrela jarraitzera, urte gutxitan oreka puntu batera iristeko bidean jarri dituela dirudi. Dultzaina urrunago dabil, artean.

086

087

088

089

090

Eta azkenik, jatorriari erreparatuta ere, eskolako joera guztiak iraultzera datoz hiru tresna hauetako ikasleei buruzko datuak. Esana da, behin eta berriz, Hernaniko udal eskola publikoan hernaniarrek dutela lehentasuna. Bada, hala ere, alboka ikasleen %44 besterik ez da herrikoa. Txalapartak (%67) eta dultzainak (%61) gainditzen dute erdiaren muga hori, baina oso urruti dabiltza batez besteko %86 hartatik. Kanpotarrak erakartze hori egotzi lezaioke Hernaniko eskola instrumentu horietan herriz kanpoko jendearentzako eredu bilakatu izanari, eta hori hala denik ezin ukatu txalaparta eta albokaren kasuan (baita, dultzainari dagokionez, Donostialdeko bailara mailan ere), baina errealitatearen beste aldea ere hor dago: hernaniarrek, haurrek bereziki, ez dituzte tresna hauek beraien lehentasunezko aukeren artean eduki. Ez jotzen ikasteko garaian behintzat, musika jardueraz hitz egitean ikusiko baitugu herrian beste eskaera mota bat ere izaten dela, musika emanaldiena alegia, eta horretan, harrigarria badirudi ere, tradizioan oinarritutako musika tresna hauek dira gehiena eskatzen direnak.

Jatorriei erreparatuta, gertuko herrietatik etorritako ikasle asko aurkituko ditugu hiru tresnatan: Donostia, Astigarraga, Lasarte, Urnieta, Errenteria nahiz Aranokoak. Dultzainako ikaslegoa gehixeago hedatzen da, Oiartzun, Usurbil, Hondarribia, Tolosa edo Arrasateraino, beti ere Gipuzkoa barruan. Baina alboka eta txalaparta dira urrutieneko ikasleak bildu izan dituztenak, Arano eta Goizuetako ikasleak alde batera utzita, tresna hauek baitira gure eskolara Gipuzkoaz kanpoko ikasleak erakarri dituzten bakarrak: Otazu (Araba), Miarritze eta Donibane Lohizune (Lapurdi) edo Uharte Arakildik (Nafarroa). Zabalkunde horrek bai, erakusten du oraintsu esandakoa: Euskal Herri osoan izan dela, hargatik edo honegatik, Hernaniko alboka eta txalaparta eskolen fama.

Soinu tresna maskulinoak, zaharrak eta exotikoak azken batean. Tradizioan oinarritutakoak izango dira baina, zein tradiziotan? Bide luzea dago egiteko oraindik herri soinu tresna hauekin, besteen pare jartzera iritsi nahi bada, eta ez dut uste hori posible izango denik bizpahiru eskola arautu gaberen eskutan baldin badago aukera bakarra. Bitartean gure buruari loreak botatzea baino ez zaigu geratzen: gutxi izango da, baina Hernanin behintzat zerbait egin da eta, besteak beste, 26. ikasturterako (2010-2011) lehenengo aldiz 8 urteko neskatilak matrikulatu dira, jada, dultzainan. Ea bide berriak zabaltzeko balio duen.

Biolina, biola eta biolontxeloa

Biolari buruz ez dago asko esaterik. Bi ikasle baino ez ziren izan, eta epe laburrean, soinu tresna hau jotzen Hernanin

091

092

093

094

095

ikasi zutenak. Hortaz, biolineko ikasleekin batean hartu ditugu horiek biak. Biolontxeloa berriz, berrikien txertatutako soinu tresnatako bat dugu, 2001-2002 ikasturtean alegia, eta gainera oso irakas denbora laburraz, irakasleak lanaldiaren %10 besterik ez duelarik ezin baititu ikasturtero 4 ikasle baino gehiago hartu. Hori dela eta, 8 biolontxelo ikasle izan dira soilik gurean. Hortik ezin da ikaslegoaren banaketari buruzko estatistika handirik atera. Txelista guztiak hernaniarrak izan dira, erdiak emakumeak, eta zortzietako bat 30 urtetik gorakoa zelarik, adinen banaketan ezartzen du helduen proportzio itxurosoa, baina bistakoa da horrek ez duela inongo joerarik adierazten. Instrumentu handia, baina toki txikian.

Biolinarena besterik da. Lehen ikasturtetik orduka eskaini izan den soinu tresna honek bizi izan ditu, beharbada, eskolako instrumentuen artean gorabehera gogorrenak. Hasieran eskaeraren arabera kontratatzen zen irakaslea, eta horrek azkar egin zuenez gora, laugarren ikasturterako lanaldiaren %60 inguruan ezarri zen biolinari zegokion irakas denbora. 1995ean, ordea, krisia etorri zitzaion, 14 ikasletatik 6ra erori baitzen. Eskolaren historian plaza hutsak izan diren kasu gutxietako bat izan zen hura. Nolanahi ere, lau bat urtean buelta eman zitzaion egoerari, eta 2000 urterako ostera 19 ikasle zituen, eta 2003tik aurrera biolina jotzen ikasteko itxarote zerrendak agertu ziren berriro. Gorabeherak gorabehera, 97 biolinista izan dira Hernaniko musika eskolan.

Beraz, Ikasle kopuru aipagarria izan du eta, biolin ikaslegoaren %70 emakumea izan delarik, soinu tresna feminizatuenetakoen artean kokatu behar dugu, pianoa, akordeoia eta trikitixarekin batera (gitarra eta panderoa dira emakumeen proportzio altuenak dituztenak, baina esana dugu kasu bereziak direla biak ala biak ere). Adinari dagokionez berriz, pianoaren antzeko banaketa ageri du, 8-14 urteko adin tartean batez bestekoa baino proportzio altuagoa (biolinisten %76,3) eta helduen presentzia ere bai, oso ugaria ez izanda ere. Asko jota, berezitzat aipatu litekeena zera da: 7 urteko ikaslegoa duela tartean (8 ikasle ere izatera iritsi zen), beste soinu tresna guztietan ez ohikoa hauxe. Horren arrazoia zerean datza: 66ko plana indarrean zela, beste soinu tresnekin hasteko muga 8 urtetan bazegoen ere, biolinarekin "preparatorioaren" aurretik "hastapenaren hastapeneko" ikasturte bat egin egiten zela.

Perkusioa, gitarra eta joera ezberdinak

Amaitzeko, batean hartu baditugu ere, perkusioak, gitarrak eta "joera ezberdinak" deitzen dugun irakasgaiak ez dute elkarrekin zerikusi handirik, ez bada joera ezberdin horietan bat egin dutela, maiz, gitarristek eta perkusionistek (gaur "konbo" esaten zaien talde instrumental berezi horietakoren batean).

096

097

098

099

100

101

Gitarra, biolontxeloarekin batean, eskolan azkeneko txertatutako soinu tresnetakoa dugu, 2001eko hartan lanaldiaren %10eko irakas denboraz, eta 2007-2008tik %20ko lanaldian. Denbora gutxi, honek ere, ikaslego handia osatzeko. 11 gitarra ikasle izan ditugu Hernaniko eskolan azken urteotan, denak hernaniarrak eta ia denak emakumeak (%81,82), ez balitz azken ikasturtean bi mutil hasi direlako gitarra ikasten. Ikasle kopuru txiki horrek eta tresnaren berriak, eskolako soinu tresna gazteena ere bihurtzen du gitarra, matrikulen %90 osatu dutelarik 8-14 urteko haurrek, eta gainerakoak ikasle horiek beraiek 15-18 urte bitartean kokatu direnean etorri dira.

Perkusioko ikasleen kasua oso bestelakoa da. Honek ere orduka izan du kontratatua irakaslea, baina eskaera handia duelako, eta atabal-danborrak, tinbalak edo marinbak talde instrumental askotarako ere ia ezinbesteko tresna direlako, lanaldi osoaren %25eko irakas denbora hartu zuen 2002-2003 ikasturtean. Oraindik ere duen eskaera asetzeko nahikoa ez, noski. Honela bada, 52 perkusio ikasle izan ditugu gurean, pandero joleak eta egin diren bizpahiru danbor ikastaro trinkoetan parte hartu dutenak kontatu gabe.

Gitarra baldin bazen eskolako soinu tresna feminizatuena, perkusioa da maskulinizatuena. Perkusionisten %90 luzea, mutilak izan dira, bost emakume soilik ausartu direlarik tresna hauekin jardutera. Adinaren araberako banaketari buruz, ezer gutxi. Eskolako joerak betetzen dira, berriro ere 8-14 urteko adin tartekoek batez bestekoa baino proportzio altuxeagoa hartuz (%70) eta helduentzat toki gutxi utziaz. Eta jatorriari buruz, beste hainbeste: hernaniarren %88,5en ondoan, bi donostiar eta Astigarraga eta Pasaiko bana.

"Joera ezberdinak" izena ematen diogun irakasgaia ez da, berez, soinu tresnaren bat jotzen ikastekoa, baizik eta lan mota ezberdinak biltzen dituen zaku zabal samar bat. Izenak berak esaten du: gauza ezberdinak. Honetan matrikulatu diren 35 ikasleetatik, batzuek pop-rock moduko musika landu duten "konbo" edo musika taldeetan jardun dira, gitarrak, bateria, ahotsa, teklatuak edo akordeoiak nahasiz; beste batzuek informatika musikala landu dute; eta beste batzuek gitarra eta akordeoi taldeak osatu dituzte. Halako nahaste-borrastearen erdian, ikaslegoaren banaketak ere anitza behar beraz, eta sexuka oso parekatuta azaltzen bazaizkigu ere, ia estandarrean (%60 emakumeak), adinen arabera 8-14 urteko ia ikaslerik ez da izan, 5 ikasle baino ez, gainerako soinu tresnen alderantziz; 30 urtetik gorakoak ere konta ahala, pare bat. Hortaz, gazteentzako irakasgaia izan da orain artean Joera Ezberdinak izeneko hau, 15-30 urte bitartean kokatzen delarik ikaslegoaren %92. Eta jatorriz ere, ezberdin. Gehiengoa berriro ere nabarmen Hernanikoa izanda (%88,6), kanpotar gutxi horiek ez dira beti gertu-gertukoak izan, antzeko joera erakusten zuten soinu tresnetan ez bezala: donostiar bat, irundar bat, tolosar bat eta abaltzisketarra bestea.

Zenbait ondorio

Orain arte azaldutako datuekin batera zenbait iritzi emanak ditut, eta beste hainbat ondorio nik uste bere kasa atera daitezkeela horietatik. Ez naiz, bada, gehiegi luzatuko. Ikaslegoaren sexuaren araberako banaketari buruzko ondoriotxoren bat atera besterik ez.

Ikusi dugunez, "feminizazioa" deitu diodan gertaera ikasle kopuru handienak biltzen dituzten soinu tresnatan agertzen da: pianoa, trikitixa, biolina eta, batez ere, akordeoiaren kasuan. Baina honek badu, eskolaren feminizazio orokorraz gainera, beste soinu tresna askoren "maskulinizazioarekin" harremanik. Izugarrizkoak dira, ordena honetan, perkusioa, tronpeta, dultzaina eta albokaren kasuak, soinu tresna feminizatuenak (panderoa) dituen emakumezkoen indizeetatik gora dabiltzalarik horietan gizonezkoenak, eta saxofoia ere azken honen parean dabil. Beraz, kopurutan eskola feminizatua baldin badago ere, aukeraren aldetik, gizonezkoek askoz ere espektro zabalagoa hartzen dute, emakume gehien biltzen dituzten soinu tresnatan sarrera dutelarik, beste askotan beraiek hartzen baitituzte %70etik gorako plazak. Ez dakit hainbesteraino gizonezkoek hartzen dituztelako den, edo emakumezkoek uzten dituztelako, baina arrazoiak garbi ez badakizkigu ere, ondorioa zera da: gizonezkoek emakumezkoek baino askatasun handiagoz egiten dutela soinu tresnaren aukera. Feminizazio eskasa beraz.

Horretaz ari garelarik, deigarria da panderoaren kasua ere. Eskolaren eskaintza finkoan sartzen ez den soinu tresna izaki, berau da emakumezkoeen indize altuenak dituen bi tresnatako bat (bestea gitarra zen). Juan Mari Beltran eta beste zenbait adituren idatziei jarraiki (Leturia eta Urkizu:2010), badirudi garai batean Euskal Herrian ere panderoa gehienbat emakumeek jo izan duten soinu tresna dela, baina egia ere bada trikitixaren inguruan gizonezkoak pandero jotzen hasi zirenetik, XX. mendean plazan jardun diren panderista gehienak hala izan direla: Maurizia Aldeiturriaga sonatuaz gainera, ez zen ia emakume panderistarik agertzen gure herrietako plazatara 1980ko hamarkada arte. Gaur, ordea, badirudi ostera 180 graduko jira egin duela panderoak, generoari dagokionez, eta Hernanin behintzat, berriro ere emakumeen eskutara itzuli dela. Historia berezia benetan.

Baina eskolako ikaslegoak soinu tresnatan sexuaren arabera duen banaketara itzuliz, aipatu dugun gertaerari arrazoiren bat bilatu nahi genioke. Eta, dudarik ez, arrazoi sakonenak testuinguru soziokulturalean bilatu behar dira. Baina eskolaren egituran bertan ere aurki daitezke aldagai eragileak. Horietako bat izan liteke irakaslegoaren sexuaren araberako banaketa. Izan ere, emakumezkoen ikasle tasarik altuenak dituzten soinu tresnen artean, akordeoia, trikitixa eta biolinarekin gizonezko irakasleak ere izan badira ere, gehienak, eta alde handiz, emakumeekin jardun dira; piano, gitarra eta pandero irakasleak ere halaxe izan dira, emakumeak. Eta alderantziz: tronpeta, perkusio, alboka, dultzaina eta saxofoi irakasleak gizonezkoak izan dira, ikaslegoa bezalatsu. Ikaslegoa eta irakaslegoaren arteko harreman hori hausten duten kasu bakarrak klarinetea eta txistua dira, lehenengoan urte gehienez emakumea izanda ere, gizonezkoen tasa garrantzitsua baitu (%50), eta txistuaren kasuan alderantziz, irakaslea gizonezkoa izanda ere, apur bat feminizatua agertzen zaigu. Baina bi horiek salbuespentzat harturik, badirudi irakasleen generoa oso faktore garrantzitsua dela ikasleen beraien aukera egiteko orduan, nahiz eta erabakiorra izan ez.

Hala ere, ez da komeni ahaztutzerik barne 'kausalitate' hori kasualitatea ere ez dela. Izan ere, akordeoia edo pianoa bezalako irakaslegoa nagusiki emakumea, edo tronpeta eta perkusiokoa soilik gizonezkoa izateak berak erakusten du joera horiek ez dagozkiola Hernaniko musika eskolari soilik, eta ez direla gaur goizekoak.

103

104

MUSIKA JARDUERAK

Eskolako eguneroko jarduerak era askotako lanak biltzen ditu, eta horietan nagusia, dudarik gabe, eskola ordutan nahiz hauetatik kanpo (etxean, orduz kanpoko eskola eta entsaiotan,...) egiten den formazio lana da, edozein hezkuntza prozesuren oinarria. Musika ikasketek badute, ordea, beste lan esparru garrantzitsu bat ere: jendaurreko interpretazioarena. Izan ere, ikasleek jendaurrean musika egitea, dela kontzertu tankerako entzunaldietan, dela kalean edo plazan, ez da heziketa prozesuaren helburu nagusietako bat soilik, ikasle horien ikasketen ibilbidean ezinbesteko oinarri pedagogikoa ere bada, edozein musika metodoren zutabeetako bat. Nola ikasi musika egiten musikarik egin gabe? Uste horrek bultzatuta, Hernaniko musika eskolako irakaslegoak hasiera-hasieratik sustatu ditu hainbat eta hainbat jendaurreko musika saio.

Baina, jakina, kontzertu edo kalejiraren bat antolatu den unetik, nahiz eta oso apala izan, entzulego bat sortzen ari da, eta horrek beste gizarte maila bat jartzen du martxan eskolaren jardueran. Bistakoa denez, ikasleen musikaren entzule leialenak hauen senitartekoak izaten dira; denok dakigu honez gero kontzertu areto bat entzulez betetzeko erarik seguruena haurrak eszenatokian jartzea dela, guraso eta bestelako senide eta lagunez laster egingo du eta, gainezka (eta ez noa azaltzera argazki eta bideo kamera dijitalak as matu izanak upela irakiten noraino jarri duen). Hala ere, Her naniko esperientziak erakusten digu hori, behar-beharrez koa eta eskergarria izanagatik, lehen urratsa baino ez dela.

Musika eskolatik ikasleak maiz bultzatu badira ere beraier musika saioak jendaurrean eskaintzera, beste askotan, et gero eta gehiagotan, herriko eta inguruetako hainbat jend eta erakunde izan dira eskolara gerturatu direnak ikasleor doinuen eske. Horrek erakusten du, alde batetik behintzat "entzulegoa" deitu dudan beste gizarte sektore hori ez del entzute hutsera mugatzen den masa pasiboa; eta erakus ten du, batez ere, gizartean, herrian, musikaren premia da goela. Hernanin behinik behin oso nabarmena da premi hori, esaten ari naizen eskaera hori ikaragarri hazi baita ur tetik urtera, eta neurri batean herriko bizitza kulturalaren ezinbesteko erreferentzia izatera ere iritsi da musika eskola ez hainbeste heziketarako gune gisa, baizik eta zuzenek musikarien harrobi gisa.

Honek baditu bere itzalak ere, baina hutsa argien ondo an: ez daukagu erakusle fidagarririk eskura, baina egingo genuke gaur gaurkoz Hernani dela urtean zehar egitarau kultural zabalenetakoa duen herrietako bat, gutxienez Do nostialdean, eta seguru asko probintzia mailan ere bai, ba tez ere kaleko jarduerei dagokienez, eta horien artean mu sika da ia beti nagusi, edo parte.

Eskolako artxibora jo eta, urtez urteko memoriak nahi bestelako egitarau eta dokumentuak hartuta, beldurrik ga be esan genezake milaka eta milaka aldiz atera direla esko lako ikasleak jendaurrean jotzera edo abestera. Nekeza da ordea, jaduera horiek denak kontatzea bera ere, arrazoi ez berdinak direla medio. Batetik, memoria horietan saio asko jaso gabe geratu direla ohartu gara begiratu ahala, bate ere aurreneko hamar-hamabi ikasturtetakoak. Hori jakin ba dakit neroni ikasle nintzelako garai haietan eta inon jaso gabe geratu diren txistulari eta dultzaineroen saio asko di tut gogoan: urte haietako Ereñotzuko aste kulturaletakoak Portuko edo Etxeberriko jaietakoak, Mugarri festak, eta beste

105

106

107

108

hainbat eta hainbat. Halaber, urte haietako trikitilarien saiorik ia batere ez dela jaso ohartu naiz, eta ezin ditut ahantzi han eta hemen txistularion inguruan ia beti izaten genituela haiek ere; oraintxe bezala, ez zen geldirik egotekoa trikitilari jende hori. Eta horiekin hala gertatzen bada, zalantza gutxi: gainerako soinu tresna eta taldeen saio asko eta askorekin ere, gisa bera. Hala ere, ikasleek zuzenean jotzen parte hartu izan duten 3.100 saiotik gora kontatu ahal izan ditugu, eta kopuru hori ikusita susmoa daukagu beste mila inguru izan daitezkeela, bat eta beste, jaso gabe geratu direnak. Jasota dauzkagun hiru milatik gorako saio horiek egunetan banatuko bagenitu, dakizkigunekin bakarrik, hogeita bost urtean eskolako ikasleak hiru egunetik behin jendaurrean jotzen arituak izango lirateke. Eta horri erantsi lehenengo ikasturtean saio bakarra daukagula jasoa (ikasturte amaierako ikasleen kontzertua), eta bigarrenean bi besterik ez direla (kontzertu hori bera eta txalaparta festa). Edonor ikaratzeko modukoa da, beraz, batez ere 1999tik hona, Hernaniko musika eskolako ikasleen jarduna. Hortik letozke lehen aipatu ditudan itzalak: sarri askotan gehiegi ere ez ote diren jarduten...

Jarduera horien berri izateko beste arazo bat sailkatzeko garaian sortzen zaigu. Era askotako musika saioak sartzen dira tartean: kontzertuak, entzunaldiak, kalejirak, lehiaketak, dianak,... Alarde edo topaketa batetik hasi eta omenaldi edo ezkontzaren batean doinu koskor bat jotzeraino, era guztietako funtzioak betetzen ditu musikak gizartean, eta gizarte horren ispilu, gure eskolako ikasleak ere jardun izan dira bakarka, bikotean, hiru-lau lagunetako taldean, edo ehundaka lagun bildu dituzten emanaldietan; jardun izan dira eskolakoak bakarrik, beste eskola batzuetakoekin batera, edo beste era askotako jendearekin (dantzariak, antzerkigileak, kontalariak, sagardozaleak, udalak, merkatariak,... herritarrak). Soinu tresnaz soinu tresna hartu nahi bagenitu ere, ia ezinezkoa litzaiguke sailkapen txukun bat egitea, musika jarduerak gehienean talde lana eskatzen baitu, eta engainagarria gerta liteke era honetako sailkapenik egitea. Adibide baten bidez azal dezadan: dultzaineroen saio bati buruz hitz egiten dugunean, ezin ahaztu danborrero edo atabalariren bat dultzaineroekin batera jardun izan dena, eta horrelako guztiak dultzaina saio huts gisa hartuz gero, perkusionistek egindakoen kopuruan kale handia egingo genuke. Zer esan, beraz, musika banda, fanfarre edo konbo gisako formaziotan gertatzen diren taldekatzeez: nola jakin, bada, klarinete joleek zenbat saio egin dituzten? Edo zenbat aldiz lagundu duten pianistek abesbatza? Edo pianisten entzunaldietan zenbatetan parte hartu duen biolina, saxofoia edo txistua jotzen zuen ikasleren batek?

Hori argituta, gutxi gorabeherako taldekatze bat egin genezake: trikitilariek, txistulariek, dultzaineroek, albokariek,

txalapartariek eta akordeoi joleek badute nolabaiteko autonomia, bakarkako-binakako saiotan jarduten direlako edo talde instrumentalean nahiko definitua dagoelako talde horien egitura: perkusionistak (atabalari eta pandero joleak batez ere) izango dira gehienetan talde horietan, eta noiz edo noiz beste soinu tresnaren batek ere lagunduko ditu (abesbatzaren kasuan, pianoak gehienbat). Pianistek ere, jakina, badute autonomia hori, nahiz eta teklatu taldeak sortu ziren arte taldeko jarduera piano jole hutsen artean egitea ia pentsaezina zen (ez bazen lau eskutara pianoa jotzea). Saxofonistek berriz, urte luzetan osatu dituzte saxofoi hutseko taldeak, sopranoetatik baxuetarainoko soinu tresnaren familiak ematen baitu aukera hori, baina ez dago horrelakorik egiterik klarinete eta tronpetekin: askoz egokiagoa da soinu tresna horiek elkarrekin biltzea bandak eta tankerako formazioak osatzeko. Biolinarekin ere gertatzen da antzeko zerbait, baina biolontxeloa oso berriki sartu denez eskolan, ez da aukera askorik izan tresna honekin talde lanik egiteko, eta beraz, ganberako musikan izan du ia aukera bakarra: pianistekin batera edo bakarka. Hori horrela, ikasleen bandaren eta saxofonisten saioak batera hartuta, eta perkusio, klarinete eta tronpeta joleek beren kabuz egindako gutxiak alde batera utzita, datu batzuk emateko eran gara. Txistulariek eta txistu taldeek 930 saiotatik goratan parte hartu dute; trikitilariek 825 baino gehiagotan; dultzainero eta dultzaina taldeek 760tik gora; akordeoi jole edo akordeoi taldeek 330 pasa; albokariek 295 inguru; piano eta teklatu joleek 210 saiotatik gora; saxofonista, saxofoi talde edo ikasleen bandak, 180 baino gehiago; txalapartariek 135 bai behintzat; abesbatzak ere 130etik gora; hastapeneko haurrek 80 entzunaldi baino gehiago egin dituzte; eta biolinista edo soka taldeek 40 gutxienez. Horiek, dakizkigunak bakarrik.

Saio horietako asko elkarrekin egindakoak dira. Santa Zezilia eguneko kontzertu batean, esaterako, pianistek saioren bat egin ondoren soka taldeak eskainia izango du berea, eta abesbatzak jarraian beste bat. Horrelakoak saio ezberdinak bailiran hartuko bagenitu, emango ligukeen kopuru osoaren portzentaiak honela banatuko lirateke: txistu taldeak saioen %24, trikitixak %21, dultzainak %13, akordeoi taldeak %8, albokakoak %7, piano-teklatuek %5, saxofoi talde eta ikasleen bandak %4, abesbatzak %3, txalapartak ere %3, hastapenekoek %2, konboek (joera ezberdinetako taldeak eta beste zenbait) %1, soka taldeek %1, eta gainerakoek %2. Sailkapen hau ez da erabatekoa, ezta gutxiago ere, eta gauza bat bakarra erakusten duelakoan nago: lege aldetik gutxietsienak diren soinu tresnen inguruko taldeak (txistulari, trikitilari eta dultzaineroek alegia) direla gehiena jarduten direnak jendaurrean; eta areago, saio horiek nork antolatu dituen erreparatuko bagenu, ohartuko ginateke hain zuzen ere tresna horien inguruan biltzen direla musika eskolak zuzenean antolatzen ez dituen gehien-gehienak. Hau da, herri mailan eskaera handiena, musikari dagokionez, txistulari eta trikitilariena dela. Nabarmen.

Hortik aurrera ezin gara ausartu sailkapen eta estatistikatan askoz gehiago murgiltzera, ikusi dugunez dauzkagun datuak oso mugatuta daude eta. Baina urtetan egindako lan eskergaren testigantza gisa, merezi du aipatzeak haietako batzuk. Hernaniko musika eskolaren zigilu edo bereizgarri nagusia berauek osatzen baitute.

Musika eskolak antolatutako ikasleen saio edo musika emanaldiak

Hogeita bost urte bete baldin baditu musika eskolak, hogeita bost urte daramatza ikasle kontzertuak antolatzen. 1986ko ekainaren 26an Sandiusterri aretoan lehenengo aldiz **ikasturte amaierako ikasle kontzertua** antolatu zenetik, ez du huts egin urteroko zita honek. Aurreneko bi-hiru ikasturteetan San Juan festen baitan egin zen, baina eskolako jarduera izaki, laster aurreratu egingo zen egutegian (beti ere ikasturte amaieran), eta 1990erako kontzertu bat ez, kontzertu ziklo bihurtua zen, eskola hazi ahala ikaslego osoa bakar batean aurkeztea ezinezko gertaturik. 1990ean antolatu zen **Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua**k ere etengabeko jarraipena izan du geroztik, ikasturte amaierakoekin batera, eskolaren osotasuna jendaurrean aurkeztera bideratutako ekitaldi nagusienetakoa izan delarik.

Helburu zehatzagoz, beste makina bat ikasle kontzertu edo entzunaldi eta bestelako emanaldiak ere antolatu izan dira ordea. Horietan aipagarrienak urteen joanean jarraipena izan dutenak dira noski. Hala bada, **musika eskolen arteko elkartrukea**k dira horietako batzuk. 1996ko maiatzean Orioko musika eskolarekin egin zen lehenengo elkartrukea, oriotarrek Hernanin eta gure eskolakoek kostako herrian kontzertu bana eskaini zutelarik. Geroztik, eta hurrenez hurren, ondoko herri hauetako musika eskolekin egin dira elkartrukeok urtean behin: Eibar, Barañain, Burlata, Azkoitia, Bera, Durango, Deba, Mutriku, Legazpi, Agurain, Erriberri (Olite) eta Andoaingo musika eskolekin.

1989an **iganderoko saioak** antolatzen hasi zen eskola. Euskal herri musika tresnetako ikasleei plazaren bat eskaintzeko asmoz, hasieran igande arratsaldero, eta bigarren urtean eguerdiro, bi talde atera dira herriko kaleak alaitzera, Plaza Berrian (edo, eguraldi pattaletakoan, udaletxeko arkupetan) saio koskorrak eskainiz ibili direlarik, urtero-urtero eta igandero-igandero, trikitilari, txistulari, dultzainero, albokari eta akordeoi joleak, azken urteotan ikasleen banda ere gehitu zaielarik. 2004ko eguberritan, txistu taldeak kontzertu berezia eskaini zuen udaletxeko arkupetan, iganderoko saioon egutegiaren baitan. Geroztik, **Txistulariak Arkupetan** deitu izan dugun zikloa iganderoko musika saioen

eskaintzaren parte berezi izan da, 15 kontzertu eman dituztelarik jada (urtean bi edo hiru); horietako bi, gainera, hirugarren mailako saxofoi taldearekin batera egin ziren, "Hernasax" izenekoarekin alegia, eta talde honek bere kabuz ere beste kontzerturen bat eskaini du, ikasleen bandarekin batean iganderoko musika eskaintza horretan txertatuz.

Baina ziklo iraunkor horiez gainera, ikasleen beste emanaldi asko antolatu ditu eskolak, eta horietako batzuk ere, ez dakit nahita edo ohartu gabe izan den, iraunkor bihurtu dira urtean barruko programazioan. Hori da hainbat eta hainbat **entzunaldi** sailen kasua. Pianistek 1995eko ekainean antolatu zuten horietako bat, gerora, maiatzean edo ekainean, ikasturte amaieraro jarraipena izan duena, gehienetan Milagrosa kaperan, eta urte askotan bi entzunaldi ere izan direlarik: bata pianokoa eta bestea teklatu taldeena. Ikasturtearen erdi aldera, otsailean gehienetan, baina urte batzuetan urtarrilean edo martxoan ere bai, izan dira piano eta teklatuen entzunaldiak, gutxienez 1996tik (lehenagotik ez bada). Eta pianisten entzunaldiei dagokienez, 1999ko eguberritan hasi ziren gabonetako kantekin osatutako beste entzunaldi berezi bat egiten, eskolaren egutegian indarrez sustraitu dena berau ere. 4-7 urte bitarteko ikasleek ere, hastapenekoak esaten diegunek, 1996tik bederen eskaintzen dituzte urtero entzunaldiak, egindako lanaren erakusgarri, otsail inguruan batzuk eta ikasturte amaieran, ekainean, beste batzuk. Eta ez dira horiek bezain jarraikorrak, baina ugariak bai, izan dira akordeoi entzunaldiak, perkusioko ikasleenak, haizezko tresnenak (saxofoi, klarinete eta tronpeta ikasleenak, hala nola ikasleen banda eta saxofoi taldeenak) eta sokazko tresnenak, azken hauek askotan pianistekin batean egin izan dituztelarik. Akordeoi entzunaldiak ia urtero izan dira apiril-maiatza aldera 1996tik, eta azaroan ere bai maiz, Arrasateko akordeoi lehiaketarako prestatzea aitzaki. Haizezkoenak ez dute izan urtean barrena testuinguru jakinik, baina batera edo bestera, urtero antolatu dute bat edo beste, 2002ko maiatzean, 2008ko azaroan eta 2010eko martxoan egindako "saxookea" adibidez.

Eguberri ingurua ere, garai aproposa izaten da musika jarduerak gauzatzeko. Hartara, 1998kotan eskolako ikaslegoa oro har, kalez kale atera zen, olentzeroa hartuta, eguberri kantak abestera, eta geroztik urtero egin izan da **musika eskolako olentzeroa** deitzen dugun hau. 1999-2002 tartean ere, Hernasax saxofoi taldekoek eguberri egunez auzoz auzoko itzulia egin zuten urtero, gabon doinuak joaz, eta geroztik ere atera izan da herriko kaskoko kaleetan barrena, ikasleen banda edo saxofoi taldea. Txistulariek berriz, 2008an ekin zioten eguberri egunez alboradak jotzeari.

Eskolen arteko elkartrukeez gainera, **beste hainbat elkartruke** egin izan dira urte hauetan, bereziki aipagarriak abesbatzak egindakoak, eta horietatik kontzertu nahikotxo sortu dira herrian, abesbatzak ere beste herri mordoska

109

110

batean abestu ahal izan duelarik. 1997an Pasaiako Illumbe Gaztea abesbatzarekin, 1998an Donostiako Zurriola abesbatzarekin, 2006an Alegiako Txintxarrirekin edo 2008an Lezokoarekin egindakoak, adibidez. Dultzaineroek ere egin dituzte horrelakoak, kontzertuak baino gehiago, kalez kaleko irteeratan gauzatu direnak. Honela izan ziren Hernanin jotzen 2000, 2008 eta 2010 urteetan Errioxako dultzainero eta gaiteroak, 2003an "L'Aula de Música Tradicional i Popular de la Generalitat de Catalunya" eskolako ikasle-irakasleak, edo 2008an Xixon-go (Asturies) "La Quintana" herri musika eskolakoak. Eta era berean, Hernaniko eskolakoak izan dira Briones (2001, 2008 eta 2010), San Asensio (2002) eta Xixonen bertan (2008). Bestalde, dultzaina taldeak ere ohitura hartu du, 2005etik, ikasturteko azkeneko eskola egunean entsaioa kalean gauzatzekoa.

Eskolatik antolatutako saioei dagokienez, ezin aipatu gabe utzi seguru asko Hernanitik kanpora ezagunena diren jaialdiena. Esana dugu **Andoaingo piano jaialdia**ren antolaketan zuzen-zuzenean parte hartzen duela Arantza Alberdik, jaialdi hau 2006an lehenengoz antolatu zenetik, eta noski, eskolako ikasleek ere urtero hartu dute parte jaialdi horretan. Hernanin antolatzen dira, eskolatik, beste hiru jaialdi monografiko edo: **Txalaparta Festa**, 1987ko apirilean antolatu zuten lehenengoz Juan Mari Beltran eta eskolako txalapartariek, eta 2010eko maiatzean 24. edizioa

111

112

113

osatu berri du Euskal Herriko txalapartari guztien topagune nagusi bilakatu den festa honek. **Albokarien Topaketa** berriz, 1994ko ekainaren 27an egin zen lehenengoz, San Juan jaien egitarauaren baitan, eta 1998an udazkenera aldatu zelarik, izate propioa hartu du 2009koan 17. edizioa betetzeraino; hau ere Euskal Herri osoko albokarien topagune. Eta Hernaniko Txistulari Jaialdia berriz, 2005etik ospatzen da, larunbatetan jokatzen den **Txistulari Gazteen Txapelketa** delarik Euskal Herri osoan jarraikortasunez egiten den era horretako lehiaketa bakarra. Guztietan parte hartu dute gure eskolako ikasleek, noski. Gainera, luze hitz egitea legoke jaialdi horiek eskolarentzat, herriarentzat eta, areago, Euskal Herri mailan soinu tresna horien inguruan suposatu dutenari buruz, baina gehiegi ez luzatzearren hementxe utzi beharko dugu horien aipamena, merezi duen lekuan horiei buruzko berri zehatzagoa ematerik izango delakoan.

Hileroko Kontzertu Zikloan gure eskolako ikasleek izan duten partaidetza ere ez dugu ahaztu nahi, ziklo honi buruz aurreraxeago mintzatuko bagara ere. 1998ko maiatzean, Hernaniko Akordeoi Orkestrak eskaini zuen kontzertu berezia, 2004ko urrian Hernasax saxofoi taldeak, 2005ekoan ostera akordeoi taldeak Lauhaizeta akordeoi orkestrarekin, eta 2009ko maiatzean Hernasax Erromako kontserbatorioko saxofoi irakasle den Javier Girottori laguntzen jardun zen, maisuki.

Era berean, oso ugariak dira urte horietan guztietan antolatu izan diren **kontzertuak**, nahiz eta ziklo edo urte garai jakinei lotuta egon ez. Horietan, eta lehentxeago aipatu ditugun entzunaldiez gainera, saxofoi taldeek (Hernasaxek bereziki), akordeoi taldeak eta abesbatzak eskainitakoak dira ugarienak. Hernasaxek kontzertuak eskaini izan ditu Adunan (1999 eta 2001), Astigarragan (2001, 2003 eta 2008), Lezon (2007), Pasai Antxon (2002) edo Usurbilen (2009), eta saxofoi kontzertu bereziak ere ugari izan dira, Irungo Erain Txiki ikastolan eskainitako kontzertu pedagogikoen gisa (2004 eta 2008) edo Gasteizko Kontserbatorioko ikasleekin batera egindakoak (2005 eta 2006), adibidez. Akordeoi talde eta orkestrek eskainitako kontzertu anitzen bereizgarrietako bat, beharbada, beste herri batzuetako taldeekin egin izandako elkarlana da. Hala, 2000. urtean Lasarteko Zero Sette akordeoi orkestrarekin batean jardun zen gure eskolakoa, Lasarten eta Donostian emandako kontzertuetan, eta 2005 urtetik aurrera "Lauhaizeta" akordeoi orkestra osatu zuten beste hiru eskolatako taldeekin batera, hortik sortu zirelarik Lezon (2005), Usurbilen (2007) edo Hernanin bertan (2006) emandako kontzertuak, hala nola 2010ean orfeoiarekin batera Donostian emandakoa. Lauhaizeta akordeoi orkestrak diskoa ere grabatu zuen 2006ko udazkenean. Azkenik, abesbatzaren kontzertuetako batzuk aipatu ditugu, elkartrukeetatik sortutakoak, baina bestela ere emanaldi asko izan ditu eskolako abesbatzak, Tolosan eta Astigarragan (2007) edo Zarautzen (2009) nahiz Donostian (2010). 1999an Amaia Zubiriaren "Hou pitxu hou!" diskoaren grabaketan parte hartu zuen abesbatza honek, eta handik sortu zen Lesakan egindako diskoaren aurkezpeneko kontzertu ere. 2000.ean berriz, Errenteria Musikaleko orkestrarekin batean jardun zen "La Mision" eta "Sonrisas y lágrimas" filmeetako musikarekin osatutako egitaraua zuen kontzertua eskaintzen Alegian, Errenterian eta Donostian. Eta lehentxeago, 1998an, Juan Jose Oconen zuzendaritzapean Euskadiko Orkestrak eta 40 abesbatza ezberdinek eman zuten "Kantata 98" makrokontzertuan ere parte hartu zuen gureak, Donostiako Belodromoan. 2005ean, berriz, "Hernaniko Kaldereroak" diskoa grabatu zuen ikasleen bandarekin batera.

114

115

116

Eta beste asko dira eskolak antolatutako edo parte hartutako kontzertuak. Bakarren batzuk aipatzeagatik, 2000.ean, Donostia Hiria piano lehiaketa irabazi zutela eta, Eider Balerdi eta Maddi Mitxelenak emandakoa, edo 2002ko maiatzean Floridako San Jose Langilea parrokian antolatutako ikasle kontzertu berezia, nahiz Donostiako Musika eta Dantza Eskolak antolatutako "Udaberria Sol Nagusian" kontzertu zikloaren baitan Hernasax eta txistu taldeak hiriburuko Gipuzkoa Plazan 2007koan eskainitakoa,... eta beste zenbat!

Musika eskolen elkartearekin (EHMEE) edo beste musika elkarteekin antolatuak

Gure eskola Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartean sartu zenetik, erakunde honek antolatutako hainbat ekintza eta jaialditan parte hartu izan du. Horietako bat da musika eskolen topaketa gisara antolatu izan den **Musikaldia** jaialdia, Getxon (2003), Elgoibarren (2005), Erandion (2007) eta Mungian (2009). Elkarte hau orkestra eta banda propioa osatzen saiatu zenean ere parte hartu zuten egitasmo hartan gure eskolako ikasle batzuk, abesbatzak berak orkestra hark emandako kontzertu gutxietako batean abestu zuelarik. 2008koa da berriz "MusiKalean" izeneko ideia, Santa Zezilia eguna ospatzeko Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako herri desberdinetan egun eta ordu berean eskoletako ikasleak kalera jotzera ateratzean datzana.

EHMEEren baitan, Donostialdeko musika eskolek bilduta ekimen desberdinak ere izan dituzte. Donostiako Musika Eskolak zuzenean antolatu zuen 2004ko eguberritako Gospel kontzertu berezirako abesbatza erraldoian izan ziren Hernaniko eskolakoak ere, Jerry Smith jaun agurgarriak zuzendutako bi emanalditan. 2009ko maiatzean berriz, musikal berezia antolatu eta eskaini zuten Donostialdeko musika eskolek elkarrekin, Donostiako Victoria Eugenia antzokian; Hernaniko eskolako albokari, txalapartari, akordeoi jole eta abesbatzak parte hartu zuten Iñigo Peñaren "Mariren labirintoa" musikalean, eta haren inguruan antolatutako "sormenaren mobilizazioa" kontzertuetan izan ziren eskolako pianista eta teklatu taldeak, hala nola "Leoka" eta "Koxkorri" taldeak ere. Eta 2010ean Lezon antolatutako trikitilari eta haur abesbatzen alardean ere parte hartu dute gureek.

Beste hainbat musika elkarte eta taldeekin elkarlanean ere jardun gara, eta horietatik sortu dira beste hainbeste emanaldi. Adibidez, "Hauspoz" akordeoi elkarteak antolatu ditu "La Milagrosa" akordeoi zikloko kontzertuak, Hernanin. Donostiako Udal Txistulari Taldearekin, berriz, praktikatako diana eta kontzertuak egin dituzte gure ikasleek Donostiako Konstituzio Plazan, Jose Ignazio Ansorenaren zuzendaritzapean; eta Euskal Herriko Txistulari Elkartearekin ere aritu dira, besteak beste Elkartearen Ohiko Batzar Orokorraren inguruko kalejira eta kontzertuetan.

Bestalde, hainbat eta hainbat jaialdi, topaketa eta lehiaketatan izan dira gure eskolako ikasleak, baina hauetan jada zerrendak asko hasten dira luzatzen, eta hobe izango da horixe egitea: zerrendatzea.

Akordeoi joleen topaketak eta jaialdiak:
- Arrasateko Akordeoi Lehiaketa: 1989tik, ia urtero.
- Zarauzko Akordeoi Aste Kulturala.
- Akordeoi Topaketak: Bera (2003), Barañain (2004), Tolosa (2005), Mutriku (2007), Elgoibar (2008), Pasaia (2010).
- Nazioarteko Akordeoi Jaialdia Andoainen.

Dultzaineroen topaketak:
- Errenteriako Madalenetako dultzainero topaketa.
- Pasai Antxoko San Ferminetako dultzainero topaketa.
- Donostiako Euskal Jaietako dultzainero topaketa.
- Donostiako Santo Tomas eguneko dultzainero topaketa.
- Oiartzungo Xanistebanetako dultzainero topaketa.
- "Encuentro de dulzaineros" Sorian 2004an.
- II. Dultzainero Eguna Gordexolan 2007an.

117

118

119

Txistularien topaketa eta alardeak:
- Donostiako Txistulari Kontzertu nagusia.
- Samieletako Txistulari Kontzertua (Urnieta).
- San Isidro eguneko txistulari topaketa (Pasaia, Tolosa, Andoain, Lezo, Errenteria, Hernani, Villabona).
- Xanistebanetako Txistulari Kontzertua (Oiartzun).
- Villabonako Txistulari Alardea.
- Santa Zeziliako txistularien elkartzea (Donostia eta Aduna).

Beste topaketa batzuk:
- VI. Musika Ihardunaldiak: Klarinete jotzaileen alardea (Azkoitia, 2000).
- "Hernasax" saxofoi topaketak. Hernanin 2006ko azaroan.
- Saxofoi topaketak Zumaia, Tolosa eta Gasteizen.
- Txalapartarien topaketa eta jaialdiak Elizondon ("Kirikoketa Besta", 2000), Trapagan (2002) nahiz Anoetan (2004).
- Alboka topaketa herrikoiak Araban (Otazu, Albaina, Zalduondo, Lantziego).

Jaialdiak:
- Andoaingo Haurren Euskal Jaia (1988, 1998, 2001, 2002, 2003 eta 2007).
- Oreretako Erromeria Eguna (dultzaineroak).
- Itziarko Erromeria Eguna (dultzainero eta txistulariak).
- Lauarin Folklore Jaialdia, Donostian.
- Erandioko folklore jaialdiak.
- Donostiako Musika Hamabostaldia: txalapartari txikiak 2001ean.
- Txistulariak dantza txapelketatan: Zarauzko Aurresku Txapelketa, Oiartzungo Aurresku eta Soinu-zahar Txapelketa, eta Donostiako Soinu-zahar Txapelketa.

Lehiaketak:
- "Donostia Hiria" Nazioarteko Piano Lehiaketa.
- "Elgoibar Herria" Instrumentu Taldeen Lehiaketa.
- Euskadiko Kantu Txapelketa (abesbatza).
- Nafarroako Kantu Txapelketa (trikitixa).
- Gasteizko II. Instrumentu Gazteen Konbokatoria (txistua).
- Musikari Gazteen Gipuzkoako IV. Jaialdia (pianoa).

Trikitilarien txapelketak:
- Hernaniko Gazteen Trikitixa Lehiaketa.
- Martindegiko Trikitixa Txapelketa.
- Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Lehiaketa (Agurain eta Zaldibarren).
- Zarauzko Trikitilari Txapelketa.
- Martitteko Trikitilari Txapelketa.
- Aiako Trikitilari Txapelketa.
- Getariako Trikitixa Txapelketa.
- Arroako Trikitixa Txapelketa.
- Zeanuriko Trikitilari Txapelketa.
- Donostiako Trikitilari Txapelketa.
- Arteako Trikitilari Txapelketa.

Azken sail hauetan, lehiaketa eta txapelketetan alegia, gure ikasleek lortutako sariak asko eta era askotakoak izan dira, jakina, baina ez dugu horiek aipatzen hasi nahi, batez ere bakarren bat ahaztutzeko beldurrez. Bai, merezi dute eta, Donostia Hiria piano lehiaketa eta Elgoibarko instrumentu taldeena ekarri nahi ditugu bereziki gogora, poz handiak ekarri baitizkigute urte askotan haietan egindako lanek. Eta noski, Hernaniko iraileko trikitixa lehiaketa ere ez da gutxiago, herrikoa izateaz gain 1999tik urtero berau antolatzen duten Kriskitina dantza taldekoeekin lankidetzan jardunda, erabat sustraituta daukagu eta, gure trikitilarien jardunean.

120

121

122

123

Eta zuzeneko emanaldiak baino gehiago azterketak baziren ere, ezin utzi aipatu gabe, emaitza apartak direla eta, akordeoi eta piano ikasle askok 1998-2001 bitartean "**Guildhall School of Music** to London" delakoan egindakoak.

Beste asko izango dira hemen ahaztutzen ditugunak, eta aipatutakoei buruzko hamaika xehetasun ematerik ere bagenuke, baina oraindik ere beste saio zerrenda luzeak dauzkagu hona ekartzeko, eta aurrera egin behar bada.

Hernani, urtean barrena...

Txalaparta Festak 24 udaberri egin baldin baditu Hernanin, dudarik ez dago herriko egutegi kulturalean erabat txertatua dagoela. Baina aurrenekoa izanagatik, ez da hori egutegi horretan gure eskolako ikasleek duten zita bakarra, esan litekeelarik urte osoan barrena herrian diren festa eta ospakizun gehientsuenen parte direla. Eta horren adibide garbiena San Juan festetan daukagu. Inongo hernaniarrek ez luke zalantzan jarriko horiek, herriko festak, direla urteko ospakizun nagusia gurean, eta 1988tik, hau da, eskolaren hirugarren ikasturtetik, eskolako ikasleen esku izan dira festetako dianak, buruhandiak, eta egitarauko hainbat ekitaldi, besteak beste urte hartan sortu zen Akelarrea ere eskolako dultzaineroek osatu dutelarik geroztik. Bost egunetako festak izaten dira berez, baina festak hasi aurretik ere hainbat ospakizunek osatzen dute egitaraua, ekainaren 23tik 27rako etengabeko jardunaz gainera.

San Juan festen aurreko horietan "San Joan jaien iragarpen kontzertua" edo, herritarren artean, "**preludioa**" izenez ezagunagoa den kontzertu erraldoian hasiera-hasieratik hartu dute parte musika eskolako ikasle eta irakasleek. Hernaniko Musika Banda, txistulari eta abesbatzen ekimenez sortu zen kontzertu hartara berehala hasi ziren biltzen herriko musikaren inguruko beste taldeak ere, eta musika eskolak berak antolatzaileen taldean parte hartzen du jada aspalditxotik. Baina preludioarekin batera 1999tik ospatzen den **Preludio Txikia**ren antolaketan zeresan handiagoa du seguru asko. Bigarren kontzertu hau herriko ikastetxe guztietako haurrak bildu eta, helduek egiten duten gisara, antolatu izan da Urumea, Langile, Elizatxo eta Inmaculada ikastetxeak, eta Kantuz eta Doinuzale musika eskolekin, Hernani Musika Eskola Publikoak izan duelarik antolakuntzaren pisurik handiena.

Preludioez gainera, sanjuanak hasi aurreko egun horietan herrian izaten diren beste hainbat ospakizunetan ere izan dira gure ikasleak, hala nola **Azeri-bila** izeneko herri lasterketaren hasierako ekitaldian, edo Xalaparta elkarteak bi urtetik behin ospatzen duen "**Hernaniar Bikaina**" saria emateko ekitaldian, txistua nahiz txalaparta joaz.

124

125

126

127

Baina sanjuanak, bete-betean, ekainaren 23an hasten dira, San Juan egunaren bezperan alegia. Eta festen hasierako etxafuegoa botatzen denetik, eskolako ikasleak herriko kaleetan ibiltzen dira, egitarauko hainbat eta hainbat ekitalditan. Eskolako txistulari, dultzainero, trikitilari, albokari eta akordeoi joleak (eta berrikiago, ikasleen banda ere bai) izan dira, urte luzetan, ekitaldi hauetan:

- San Juan bezperan: txupinazoaren ondorengo festen hasierako kalejirak albokari, dultzainero, trikitilari eta txistulariek; dultzaineroak akelarrean; trikitilariak San Juan Errondan.
- San Juan egunean: dianan, txistulariak, Musika Banda eta herriko beste txistulariekin; txistulariak eguerdiko kontzertuan; dultzaineroen topaketa eta larrain dantza.
- San Juan bigarrenean: diana, dultzainero edo txistulariek.
- San Juan hirugarrenean: diana, dultzainero edo txistulariek; eguerdiko buruhandi eta erraldoiak dultzaineroek; Ttarla dantza taldearen dantza saioa txistulariek.
- San Juan laugarrenean: diana txistulariek; axeri dantza azken hauek; San Juan Konpartsaren itzulia ostera ere txistulariek.

Horiez gain, noiz edo noiz azaldu dira beste ekitaldi hauetan ere:

- Perkusionistek antolatutako batukadak.
- Buruhandiak, San Juan egunean eta San Juan bigarrenez.
- Kuadrilen eguneko gazteen bazkaria.
- Azkeneko egunean, Txistulari Topaketa antolatu zen 1989an, egun osoko egitarauaz.
- Azkeneko egun horretan bertan, baserritarren egunean, Elur Txori elkarteak antolatutako egitarauan urte askotan parte hartu dute albokariek, aurreneko Albokari Topaketak ere egun horrekin egin zirelarik.
- Banderaren jaitsieran, txalaparta eta adarrak udaletxetik jotzen.

Baina Hernaniko festen egutegia ez da sanjuanetan bukatzen, eta auzoz auzo izan diren feste guzti edo gehientsuenetan izan dira eskolako ikasleak ere, batzuetan, Portu edo Ereñotzukoetan adibidez, urte luzetan; beste batzutan, Latxunbe-Marielutsekoetan adibidez, berriagoak direlako, gutxiagotan; eta beste batzutan, Lizeagakotan edo Orkolagakoetan esaterako, gutxitan ospatu direlako edo. Hona hemen horien zerrenda bat:

Portuko San Juan Txikiak
Ereñotzuko San Antonioak
Etxeberriko Pentekostes festak
Andrekaleko Karmenak
Lizeagako Madalenak
Zikuñagako festak
Orkolagako festak
Latxunbe-Marielutseko festak

Hernaniko kultur egutegiko beste bi une garrantzitsu eguberriak eta inauteriak dira. **Eguberritan**, eskolak antolatzen dituen saio eta ekitaldiez gainera, herrian izaten diren beste hainbat ospakizunetan ere jotzen edo abesten dute ikasleek. Erregeen **kabalgata**n txistulariak eta trikitilariak izan dira 1988tik. Gabonetan ateratzen diren hainbat **olentzero**rekin ere bai, batez ere Doberak eta San Juan konpartsak antolatutakoekin (1997tik), Ttarla dantza taldekoekin batera edo besterik gabe olentzerorekin kalejiran. Urte zaharreko errondan ere trikitilariak izan dira, eta Haur Eskolan edo adinduei Sandiusterrin bisita egiten ere bai. Garai honetan, zita berezia izaten da 1995eko abendutik herriko abesbatzek, Kantuz abesbatza buru dutela, eliz parrokian antolatzen duten **Gabon Kantuen Jaialdia**, eskolako abesbatzak ere beti hartu duelarik parte bertan, baita aurreneko urtean jaialdia txapelketa gisa aurkeztu zenean ere.

Inauteriak laurogeiko hamarkadan berreskuratu ziren Hernanin, eta apurka itxura berria hartzen joan ziren festa hauetan musika eskolako ikasleek paper garrantzitsua jokatu dute, batez ere inauteritako astelehen eta asteartean (astelenita eta asteartita). Inauteriak amaitzeko asteartitan egiten den **sardinaren ehorzketa**n dultzaina taldea lehen aldiz 1988an atera zen, eta geroztik ez du huts egin. Berrikiago eratu zen astelenitako egitaraua, baina 1996tik, eskolako txistulariek egin dute egun horretako **diana** eta ondorengo **axeri-dantza** ere; Langile ikastolako gaztetxoek eramaten dute axeri-dantzako soka egun horretan. Arratsaldean, **buruhandiak** dultzaineroen esku izaten dira, bereziki egun horretan dultzaina eta xirolarruz egiten direnak. Aurretik ere ateratzen dira gure ikasleak inauteritan, bai **zaldunita** edo inauteri igandean, arratsaldean kalebuelta egitera trikitilari eta dultzaineroak, baita **ostiral iharreko buruhandiak** jotzera ere azkeneko hauek, 2004kotik behintzat. Gainera, musika eskolak berak zuzenean antolatu izan ditu inauteriak ospatzeko ekintzak ere, eta hala sortu dira ostegun gizenez edo bezperaz **ikasleen banda**k emandako kalebueltak edo perkusionistek egindako **batukadak**. Eta han-hemenka sortu direnetan ere parte hartu izan da, Gazte Asanbladak antolatutako inauteritako bazkaritan dultzaineroek adibidez.

Hernaniko festen egutegi "tradizionaleko" data seinalagarrienak osatzeko, beste bi santu ere falta zaizkigu ordea. **Santa Ageda bezpera**n, trikitilariak atera ohi dira errondan, eta **San Inazio** egunez Santa Barbara mendian ospatzen den erromerian, 1988tik 1995era behintzat, txistulari, trikitilari, txalapartari eta dultzaineroak joan izan ziren.

Ez dira horiek, ordea, Hernaniko festa bakarrak. 80ko hamarkada hartatik, egutegi horretan 'santu' berriak joan dira sortzen, Euskal Herriko mila txokotan bezalaxe, baita Hernanin ere. 'Santu' laiko samarrak dira hauek, eta jana eta edanarekin oso lotuak egoten direnak maiz. Horietan handiena, gure herrian, Txotx garaia da. Sagardotegiak irekitzen dituzten urte garaia dela eta, festa eta ospakizunak asko ugaritu dira joan den hogeitabost urtean, eta nola ez, horietan ere parte hartu behar musika eskolak. 1999ko apirilean, txotx denboraldia amaitzeko festa antolatu zuen Udalak Zelaia sagardotegian: han izan ziren eskolako dultzaineroak. Hurrengo urtean hasi ziren **Txotx denboraldiaren hasierako ekitaldia** antolatzen, trikitilari edo txistulari edo txalapartariek han urtero izan dutelarik lana. Hernaniko **Sagardoaren Kofradia**, berriz, 1996an sortu zen, eta geroztik ospatu dituen "kapitulu" gehientsuenetan izan dira eskolako txistulariak. Berrixeagoa da, 2006koa edo, **Chillida-Leku**n ospatzen den sagardo eguna. Bertan izan dira eskolako akordeoi, txistulari, txalapartari eta trikitilariak. Eta horietaz ari garela, **trikitilariek sagardotegietan** egindako saioak dira, kopuruz, kontatzen zailenetakoak.

Txotx garaiko egutegian hainbeste sustraitu ez badira ere, beste ospakizun asko ere izan dira azken hamar urteotan. Esaterako, **"Sagarrondotik"** izeneko jaialdiak antolatu zituzten 2003tik 2007ra Hernani, Urnieta eta Usurbilgo sagardozaleek. Horietan ere izan zuten lana eskolako txistulari, dultzainero eta trikitilariek. Eta, gisa bera, 2003an Hernanin egindako erraldoi eta buruhandien kontzentrazioan, edo 2008an ospatutako herri arteko kirol proban ere, han behar bada.

Txotx denboraldiaz gainera, beste festa berezi asko ere izaten dira gurean. **Ereñotzuko aste kulturala** izan da horietako bat, urte askotan ospatutakoa, eta trikitilari, txistulari eta txalapartariak erakarri dituena eskolatik. **Dantzari Festa** berriz, San Juan Konpartsaren ekimenez, 1996an sortu zen, eta urtero-urtero, bertan parte hartu dute eskolako txistulariek batez ere, baina baita trikitilari, txalapartari eta dultzaineroek ere, bedi Dantzari Festako egun nagusiko kalebuelta eta dantza saio ezberdinetan, bedi dantzari txikien egunean, edo bedi Ttarla dantza taldeak edo Elizatxo ikastolako haur dantzariek beste egun batzuetan egindako saioetan. **"Pablo Lasa" Artisau Azoka** aspaldiko zita da Hernaniko azaroan, eta 1999tik eskolako trikitilariek alaitu dute, herriko beste hainbat azoka bezalaxe (Behemendiko larunbatetako hainbat azoka, edo Bidezko Merkataritza azokak Atsegindegin, adibidez).

Eta egutegi berezi horretan, beste data suelto ugari izan dira eskolako ikasleen doinuak eskatu izan dituztenak. Hona adibide batzuk:

- Euskal Jaiak 2009ko irailean.
- XXII. Euskal Herriko marmitako txapelketa, 1999an.
- Herri krosa Karabel auzoan, 2004ko eguberritan.
- Santo Tomasetako txistorradak Portu auzoan.
- Tranbiaren omenaldia 2008an.
- San Juan sua Santa Barbara auzoan.

...eta Hernanin, hernaniarrekin.

Hernani kultur bizitza izugarriko herria izan da 25 urte hauetan, esana dugu. Bizitza horren ezaugarri nagusia ez da izan, ordea, jaialdi eta erakustaldi handiak antolatzearena, herriko talde eta pertsona anitzen ekimenen ugaria baizik. Honek josi ditu herriko ia urteko asteburu guztiak (irailetik ekainera behintzat) kultur jarduerez. Eta, bistan da, ekimen txikiak izanik, musika eskolari tokatu zaio horietako askotan musika jartzea.

128

Herriko beste musikaren inguruko erakundeekin eskolak dituen lankidetzez hitz egin dugu lehenago ere: Preludioak, Preludio Txikiak, Gabon Kantuen Jaialdiak, Santa Zeziliatako kontzertuak, Txistulari Jaialdia,... Baina egutegian txertatu diren horiez gainera, beste aukera asko izan dira elkarrekin jarduteko. **Kantuz abesbatzarekin**, adibidez, pianistak eta abesbatza jardun izan dira 2004ko Kantuz Eguna bezalakoetan, edo txistulariak, Buruntzaldeko Musika Topaketak Hernanin ospatu izan direnetan. **Musika Bandarekin** saxofonistek eta dultzaineroek kontzertu bat baino gehiago eman dituzte.

129

Udalak berak, musika eskola bertako parte izaki, azken honen ekintza gehienak sustatu ditu (denak ez esateagatik), baina **Udalaren beraren ordezkari** edo errepresentazio gisa ere, maiz behar izan du musika: dela bilkura bereziren bat delako, dela herri aurrean azaldu behar duelako, dela halako lanen emaitza inauguratu nahi duelako. Bete behar hori, agian, Udal Musika Bandari eta txistulari taldeari dagokio, baina sarri askotan musika eskolako ikasleek bete behar izan dute: txistulariek maiz, baina baita ikasleen bandak, akordeoi taldeak, abesbatzak, dultzaineroek edo txalapartariek ere. Hemen horietako batzuk:

- Sorgintxulo auzoko urbanizazioaren inauguratze ekitaldia (2001).
- Kaskoa berritzeko lanen 1. fasearen inaugurazioa: Kale Nagusia (2001).
- Manuel Yabeni udal harrera eta omenaldia (2002).
- Kaskoa berritzeko lanen 2. fasearen inaugurazioa: Kardaberaz (2002).
- Aita Kardaberazi omenaldia, Udalak eta Euskaltzaindiak (2003).
- Kaskoa berritzeko lanen 3. fasearen inaugurazioa: Zinko Enea (2003).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Batzar Ibiltariari harrera (2003).
- Comète sareko mugalariei udal harrera eta omenaldia (2005).
- Bertso Eskola eta Maialen Lujanbiori udal harrera eta omenaldia (2009).

Jubilatuen etxeko **Goiz-Eguzki abesbatza**, jubilatuena izanagatik, ez da zaharra, eta dituen urte gutxitan jada elkarlanean ari da, bai eskolako abesbatzarekin, bai txistulariekin emandako kontzertuetan. Eta txistulariak gure eskolakoak ez direnez bakarrak, **udal txistulari taldearekin** pianistak ere jardun dira behin baino gehiagotan, batez ere hauek eguberritan ematen dituzten kontzertuetan.

Dantzaren inguruan berriz, **Ttarla dantza taldea** izan da seguru asko urteotan Hernaniko erreferente nagusia. Bada, zaila izango da dantza talde honen saiorik bilatzen eskolako txistulariek parte hartu ez dutenik, bitez orain artean aipatutakoak (San Juanetan, Ereñotzun, Portun,...), bitez Martuteneko espetxean 2008an, Errenteriako dantzari txiki egunean, edo beste hainbatetan izandakoetan. **San Juan Konpartsa**rekin ere jardun dira, San Juanetatik kanpo, dela kantu jiran egindako dantza saioren batean, dela Santo Tomasak direla eta Plaza Berrin azken urteotan antolatu izan duten "ferian". **Akelarrea** bera ez da dantza hutsa, antzerkitik gehiago du noski, baina dultzaineroak izan ditu berarekin, ez San Juanetan bakarrik, baita herritik kanpora joan izan denean ere: Irurtzunen (2000), Iruñako Arrosadian (2001), Zaraitzuko Espartzan (2004), edo Igeldon (2009).

Bestelako kultur taldea da **Errapia**, herriko artistak biltzen dituena (eskultoreak, marrazkilariak, eta abar). Elkarte honek Zikuñagan duen lokala inauguratzeko jaialdian ere izan ziren bada, gure eskolako txistulari eta trikitilariak. **Chillida-Leku** museoa oso bestelako kultur erakundea da noski, baina harekin ere eskolak elkarlan estua izan du herrian kokatu

zenetik. Bertan ospatzen den sagardo egunaz gainera, azaroan eta uztailaren hasieran saio bana ia hutsik egin gabe eskaini dira bertan 2004tik, saxofoi taldeak, ikasleen banda, soka taldea, akordeoi taldea, pianistak, trikitilariak,... izan dira bertan. Hernaniko **AEK**rekin ere lankidetza ugari izan dira, batez ere **Korrika** herritik pasa den aldi bakoitzean, baina baita AEKtxotx gisako festetan ere.

Eta hernaniarrak adin taldeka hartuko bagenitu, hasi txikienekin eta, **herriko ikastolekin** ere elkarlan ugari izan direla ikusiko genuke: Elizatxo ikastolako ikasturte amaierako festan txistulariak; Langile ikastolakoan joera ezberdinetako Ekhin taldea edo akordeoi taldea, nahiz txistulariak axeri dantzaren batean; Urumea ikastolarekin trikitilariak Santa Ageda bezperako errondan;... **Udaleku irekietan** haurrentzat antolatutako San Ferminetako txupinazoan ere izan dute eskolako dultzaineroen premiarik urteren batean. **Gazte asanbladarekin** ere jardunak dira behin baino gehiagotan trikitilari eta dultzaineroak, Garin tabernan 1999an antolatutako barrikotean esaterako. Eta zer esanik ez, **Zaharren Egoitza**z hasten bagara hizketan: 1996tik 2001era azaroan Udaleko Ongintza sailetik bertan antolatutako Hirugarren Adinekoen Astean, han izan ziren akordeoi taldea, trikitilariak, txistulariak eta dultzaineroak, entzunaldiak, goiz eresiak eta dantza saioak eskaintzen. 2000.eko abendutik gutxienez, baina lehenagotik ere bai seguru asko, trikitilariek lagundu izan dute santotomasetan, gabon egunean edo errege bezperan, adinduei opariekin egindako bixita. Eta Sandiusterriko patroia izaki, madalena egunean ere txistulariak eta trikitilariak joan izan dira jotzera 1998 eta 2002 bitartean.

Eta beste saio eta omenaldi asko eta asko izan dira, hernaniarrekin lankidetzan, hemen aipatzerik ez dauzkadanak.

Herritik kanpora... eta beste mordoska

Hernaniko musika eskolako ikasleak herritik kanpora ere asko ibiliak dira, Euskal Herrian barrena batez ere, eta noski, inguruko herrietan gehienbat. Donostiako festa eta ospakizun ugariak horren erakusle nabarmenena, baina baita Urnieta, Astigarraga, Aduna, Goizueta, eta beste askotakoak ere. Ikaragarri luzatuko ginateke ordea banan-banan denak aipatzen, eta laburtzearren, zerrendan jartzea otu zaigu txukunena. Zerrenda honetan sartu ditugu "floreroa" deitzen diogun beste sail bat ere, horietako asko Hernanin bertan egindakoak izanda ere. Izan ere, musikoen beste gizarte funtziotako bat dekorazioarena izaten da, nahiz eta atseginena izan ez, askotan "itxura" egite hutsa gertatzen baita, lorontzi baten gisara: ezkontzak, omenaldiak, kongresu eta bestelakoetako inauguratzeak,... txistulariei tokatzen zaie gehienean, beti eta aspertu arte, pieza bera jotzea: agurra. Baina beste musikariek ere, trikitilariak, abesbatzak, akordeoi joleak, banda,... izaten dira tarteka horrelakoetan. Bihoa, bada, zerrenda hori:

130

131

132

Donostiako festa nagusietan:

- Euskal Jaietan, trikitilarien alardean 8 urte baino gehiagoz.
- Donostiako Txistulariekin erromerian, Euskal Jaietan nahiz Santo Tomas bezperan dultzaineroak.
- San Sebastian egunez Urkiko danborradan txistulariak, hamar urte baino gehiagoz.
- Aste Nagusiko erraldoi eta buruhandien kontzentrazioan lauzpabost urtetan.
- Estropadatako bigarren igandean kalebueltan txistulariak beste hainbestetan.
- Inauterietan ostegun gizenez ospatutako Euskal Inauterian, dultzaineroak.

Donostiako auzo ezberdinetako festetan:

- Antiguoko sansebastianetan dianak eta buruhandiak jotzen, txistulari eta dultzaineroak.
- Antiguoko sanjuanetako buruhanditan, dultzaineroak.
- Bidebietako Txanpontxo festetan, ikasleen banda eta dultzaineroak.
- Aieteko santakutzetan, txistulariak hamabost urte baino gehiagoan.
- Loiolako saninaziotan dianak jotzen, txistulariak azkeneko hamabi urtetan.
- Martuteneko pilarretan, trikitilariak.
- Kaiko karmenetan buruhandietan dultzaineroak, eta Gipuzkoako arrantzale erretiratuei urtero egiten zaien omenaldian txistulariak.
- Egiako Porrontxotan, jeitsieran nahiz dianak edo larrain dantza jotzen, dultzaineroak.

Donostiako beste hainbat ospakizunetan:

- Bagera eta Antiguotarrak elkarteek Antiguon antolatzen duten olentzeroan, dultzaineroak hamabi urtez.
- Santa Ageda bezperan Aieten, txistulariak.
- Santa Ageda bezperan Parte Zaharrean, dultzaineroak.
- Antiguoko inauteritan, dultzaineroak.
- Kantu Jiratan Parte Zaharrean, dultzaineroak.

Beste herrietako festa eta ospakizunetan:

- Zaldibia: Ardiki Egunean, txistulari, albokari, dultzainero eta txalapartariak, joan den hamabi urtean edo.
- Goizueta: inauteritako mozorroen etorreran, dultzaineroak hamabost bat urtez.
- Arano: Santiotako festetan, dultzainero eta trikitilariak.
- Igeldo: San Isidro eta musika egunean dultzaineroak, txistulariak, Trikittakun taldea nahiz dultzaineroak, eta azaroko "Igeldo Herria" festa-erromerian dultzaineroak.
- Urnieta: Samieletan txistulariak, Xoxokako festetan Ekhin taldea, Azkorteko santakutzetan eta gazte festetan trikitilariak,...
- Andoain: sanjuanetan txistulariak.
- Aduna: Abuztuko amabirjinetan, dultzaineroak.
- Oiartzun: Xanistebanetako gazteen egunean eta Iturriotzeko santiotan, dultzaineroak, eta inauteritan Gurutzeko puska biltzean, txistulariak.
- Astigarraga: Santiotan eta inauteritako inude eta artzaien irteeran, dultzaineroak.
- Lasarte: Zabaleta-Buenos Aireseko festetan, dultzaineroak 2010ean.
- Lezo: 2006ko santakruzetan, dultzaineroak.
- Hendaia: 2008ko Euskal Bestetan, dultzaineroak.
- Ibañarrieta: Santakruzetan, dultzaineroak.
- Bedaio: 2007ko iraileko Amabirjinetan, dultzaineroak.
- Tolosa: inauteritako dianan, akordeoi taldea.
- Zarautz: Kantu Jiran eta euskal jai bezperako aurresku eta larrain dantzan, dultzainero eta txistulariak 2009 eta 2010ean.

Ikastolen aldeko jaiak:

- Kilometroak: Oiartzun 2006 eta Donostia 2009.
- Nafarroa Oinez: Lizarra 1990, Etxarri-Aranatz 1991, Lodosa-Sartaguda 2001, Bera 2006 eta Arbizu 2009.

Azokak:

- Behemendi elkartearen azokak Donostiako Loiola kalean (20 azokatik gora), trikitilariek.
- Behemendi elkartearen azokak Gros eta Antiguo auzotan, trikitilariek.
- Donostiako Artisau Azoka 1988an, txalapartariek.
- Errenteriako Artisau Azoka 1988an, txalapartariek.

Ikastolekin:

- Amara Berri ikastola: trikitilariak santotomasetan 8-10 urtez.
- Urnietako Egape ikastola: trikitilariak olentzerotan eta Santa Ageda bezperako errondan.
- Pasaia-Lezo lizeoa: txistulariak 25. urteurreneko festan.
- Intxaurrondo ikastola: trikitilariak 2009ko eguberritan.

Dantza taldeekin:

- Euskal Dantzarien Biltzarrarekin, Dantzari Egunean, txistulariak Donostian (2000), Iruñan (2003) eta Hazparnen (2005), eta dultzaineroak Irunen (2008).
- Beasaingo Haurtzaka dantza taldearekin, txistulari eta dultzaineroak eguberritako dantza saioan, zortzi bat urtez.
- Tolosako Udaberrirekin, dultzaineroak hainbat aldiz.
- Amezketako Arkupe dantza taldearekin San Bartolometako dantza sokan, txistulariak 2005ean.
- Usurbilgo dantzariekin Kalexar, San Esteban eta Santueneko festetan, txistulariak hainbat aldiz.

Hainbat erakunderekin:

- Aquarium: trikitilariak, 6-8 bider.
- Erreala: ikasleen banda eta dultzaineroak 4 partidu animatzen.
- Gipuzkoa Hospitala: Hospitaleko langile jubilatuen omenaldian txistulari eta trikitilariak 8-10 urtez, eta eguberritako opariak banatzen trikitilariak dozena erdi batean.
- EHGAM elkartea: trikitilariak hauek antolatutako festa eta bilkuretan.
- AEK: AEK egunean Legution (1998) eta Lizarran (2000) albokari eta dultzaineroak.
- "Xiba" euskal herri jokoen elkartea: txistulariak Oiartzunen (2006) eta Bergaran (2007).

'Floreroa' eta ekitaldi sozialak:

- "Bizirik bizi" kanpainaren amaieran, 1988an, ikasle kontzertua eskaini zen Hernanin.
- "Bai Euskarari" kanpainaren amaiera, Anoeta futbol zelaian (1998), dultzaineroak.
- Meabeko Haur Eskolaren inaugurazioa, Hernanin (2001) trikitilariek.

- "Uztartza" aterpetxearen inaugurazioa, Adunan (2001) albokari eta txalapartariek.
- Herri Musikaren Txokoaren inaugurazio ekitaldia eta "Ateak zabalik" eguna, Oiartzunen (2002) txistulariek, dultzaineroek, albokariek eta txalapartariek.
- Egunkaria kasuan auzipetutakoen elkartasunezko emanaldiak 2003-2010 bitartean, Hernani, Donostia eta Bilbon.
- Gimnasia erritmikoko Europako txapelketaren inaugurazioa, Donostian (2006) txistulariek.
- "Arkeolan" kongresua, Hondarribian (2006) albokariek.
- Garraiorako txartel bakarraren aurkezpena, Hernanin (2006) akordeoi taldeak.
- Wukro-ko haurren alde dirua biltzeko kanpaina, Hernanin (2006) txistulariek.
- "Arditurri" mehatz erakustokiaren inaugurazioa, Oiartzunen (2008) txalapartari eta txistulariek.
- Txistulariak ezkontzetan eta zilar edo urrezko ezteietan: 20tik gora kontatu ditugu, auskalo zenbat diren.
- Trikitilariak ezkontzetan eta despedidetan: dozena erdi batean.
- Txistulariak azken agurretan: beste hainbeste.
- Akordeoi taldea, abesbatza edo dultzaineroak ezkontza eta tankerakoetan: beste hainbeste.
- EHNA sustatzeko jaialdia, Milaka-bilaka kanpainaren hasiera, 18/98 sumarioaren aurkako "Kaiera" ekimena, Bai Euskarari akordioaren sinadura ekitaldiak, ... eta beste hainbestetan, trikitilariak, txistulariak, dultzaineroak, txalapartariak,...

...eta beste asko:

- Danborrada "Aurrera" taldearekin, Donostian (2000) akordeoi taldeak.
- Kirol Eguna Hernaniko kiroldegian (2000), trikitilari, dultzainero eta txistulariak.
- Trikitilariak Lasarteko "Jalgi" tabernan (2000).
- Ekhin taldea Oialumen (1999), Villabonako "Aurrera" tabernan (2000) eta Hernaniko "Atxur"-en (2001).
- Herri Musikaren I. eta III. Jardunaldietan erromeria, Oiartzunen (2002 eta 2004) txistulari eta dultzaineroek.
- Donostiako "Bagera" euskalzale elkartearen 10. urteurreneko festa (2002), dultzaineroek.
- Sanferminetako kalejira Ortzadar taldeko txistulariekin Iruñan (2002), albokari eta txistulariek.
- Biarritz Olimpique-Munster errugbi partiduaren inguruko festa, Donostian (2005) dultzaineroek.
- Oiartzungo Garagardo Festa (2005), dultzaineroek.
- Adunako "Upelera" festa (2005), albokariek.
- "Dantz'hadi" jaialdia, Basusarrin (2005 eta 2006) dultzainero, txistulari eta albokariek.
- Musikeneko azterketetarako ikasle-ordetan (2008), akordeoi ikasleak.
- Santa Barbara elkarteko urteko afaria, Hernanin (2006) txistulariek.
- Idiazabalgo herri kirol taldearen erakustaldia, Beasainen (2008) dultzaineroek.
- "Pirritx, Porrotx eta Marimotots" Hernaniko kiroldegian (2009), akordeoi taldeak.
- Baso-Etxea elkartearen 25. urteurreneko festa, Antiguon (2010) txistulariek.

Eta batek daki zenbat gehiago...

Musika, entzuteko. Hileroko kontzertu zikloa

Ez dira, ordea, ikasleen kontzertu eta bestelako saioak musika eskolatik antolatu edo bideratu izan diren musika jarduera bakarrak. Eskola abiatu zenetik, irakasleen klaustroak garbi eduki du musikari gaien formazioaren zutabeetako bat dela zuzeneko musika entzutea. Hori horrela, oso goizetik hasi zen eskola era ezberdinetako kontzertu eta musika emanaldiak txertatzen eskolaren plangintzan. Bigarren ikasturtean I. Txalaparta Festa izan zen bidea urratu zuena, eta geroztik urtero antolatu den jaialdi honek, nola atzetik etorri diren beste jaialdiek (albokarien topaketa nahiz txistularien jaialdia) bildu izan dituzte beraien egitarauetan, ikasleei jotzeko aukera emateaz gain, musikari profesionalen kontzertuak. Nolanahi ere, kontzertu horiek ikaslegoarentzako jarduera pedagogiko hutsa baino gehiago izan dira, herri osoari ireki eta zuzendu izan baitzaizkie ekitaldi hauek.

Elkartruke ezberdinetatik sortu izan diren hainbat eta hainbat kontzertu, agian, zehatzago bideratu zaizkio ikaslegoari, bitez 1996tik Euskal Herriko beste musika eskola askorekin oro har egin izan diren elkartruke ugariak, edota abesbatzen artean maiz egindakoak, eta beste hainbat. Hauen helburua gehienetan bikoitza izan da: Hernaniko eskolako ikasleei kontzertuak egiteko plaza berriak bilatzea batetik, eta bestetik herrira beste talde batzuenak ekartzea, ikasleek bestetan zer egiten den ezagutu dezaten. Baina hauek ere, gisa bera, herri osoarentzako ireki izan diren ekitaldiak izaki, maiz hartu dute izaera zabalagoa.

Baina, beharbada, gertaera horren adierazle nagusia "hileroko musika emanaldi" zikloa edo "**Hileroko Kontzertu Zikloa**" deitu izan duguna da. Hirugarren ikasturtearen amaieran, 1987ko maiatzaren 9tik 14ra, eskolak "I. Aste Musikala" deitu zuena antolatu zuen: ikasleen kontzertuak eta II. Txalaparta Festa biltzen zituen batetik, eta bestetik hiru kontzertu berezik osatzen zuten. Kontzertu horietako bat, eskolako bertako piano, saxofoi eta akordeoi irakasleek beraiek eman zuten, bigarrena, Donostiako Kontserbatorioko perkusio taldeak, eta hirugarrena Hernaniko Musika Bandak. Hirurak ikasleei zuzendutako entzunaldi gisa planteatu ziren, eta horietatik sortu zen hurrengo ikasturtetik martxan jarriko zen egitasmoa.

Hileroko Kontzertu Zikloa 1988ko azaroaren 19an hasi zen, Santa Zezilia egunaren jiran, Donostiako Kontserbatorioko "Eragintza Taldea" Metal Boskoteak udaletxeko areto nagusian eskaini zuen kontzertuarekin. Ordutik, ikasturtean barrena hilean behin musika kontzertu bat antolatzeko aukera gauzatu zen, batetik Udalak eskolaren aurrekontuetan prezeski xede hori zuen diru kopuru bat ezarriko zuelako, urtez urte, eta bestetik irakasleen klaustroak berauek antolatzeko konpromezua eta lana bere gain hartu zuelako.

Kontzertuon lehen helburua, ikasleei zuzeneko musika entzuteko aukera erraztea zen, eta kontzertu pedagogiko gisa pentsatu izan dira askotan kontzertuok, baina hasierahasieratik ikusi zen ikaslegoaz gainera herritar asko inguratzen zela kontzertu hauetara, eta askotan alderantziz gertatu izan da gainera, orokorrean herritarren artean ikasleen artean baino harrera hobea izan dutela. Beraz, berehalako asmoa hori ez izan arren, laster bilakatuko zen kontzertu ziklo hau Hernaniko urteko musika programazioaren oinarri eta erreferentzia nagusia. Datuek erakusten dute hori:

1988ko azarotik 2009ko abendura 183 kontzertu antolatu ditu musika eskolak, 2010ean, 25. urteurrena dela eta, ziklo berezia antolatu delarik hilerokoaren ordez: martxoan eta apirilean egin ziren "Ikasle Ohien Kontzertu Bereziak", 25 urteko lanaren fruituaren erakusle txiki bat izan nahi zutenak. Horiek, eta azken ikasturte horretako elkartrukekoa kontuan hartuta[12], 187 dira antolatutako kontzertuak, beti ere ziklo honen baitan. Ez ditugu hemen denak zerrendatuko, gehiegi ez luzatzeko idazlanaren amaieran txertatzea hobe izango delakoan. Baina esan genezake, kopuru ikaragarri horrek aukera eman duela era askotako musika eta musikariak Hernanira ekartzeko, zein eta, esan beharra dago, oso baliabide eskasekin antolatu behar izan diren behin baino gehiagotan.

Erdi Aroko edo Berpizkundeko musikatik hasi eta abangoardiako musika garaikideetaraino, historiaren aldi guztietako musikak izan dira entzungai gurean. Nagusiki formatu txikiko taldeak izan baditugu ere, bakarlarietatik hasi eta ganbarako musika formazio ezberdinetatik pasaz (bikoteak, hirukoteak, laukoteak,...) orkestra osoetaraino, era guztietako musika taldeak izan ditugu. Estiloetan ere, zer esan: musika "klasiko" edo akademikoagoak presentzia handia izan du, jakina; baita jazz tankera ezberdinetako musikek ere; eta herri musika nahiz folk musikak ere bai, ez Euskal Herrikoak bakarrik, baita inguruko herri askotakoak ere, Galiza, Extremadura edo Okzitaniakoak adibidez; eta beste era askotakoak noski: musika poperoagoak, esperimentalak, antzerkia edo dantzarekin bat egindako musika narratiboak, latinoak,... Aurren-aurrena ikasleentzako pentsatuak izaki, eskolan ikasi izan diren soinu tresna eta irakasgaien inguruko kontzertuek pisu handia izan dute: piano kontzertuak, gitarristenak, txistulari nahiz dultzaineroenak, akordeoi joleenak edo trikitilarienak, perkusio taldeak, saxofoiak eta metalak, abesbatzak,... baina bestelakoei ere egin zaie tartea: kantariak, orkestrak, bandak, gaitak, flautak, arpak, zanfonak, big bandak,... Izen handiko musikariak izan dira 187 kontzertu horietako askotan, baina ez goaz hemen aipatzera, izan ere ohartzen baikara irrati-telebistetan sona handia hartu duen halako musikari baten pare, edo gorago, egon litekeela mundu edo inguru "txikiagoetan" dabilen profesional on batek, eta gurean antolatutako kontzertuak askotan horietakoak izan dira. Gainera, mailakatze horiek ez dagozkigu guri. Gu, denek lagundu gaituzte asko, eta guztiei eskerrak eman beharrean gaude, beti eskuzabaltasun handiz eskaini izan diguten jakitea eta lanagatik; eta, batez ere, hernaniarron belarribihotzak neurrigabe aberasteagatik.

AZKENA

Musika gertaera efimeroa dela esanaz abiatu naiz orain dela puska bat. Eta Hernaniko musika eskolaren mende laurdeneko historia xume honen bidez, adierazi nahi izan dut gertaera hori agian efimeroa izan daitekeela, baina inola ere ez hutsala. Artea inork aurkeztu izan du esanahi eta sentipen goitiarrez osatutako gertaeraz, jenialitate eta inspirazio pribilejiatuek eragin eta taxututako obra bakar eta paregabeez, eta musikak, artea denez, izan dezake horretatik zerbait. Baina musikaren oinarrian (eta hargatik pentsatzen dut, arte ororen oinarrian ere bai) horiek baino funts sendoagoa dago: lana. Jende askoren eguneroko lana.

Irakurgai hau jarraitu baduzu, ohartuko zinen honez gero apenas hitz egin dudala Hernaniko musika eskolako ikasleek, eskolatik irten ondoren, egin duten bideaz. Bide hori ikasle ohiek egindakoa bada ere, musika eskolak lan egin izan du horretan ere, oinarrizko musika ikasketak amaitu izan dituzten horiei bidea zabaltzen. Nahiz eta askotan asmatu ez, zenbat azterketa prestatu ote dira, zenbat entzunaldi eta lehiaketa, zenbat orduz kanpoko eskola,... eta, batez ere, zenbat ordu eta ordu eman ote dituzte, lanean, ikasleek eta irakasleek. Eta ez dut erarik ikusten hori guztia nahi bezala neurtzeko. Eskolako komunitatea osatzen dugun guztiontzat izan da pozgarri, noski, hainbat eta hainbat ikasleri erdi maila eta goi mailako ikasketekin jarraitzeko aukera eman izana, eta zer esanik ez goi maila horietaraino iritsi eta, bat edo beste, profesional handi izatera iritsi direla jakitea. Baina ez gaitu gutxiago pozten beste askori herrian, etxean, kalean edo lagunartean, afizioz edo ofizioz, noizik eta behin musika eginaz gozatzeko aukera eman izanak. Nola neurtu hori ere.

Hogeitabost urte hauetako lana ez zait, hortaz, efimeroa iruditzen. Eta zalantzarik ez, datozen hogeita bost urteetan egingo dena ere ez da hutsala izango, ezta alferrikakoa ere. Eta lan egin beharko da, asko dago oraindik egiteko eta: asko ikasteko eta asko erakusteko; asko jotzeko, eta asko entzuteko; asko hobetzeko edo aldatzeko, eta beste asko bere horretan eusteko. Ekin, bada.

OHARRAK

1. Ikaslego "librea" esaten zaio ikasketak kontserbatorioan egin gabe maila jakin bat gainditzeko azterketarako zuzenean matrikulatzen den ikaslegoari.

2. Hernaniko Udal Artxiboa. B atala, 2. negoziatua, 1. liburua, 2. espedientea. Azpimarratua gurea da

3. Hernaniko Udal Artxiboa. B atala, 2. negoziatua, 1. liburua, 2. espedientea. Azpimarratua gurea da

4. "Proyecto" dio izenburuak, baina dokumentuaren amaieran agertzen da 1891ko ekainaren 11ko dataz udalbatzak aho batez onartu izana, eta uztailaren 2ko udalbatzan Manuel Zendoia zuzendari izendatu zuela.

5. Hernaniko Udal Artxiboa. B atala, 2. negoziatua, 1. liburua, 2. espedientea. Azpimarratuak gureak dira

6. Praktikan, 1966ko legeak oinarrizko gradurako 4. maila ezartzen bazuen ere, 5. maila ere gradu horretan egin ohi zen Donostiakoan behintzat, eta hortaz, gradua igarotzeko azterketa zuzenean 5. mailakoa izan ohi zen.

7. Datuok Eusko Jaurlaritzaren (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) eta Nafarroako Gobernuaren (www.educacion.navarra.es) web orrietatik jaso dira.

8. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko 289/1992 dekretuko 2. artikulua.

9. 1992ko planak, funtsezko irakasgaietan (soinu tresnak batik bat) ikasle bakoitzari zegokion asteko irakas denbora 30 minutura murriztu zuen, aurreko planean 40-60 minutu bitartean ibili ohi zena. Murrizketa horren ordainetan "indarketak" edo "gotortzeak" planteatu zituen: zilegi egiten zuen musika eskola bakoitzeko ikasle kopuru txiki bati zegokion denbora lektiboa luzatzea, ikasle horiek gaitasun edo behar bereziak erakusten bazituzten eta programazio zehatz bat jarraitzen bazuten. "Indarketa eskola" hauek bereziki erdi mailako ikasketa arautuetara joko duten ikasleentzako daude pentsatuta.

10. Grafikoan ikus daiteke ikasle eta matrikula kopuruen arteko aldea nola doan zabalduz urteen joanean. Bien arteko alderik nabarmenena 1994-1995 ikasturteko tontorrak erakusten du, nahiz eta 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan eman zen ikasleko matrikula tasarik altuena, 2,13koa. Gero ostera jeitsi zen apur bat, eta horrek ematen du 2'06ko batez bestekoa.

11. Biztanleriari buruzko datuak Euskal Estatistika Erakundearen www.eustat.es orritik jaso dira

12. 1996ko Orioko Musika Eskolaren kontzertua aurrena, eta 2002ko Azkoitiakoarenaz geroztik urtero egin direnak, Hileroko Kontzertu Ziklo honen baitan txertatu izan dira. Ez ordea tarte horretan egindakoak nahiz beste era bateko elkartrukeak (abesbatzen artekoak, esate baterako).

ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK ETA BESTELAKOAK

Artxiboak

Hernaniko Udal Artxiboa.
"Hernani" Musika Eskola Publikoko artxiboa
"Biteri" Kultur Etxeko artxiboa

Hemeroteka

Diario de San Sebastian (periódico de noticias): 1873
Egin: 1985-1998
El Diario Vasco: 1985-2010
Hernaniko Kronika: 2001-2010

Araudia

Boletin Oficial del Ministerio de Educación Y Ciencia (BOMEC) eta *Boletín Oficial del Estado* (BOE)

- Decreto 1987/1964 de 18 de junio, sobre reglamentación de centros no oficiales de Enseñanzas Artísticas.
- Decreto 2513/1966, de 10 de septiempre, sobre Reglamentación general de los Conservatorios de Música (BOE 24-X-1966)

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA-BOPV)

- Maiatzaren 5eko 172/1987 dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zenbait Musikategi, oinarrizko mailako Musika Irakaskuntzarako onartutako Musikategi Ez Ofizialtzat sailkatuz.
- Agindua, 1990.eko otsailaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, ofizialtasunik gabeko, onartutako eta Hastapen mailako Musika Irakaskuntzak ematen dituen Hernaniko "Musika Akademia" izeneko ikastetxeari, hastapen mailako irakaskuntza berriak emateko baimena ematen diona.
- 419/1991 dekretua, uztailaren 9koa, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako zenbait ikastegitan ematen diren Oinarrizko Mailako musika irakaskuntzei ikasketa ofizialen balioa ematen diena.
- 289/1992 dekretua, urriaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartean "Musika-Eskola" direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena.
- Agindua, 1993ko urriaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako aitortu edo baimendutako hainbat kontserbatorio eta ikastetxe ez-ofiziali musika eskola bilakatzeko baimena emateko dena.

- Agindua, 1995eko abuztuaren 29koa, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako musika ikastetxeen izen generikoa arautzen duena.
- Agindua, 2001eko maiatzaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, baimena ematen zaio Hernaniko (Gipuzkoa) Escuela de Música Pública "Hernani" Musika Eskola Publikoari 4. maila emateko.
- Agindua, 2001eko abenduaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Hernaniko (Gipuzkoa) "Hernani" Musika-Eskola Publikoari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.
- Agindua, 2002ko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Hernaniko (Gipuzkoa) Escuela de Música Pública "Hernani" Musika Eskola Publikoari musika-espezialitateak gehitzeko eta 1. maila irakasteko baimena emateko dena.
- Agindua, 2003ko otsailaren 6koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Hernaniko (Gipuzkoa) Escuela de Música Pública "Hernani" Musika Eskola Publikoari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Musika eskolaren barne araudiak

- 1891: Proyecto de un Reglamento para la Academia de Musica de la Villa de Hernani.
- 1985: Reglamento de la Academia Municipal de Música de Hernani.
- 1997: "Hernani" Musika Eskola Publikoa. Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegia

Bibliografia

ANSORENA MIRANDA, José Luis (1996): *Txistua eta txistulariak. El txistu y los txistularis*. Kutxa Fundazioa:Donostia.

APEZETXEA AGIRRE, Patxi (1992): *Hernani eta txistua. Bere txistulariak / Sus txistularis*. Kutxa Fundazioa:Donostia.

- "Urmendi" (1997): "Ugalde anaiak (Xomorrotarrak). Hernaniko txistulariak". Kultur Batzordea – Hernaniko Udala (arg.) *Hernani 1997*. 12-15. or. Hernaniko Udala:Hernani.

BAGUES ERRIONDO, Jon (1990): "La música en la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País" in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 1990 urtea, 3. zki. (extra), 87-111. or.. RSBAP:Donostia.

BELTRAN ARGIÑENA, Juan Mari (1996): *Soinutresnak euskal herri musikan*. Orain:Hernani.

- (1997): "La enseñanza de los intrumentos musicales vascos" in *Eufonía*, urtarrila-martxoa, 6. zki. Graó:Bartzelona.
- (2004): *Dultzaina Gipuzkoan 1950. hamarkada arte*. Herri Musikaren Txokoa – Erviti:Donostia.
- (2010): *Txalaparta*. Nerea:Donostia

DIAZ GÓMEZ, Maravillas (2005). *La música en la educación primaria en las escuelas de música: la necesaria coordinación. Análisis para futuros planes de intervención educativa en la Comunidad Autónoma Vasca*. Doktore tesia (Orcasitas, José Ramón zuz.). Euskal Herriko Unibertsitatea:Bilbo

EGUREN ETXABEGUREN, Iñaki (2008): "Musika eskolatik plazara: Hernaniko esperientzia herri musika jole berrien ibilbidean", Herri Musikaren Txokoa (arg.) *Herri Musikaren 2. eta 3. jardunaldiak. 2003: 2. Herri Musika eta Herri dantzak. 2004: 3. Herri Musika eta Herri dantza hezkuntza sarean*. HM Zaleak:Oiartzun.

- (2009): "Hernaniko Musika Eskolak, hogeita bost urte", Hernaniko Udal Artxibo Zerbitzua (arg.) *Hernani 2009*. 104-113. or. Hernaniko Udala:Hernani.

GOIKOETXEA MARITXALAR, Joxan (2001): "Juan Joxe Iruretagoiena <<Orioko Jauna>>" Kultur Batzordea – Hernaniko Udala (arg.) *Hernani 2001*, 58-62. or. Hernaniko Udala:Hernani

HERNANIKO UDALA (2009): *Euskal Jaiak Hernanin, 1909*. Hernaniko udala – Udal Artxibo Zerbitzua – Kultura Saila:Hernani.

LETURIA, Xabier; URKIZU, Imanol (2010): "Panderoa Euskal Herrian", *Herri musikaren 4. eta 5. jardunaldiak*, 141-156. or., HM Zaleak – Herri Musikaren Txokoa:Oiartzun.

OLAIZOLA, Imanol (2001): *José de Olaizola. Oroitzapenak: 1883-1969. Recuerdos de una época*. Kutxa Fundazioa:Donostia.

OTXANDORENA NOBLE, Zipri (1999): "Hernaniko Musika Eskola: La música como vocación", Kultur Batzordea – Hernaniko Udala (arg.) *Hernani 1999*, 34-39. or. Hernaniko Udala:Hernani.

- (2001): "Hernaniko Musika Eskola: La música como vocación (continuación)", Kultur Batzordea – Hernaniko Udala (arg.) *Hernani 2001*, 76-84. or. Hernaniko Udala:Hernani.
- (2002): "Hernaniko Musika Eskola: La música como vocación. Instrumentos de viento", Kultur Batzordea – Hernaniko Udala (arg.) *Hernani 2002*. 76-81. or. Hernaniko Udala:Hernani.
- (2003): "Hernaniko Musika Eskola: La música como vocación (IV y final)", Kultur Batzordea – Hernaniko Udala (arg.) *Hernani 2003*. 137-146. or. Hernaniko Udala:Hernani.

PÉREZ GUTIÉRREZ, Mariano (1993): "Los Conservatorios españoles. Historia, reglamentación, Planes de estudio, centros, profesorado y alumnado" in *Música y Educación*. Revista trimestral de pedagogía musical. VI. urtea, 3. Urria. 15. zki. 17-48. or. Musicalis:Madrid.

SÁNCHEZ EQUIZA, Carlos (1999): *Del danbolin al silbo. Txistu, tamboril y danza vasca en la época de la Ilustración*. Euskal Herriko Txistulari Elkartea:Iruñea.

ZUBILLAGA, Manuel; SARASUA, Inés (1998): "Recordando a Don Jesús Zubimendi organista", Kultur Batzordea – Hernaniko Udala (arg.) *Hernani 1998*. 48-53. or. Hernaniko Udala:Hernani.

ZUDAIRE HUARTE, Claudio (1998): "Organerías (II). Simón de Artozqui, primer organista de Hernani" in *Cuadernos de Sección. Música*. 4. zki. Eusko Ikaskuntza:Donostia.

LA ESCUELA DE MÚSICA DE HERNANI 1985-2010

IÑAKI EGUREN ETXABEGUREN



133

LA ESCUELA DE MÚSICA DE HERNANI
1985-2010

El 25 aniversario de la escuela municipal de música de Hernani puede ser un buen momento para echar la vista atrás y analizar la actividad que se ha desarrollado en la misma durante ese cuarto de siglo que ha constituido el puente entre los siglos XX y XXI, dejando así un testimonio para los siguientes veinticinco años. Resulta obvio decir que en una escuela de música se hace, sobre todo, música, y podría decirse también que el objeto musical es en sí efímero, ya que se desarrolla en el tiempo, y no en un espacio físico como sucede en las artes plásticas. Por ello, tras un interpretación musical, y hasta que se produzca otra, sólo quedan las sensaciones y recuerdos que ésta haya podido causar. Así se ha solido describir el hecho musical, pero en realidad es un fenómeno muchísimo más complejo. Más allá (o más acá) del momento creativo que denominamos "interpretación", la música ofrece otro sinfín de aspectos que se pueden analizar: estructuras, aspectos sociológicos, psicológicos, técnicos, comunicativos, fisico-acústicos, etc. Y uno de ellos es el de la educación musical. Veinticinco años de actividad han dejado en Hernani, como principal patrimonio, muchas horas de melodías y sonidos que pueden haber quedado en los oídos y ánimos de tanta gente, pero también nos dejan una pequeña historia: la historia que durante más de dos decadas han marcado alumnos, profesores y vecinos de Hernani. Y ésa es la que, a mi manera, intentaré contar aquí.

Esta historia puede resultar algo fría, ya que se va a tener que centrar muchas veces en ofrecer datos y estadísticas, pero en un lugar tan humilde como éste tampoco se puede esperar la narrativa que pudiera acompañar a grandes sucesos bélicos o de otro tipo. Y por otra parte, debo confesar aquí que también a mí me hubiera resultado más interesante tener a mano datos de otras escuelas de música además de las de Hernani, para poder comparar y completar nuestra pequeña historia y avanzar conociendo mejor nuestros errores. Pero eso tendrá que esperar aún, puesto que, al no ser un experto, este breve trabajo ya viene superando mis esfuerzos y capacidades.

Dividiremos la historia de la escuela de música de Hernani en cinco apartados: comenzaremos con lo que podríamos calificar como los antecedentes de la escuela para, a continuación, describir la estructura (o, mejor dicho, la estructuración) de la misma, en lo que respecta a aspectos pedagógicos, infraestructuras, y otros. En los dos siguientes apartados daremos (y analizaremos someramente) datos sobre los dos principales estamentos que conforman la comunidad escolar: el profesorado y el alumnado. Y, finalmente, hablaremos sobre unas actividades que podríamos tomar por uno de los principales objetivos pedagógicos de la escuela: la actividad musical interpretativa que la escuela ha desarrollado en el pueblo o fuera de él (conciertos, pasacalles y todo tipo de actos).

ANTECEDENTES: EN TORNO A LA ACADEMIA DE MÚSICA

En Hernani posiblemente haya habido música desde que existe el pueblo, pero resulta complicado saber qué tipo de música ha sido ésa hasta los siglos XIX y XX, y más complicado aún saber cómo se ha solido aprender a hacerla. Gracias a los trabajos de Juan Mari Beltran y Zipri Otxandorena, entre otros, sabemos que Hernani ha contado con txistularis, txalapartaris, dulzaineros y, más recientemente, acordeonistas, además de muchos otros tipos de músicos como guitarristas, tañedores de bandurria, flautistas, tamborreros, y a saber cúantos más. De vez en cuando también nos llegan noticias de algún hernaniarra que pudo realizar estudios musicales, como aquel Jose Maria Etxeberria que, en 1873, en plena guerra carlista, aparece en Donostia dando clases particulares de piano y ofreciendo conciertos en el casino Kursaal, según nos cuenta un anuncio fechado a 14 de julio en el periódico "Diario de San Sebastián": *"El aprovechado jóven de hernani D. José María Echeverría que ha obtenido el primer premio en el Conservatorio de Madrid en la oposicion últimamente celebrada sobre estudios generales en el piano, se ha establecido en esta ciudad y se dedicará á la enseñanza de dicho instrumento á domicilio y en su propia casa, Narrica, 22 tienda."* Sin embargo, no sabemos si en Hernani hubo quien ofreciera clases particulares de piano, al menos hasta el siglo XX. Si ha habido estudios de tecla en nuestro pueblo, hasta no hace mucho éstos se han debido, principalmente, a la organistía.

Si queremos saber algo sobre lo que ha sido la música y la educación musical en el pueblo, no hay más remedio que acudir a los que han sido los principales poderes del mismo durante largos siglos: la Iglesia y el Concejo.

En torno a la iglesia, y más concretamente, en la parroquia de San Juan Bautista, junto al canto, uno de los principales pilares de la música del pueblo ha sido el órgano. Al respecto sabemos, gracias a Claudio Zudaire, (ZUDAIRE:1998) que el primer organista del pueblo fue nombrado en 1653, y se llamaba Simón de Artozqui. Y no es claro el papel que los organistas han podido cumplir en la educación musical de los hernaniarras a partir de entonces, pero desde que se crea la Academia Municipal de Música en el siglo XIX, la figura del organista aparece muy a menudo ligada a la misma. No es casualidad, por tanto, que el primer director de la Banda de Música, don Manuel Zendoia, fuera el organista de la parroquia. Posteriormente también don Federico Iglesias complementaría la organistía con la labor de director de la Banda de Música entre 1910 y 1930, y tras su defunción sería don Jesús Zubimendi quien se encargara del órgano parroquial, mientras don José María González Bastida tomaba la batuta de la banda. Y, otra vez, más de un hernaniarra recibiría clases de solfeo del organista, don Jesús Zubimendi. Llegando ya a nuestros días, el más destacado organista de la villa ha sido el gran acordeonista don Manuel Yaben. Este último impartió clases de acordeón, órgano y solfeo hasta finales de los años 80. Al fin y al cabo, aunque la organería no ha sido un servicio municipal, la relación entre Iglesia y Ayuntamiento ha sido muy estrecha hasta finales del siglo XX, y eso se ha notado también en lo que respecta a la música. Esto era así hasta el punto de que, parece ser, en más de una ocasión ha colaborado el Ayuntamiento con la vicaría en la designación del organista.

No obstante, el servicio municipal de música lo han cumplido, en primer lugar, los txistularis o tamborileros, por lo menos hasta la creación de la Banda de Música en la segunda mitad del siglo XIX. Por lo que respecta a los primeros, Patxi Apezetxea rescata del archivo municipal (APEZETXEA:1992) la fecha del primer pago realizado a uno de ellos en el siglo XVI, concretamente el año 1531, por amenizar las fiestas de San Juan. A partir de entonces y a lo largo de los

134

siglos XVI y XVII, aparecen sin cesar pagos por tañer el tamboril, el tambor o el pífano (no tenemos noticia de clarines), y aunque no abunden noticias del siglo XVIII, sabemos que en 1799 Martin Joseph de Ansa fue nombrado juglar o tamborilero de la villa. Desde entonces no han faltado tamborileros municipales, y con Isidro Ansorena, que fue también tamborilero municipal entre 1910 y 1922, se formó la que llamamos "banda tradicional de txistu" (dos txistus, un silbote y un atabal o tambor), que se implantaría en 1936.

Sin embargo, la formación de los tamborileros no incumbía al Ayuntamiento, no directamente al menos, hasta que se aprobó la normativa de 1920. Así, aunque Isidro y Joxe Ansorena, por ejemplo, recibieron clases de solfeo en la escuela municipal de música, el arte de tocar el txistu lo tuvieron que aprender, en primera instancia, en casa: Joxe con su tío e Isidro con su hermano. Y posteriormente Leokadisti, la casa de los Ansorena, seguiría siendo la principal escuela de txistularis de Hernani, tanto para los hermanos Ugalde como para los hijos de Joxe, Patxi y Felix Ansorena, así como para otros tantos jóvenes del pueblo. En 1965 La Banda Municipal de Txistu presentó su renuncia al ayuntamiento, pero al cabo de un año Xabier Zugasti comenzaría a dar clases de txistu en los luises y, en 1967 se crearía la Academia Municipal de Txistu, con Antonio Insausti "Txobito" como profesor.

La historia de la Academia Municipal de Música está íntimamente ligada a la de la Banda de Música hasta la creación de la actual escuela de música. Pero si queremos comprender esta historia, en primer lugar debemos tener en cuenta la extraña evolución que ha vivido la educación musical en el estado español durante los siglos XIX y XX. Por ello, aunque sea muy superficialmente, debemos conocer la historia de los "conservatorios" o centros educativos oficiales de música, y para ello seguiré un breve estudio realizado por Mariano Pérez (PÉREZ:1993).

135

Parece ser que, hasta el siglo XVIII, en toda Europa las clases de música estaban, casi por completo, en manos de la Iglesia: en las escolanías de diversos monasterios se trabajaba en particular sobre el canto, y en algunos orfanatos y casas de misericordia sobre la música instrumental (probablemente el más famoso sea el caso del orfanato de Venecia, cuya orquesta dirigió Vivaldi en el siglo XVI). En efecto, los Conservatorios del siglo XVIII iban a ser una evolución de aquellos centros que "conservaban" niños huérfanos. Surgirían así Conservatorios como los de Venecia, Nápoles y, ante todos, el de París. La ilustración francesa sacó de la iglesia la educación musical al crear esta última academia, y a partir de entonces los ilustrados de otros países seguirían la estela marcada por los primeros. En el estado español esa baza la jugaron las llamadas "Reales Sociedades de Amigos del País", y en el sur de Euskal Herria tampoco se iban a quedar atrás. Es conocida la labor acometida por el propio Conde de Peñaflorida en el campo de la educación musical en torno al afamado Seminario de Bergara (BAGÜES:1990).

Así pues, en 1830 se fundó el conservatorio de Madrid, que tomó el nombre de "Real Conservatorio María Cristina

de Madrid". En aquel primer conservatorio los nombramientos los realizaría el rey (o la reina) durante muchos años, y todo el sistema oficial de la educación musical iría tomando forma a partir de la normativa aplicada a este centro, al menos hasta 1966. De esta forma, los métodos de solfeo y composición que para aquel conservatorio preparó el burladés Hilarión Eslava, por ejemplo, serían los más empleados en todo el estado hasta mediados del siglo XX. En el reglamento de 1861 se diferenciaba el solfeo general (tres años) del solfeo para canto, y se especificaba que el tercer año de solfeo general debía coincidir con el primero de instrumento. Y así se explica que, hasta 1992, en todos los demás planes de estudios oficiales no se contemplaba la iniciación en un instrumento musical hasta haber cursado el segundo de solfeo. Además, hasta 1905 no se legalizó ningún otro conservatorio (salvo el de Barcelona), y la matriculación de alumnado libre[1] en el de Madrid tampoco fue posible hasta 1883. Por tanto, durante el siglo XIX, pero también en la primera mitad del XX, los estudios oficiales de música sólo se podían realizar en Madrid.

Esto no significa, sin embargo, que en otros pueblos y ciudades no existiera la necesidad de aprender música, y como en muchos otros casos, la realidad le tomó la delantera a la ley. Probablemente sucediera lo mismo en todo el estado, pero, al menos en las cuatro provincias del sur de Euskal Herria, el proceso fue muy parecido. También en Hernani. Durante la segunda mitad del siglo XIX las bandas de música gozaron de un gran éxito y se extendieron, en poco tiempo, prácticamente por toda la geografía vasca. La historia de la banda de Hernani está aún por hacer, pero su creación se puede establecer en 1864. O eso es lo que se desprende de una carta que un grupo de jóvenes del pueblo envió aquel año al alcalde. Gracias a esa carta sabemos, además, que alguien llamado Manuel Sánchez Salvador impartió clases de música anteriormente a dicho grupo de jóvenes. Y puesto que se trata de la primera noticia que tenemos sobre la educación musical en Hernani, me ha parecido interesante recoger aquí dicha carta (que no es muy larga) en su integridad:

"Ill. Comision de la música de aficionados de esta villa de Hernani. / Los abajo firmantes todos individuos pertenecientes ála música de esta villa á V.S. reverentemente esponen: que se hallan animados de la mejor voluntad para instruirse en dicho arte; que recuerdan con gratitud ***el tiempo en que Dn Manuel Sanchez Salvador tuvo la amabilidad de asistir asidua y constantemente á sus academias á instruirlos****, y los progresos que en dicho tiempos hicieron, y que desean que el mismo Dn Manuel se encargue de su direccion. / Por tanto / Suplica á V.S. tenga á bien hacer presente nuestro deseo al espresado Dn Manuel álo que y á la accesion de dicho señor quedarán reconocidos. / Dios gu[ard]e á V.S.m[ucho]s a[ño]s / Hernani 6 de Julio de 1864 / Jose Mª Sorondo / Joaquin [...] / Bonifacio Aguirre / Francisco Rojas / José Mª Miner / Mª Galarmendi / José Santacruz."*[2]

Por lo tanto, el ayuntamiento apoyaba aquel movimiento, y no es de extrañar que al poco tiempo asumiera los gastos de la banda de música. Ya en 1877, aunque aún no recibiera el nombre de "banda municipal", aquella banda llamada "música de aficionados" contaba con un reglamento municipal, conforme a la cual el director era nombrado por el alcalde y se le adjudicaba un sueldo de mil reales. A cuenta del ayuntamiento, por supuesto. También corrían a su cargo los gastos surgidos de la compra de instrumentos y otros materiales (partituras, atriles, etc.), así como el local de ensayos. Era, plenamente, una banda municipal de música. Más aún: si leemos con atención el reglamento de aquel año, hallamos en el tercer artículo un punto de especial interés para nosotros: *"Reglamento orgánico de la Música de Aficionados de la N.L. e I. Villa de Hernani. / (...) 3.º* ***Dos veces cuando menos por semanal habrá academia de la música de aficionados, á la que asistirá el Director*** *(...) 10.º Queda á cargo del Ayuntamiento procurar local y alumbrado para academias y ensayos / Hernani 10 de Febrero de 1877 / Aprobado en sesion de 15 de Febrero de 1877 / Por acuerdo del Ayuntamiento / El Alcalde: Juan Esparza / El Secretario: Juan Benito Gaztañondo"*[3] Nótese que los conceptos "academias" y ensayos aparecen como entidades diferentes y, por lo tanto, ésa es la primera vez, que sepamos, en la que se regula la academia de música del Ayuntamiento de Hernani. Su responsable sería el ya citado don Manuel Zendoia, pues según los documentos del archivo municipal fue él el director de la banda.

Aquel año de 1877, también el Ayuntamiento de San Sebastián creó su escuela municipal de solfeo, que en 1900 se convertiría en "Academia de Bellas Artes" y en 1910 en "Academia Municipal de Música". Y probablemente siguieran un proceso similar los otros pueblos de Euskal Herria que contaran con banda municipal de música. Nuestra academia fue cobrando forma, siempre unida a la dirección de la banda, hasta que en 1891 se redactó el primer reglamento para la Academia de Música de la Villa de Hernani, basada en la normativa con la que ya contaba el Ayuntamiento de Valmaseda. Rescato aquí algunos pasajes de dicho reglamento, para entender mejor cómo funcionaba aquella escuela:

"Proyecto de un Reglamento para la Academia de Musica de la Villa de Hernani[4] */ (...) Articulo 1º Esta academia tiene por obgeto fomentar el arte musical, para que facilitando sus estudios a todos los jovenes de la villa que lo deseen en particular a los de familias pobres, pueda alguna vez ser para ellos honroso medio de subsistencia y para que en los dias de solemnidad o regocijo publico, constituyan uno de los principales elementos*

que den realce a las fiestas, sirviendo en todo tiempo de honesto a la par que moralizador entretenimiento para todos. / (...) Art. 7º El gobierno interior y la direccion facultativa de la Academia en todas sus ramas se encomendará a una sola persona con el titulo de Director. Este nombramiento deberá recaer por concurso en un profesor de solféo y armonia habil en el manejo de conjuntos é instrumentacion y de moralidad reconocida. / (...) Art. 9º El Director estará obligado bajo su responsabilidad: (...) A esplicar las clases de solfeo, ensayando y dirigiendo los conjuntos en las funciones tanto profanas como religiosas en las que pudiera tomar parte la musica ó coros de la Academia el dia que llegue a tenerlos." / Art. 11º El personal de la Academia se compondrá de: ***El Director, como profesor de solfeo é instrumentacion de banda****, y de los Auxiliares que serán los dos tamborileros de la villa. / (...) Art. 13º La enseñanza que recibirá la juventud se limitará por ahora a dos secciones: 1ª Solfeo y 2ª instrumental de banda. / (...) Art. 15º* ***Las clases serán diarias y su duracion de dos horas****. Se exceptuan para las clases los jueves, las fiestas de precepto, las solemnidades en que vaquen los establecimientos públicos de enseñanza y el dia de Santa Cecilia en que se procurará organizar algun festival o concierto cada año para celebrarlo dignamente. / Las clases daran principio de preferencia al oscurecer alterandose las horas segun las estaciones del año escolar. / (...) Art. 16º* ***La enseñanza es gratuita*** */ (...) Art. 17º* ***El numero de alumnos admisibles en la clase de solfeo será de 50****, necesitarán para ingresar en la academia* ***haber cumplido diez años****, saber leer y escribir, tener las cualidades fisicas indispensables para el estudio á que han de dedicarse, ser naturales de esta villa o de padres avecindados en la misma y solicitar la matricula del Ayuntamiento. Si el número de solicitantes para la clase de solfeo escediese del fijado en éste articulo, se dará la preferencia á los que reuniendo mejor aptitud para la musica acrediten ser mas pobres. / (...) Art. 27º Las masas instrumentales y corales estarán siempre a disposición del Ayuntamiento para toda clase de funciones y solemnidades en que de ellas quisiese hacer úso / (...) Hernani a once de Junio de 1891"*[5]

136

137

138

Como consecuencia de este reglamento, el ayuntamiento convocó la plaza de director de la academia, a la que se presentó un solo aspirante, el arriba mencionado don Manuel Zendoia, que ya era director de la banda y organista de la parroquia. En el expediente de nombramiento se detalla el examen que tuvo que pasar, y por él sabemos que los conocimientos musicales de don Manuel eran considerables. Fue alumno del maestro de capilla de Tolosa, el gran Felipe Gorriti, con el que aprendió piano, órgano, armonía, contrapunto y fuga.

El principal objetivo de aquella academia consistía en dotar de músicos a la banda municipal, y el modelo educativo que seguía para ello se basaba en el de los conservatorios (no podía ser de otra manera): se fundamentaba en las clases de solfeo. Éstas se dividían en tres cursos o niveles, y cuando el profesor-director juzgaba mejor, los alumnos comenzaban a tocar algún instrumento: el clarinete, el requinto, la trompeta, el saxofón, el trombón, la tuba, el tambor, el bombo, o lo que fuera. Todas las clases eran grupales. Pero también había otros ciudadanos que tenían otras necesidades musicales, y la academia estaba abierta a todos. Así se explica que Zendoia tuviera por alumnos a los que, en los años siguientes, iban a ser los más famosos músicos de Hernani: los hermanos Olaizola (Juan, José y Gabriel) y los Ansorena (Joxe y Isidro). José Olaizola Gabarain, el que luego llegaría a ser gran organista y compositor, y

Urte batzuk geroago "LOGSE"-ren ezarpenarekin soinu-tresna hauen irakaskuntza, maila batean (irakasleagoaren habilitazioekin), legeztatua izan zen, eta ordutik, alboka, dultzaina, trikitixa eta txalaparta ikasketek beste soinu-tresnek zeukaten onarpena eta babesa izan dute. Hori iritsi zen bitartean, ordea, Hernaniko Musika Kontserbatorioak inongo subentzio, laguntza eta onarpen ofizialik gabe mantendu zuen herri musika eskola hori, eta esan beharra dago hamar urte haietan emaitza ugariko bidea egin zela.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gue, M. ANTONIA OZCÁRIZ RUBIO, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaria naizen honak eta MARAVILLAS DIAZ GOMEZ, DEPARTAMENTO DE DIDACTICA DE LA EXPRESION MUSICAL, PLASTICA Y CORPORAL izeneko erakundearen ordezkari diren:

Mª ANTONIA OZCÁRIZ RUBIO, Director de Renovación Pedagógica, y MARAVILLAS DIAZ GOMEZ, en representación de la Entidad DEPARTAMENTO DE DIDACTICA DE LA EXPRESION MUSICAL, PLASTICA Y CORPORAL

ZERA EGIAZTATZEN DUGU: CERTIFICAN QUE

D./Dña. JUAN MARI BELTRAN ARGIÑENA jn/andrak,

15152934 zenbakiko NAHIturra, agertu-tzeko eskubide osoa duen honi dagokion titulua ematea eta dokuko Saila eskuko ta eta geroko ebaluaketa eskuratzeko eman zuen ikasketapeko hobekuntzako ondoko prestakuntza eskatzen

con DNI nº 15152934, participó con aprovechamiento positivo en la siguiente actividad formativa de perfeccionamiento del profesorado organizada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación a impartida por la entidad arriba indicada.

Kodea/Código: 0013
Izenburua/Título:
TRADIZIOAN OINARRITUTAKO MUSIKATRESNEN PEDAGOGIA ETA DIDAKTIKAN HABILITATZEKO IKASTAROA. TXALAPARTA
CURSO DE HABILITACIÓN EN PEDAGOGÍA Y DIDÁCTICA DE INSTRUMENTOS DE RAIZ TRADICIONAL. TXALAPARTA
Amaiera data/Fecha de finalización: 6/06/94
Iraupena/Duración: 67 horas
Herria/Localidad: EIBAR

Eta hau eskatua gera dadin eta dagokion ondorioak izan ditzan, honako hau izenpetzen dugu Vitoria-Gasteiznen, 1994ko Azaroaren 18an.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, suscribimos la presente en Vitoria-Gasteiz, a 18 de Noviembre de 1994.

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaria
La Directora de Renovación Pedagógica

Erakundearen ordezkaria
El representación de la Entidad

Mª ANTONIA OZCÁRIZ RUBIO

MARAVILLAS DIAZ GOMEZ
272

Arlo guztietan oso garrantzitsua izan zen Hernaniko musika ikastetxeak soinu-tresna hauek irakasteko eman zuen aukera. Ordura arte, salbuespen gutxiz, soinu-tresna hauek ikasteko aukera bakarrak, noizbehinka eta iraupen ezberdinekin (gehienetan oso motzak) jole-irakasle eta ikasleen artean, laguntza txiki edo gabe antolatutako ikastaroak izaten ziren. Ondo dakigu zein baldintza eskasetan (iraunkortasuna, lokalen egoerak, ordutegiak, materiala, diru laguntzak, metodologia,...) jarduten ginen. Hernaniko Musika Kontserbatorioak, neurri handi batean, hori guztia normalizatu egin zuen:

- Ikastaroen iraupena: Ikasturte osoa.
- Iraunkortasuna: Urtero eta hutsik gabeko eskaintza.
- Gutxieneko baldintzak betetzen zituzten lokalak.
- Ordutegi finkoa.
- Ikasteko behar zen materiala.
- Irakaslegoaren baldintza laboralak.

Metodologia: Aurreko baldintzak betetzeak soinu-tresna hauen irakaskuntzan metodologia egoki bat osatzeko aukera eman zuen. Honek guztiak sortu zuen ikasbidearen sortzea, ordenazioa, progresioa eta lanerako bide sistematizatua.

HERNANI MUSIKA ESKOLAREN EKARRIA HERRI MUSIKAREN ESPARRURA

273

Emaitza zabala eragin duen 25 urteko ibilbide emankorra egin du Hernani Musika Eskolak, eta bestalde, garbi da honek herri musikaren gai honetan beste eskolengan izan duen eragina. Baina gure eskolaren emaitzak kanpoan, eta bereziki Hernani inguruan, ikusten badira ere, bereziki Hernanin eman ditu gure eskolak bere fruituak. Hernaniko bizitzan, eta herriaren giza funtzionamenduaren hamaika momentu eta ekitalditan agertuko dira gure musika eskolaren arrasto musikalak.

274

Oso garrantzitsua izan zen hasieratik, irakaskuntza indibidualaz gain, soinu-tresna ezberdinetan taldeak osatzeko izan genuen jarrera.

275

276

Eskolaren bigarren ikasturtean hasi ziren gure ikasle taldeak herriko ospakizun ezberdinetan parte hartuz beraien musika zuzenean eskaintzen. Tarteka kanpora ere joaten ginen gure musika eskaintzera. Ordukoak dira,

277

278

besteak beste, ekainaren 23an sanjoanetan egiten den festen hasiera horretan gure ikasleen parte hartzea eta udaran ezik urte osoan igande eguerdietan herriko kale eta plazetan egiten diren saioak. Jarrera eta joera horrekin jarraituz, hurrengo urteetan, pixkanaka gero eta handiagoa izan da gure eskolako txistulari, dultzainero, trikitilari, albokari eta txalapartarien parte-hartzea herriko edozein ospakizun dela eta.

279

Gure musika talde hauek San Joanetan, auzoetako festetan, erromerietan, inauterietan, olentzerotan, igandeetan, omenaldietan, eta herriko beste hamaika ospakizunetako ezinbesteko osagai bihurtu dira.

280

IGANDEROKO KALE MUSIKA SAIOAK

Gure eskolak herrian egin duen ekarpen oso garrantzitsua, ikasleen musika taldeek eskaintzen dituzten iganderoko emanaldien zikloa izan da. Gaur egun erabat normalizatua eta onartua dagoen kaleko musika ziklo honen bitartez, Hernaniko igandeetako giroari beste hots bat eman nahi genion, musikatu egin nahi genuen.

Egitasmo berri hura martxan jartzeko, 1988-89 ikasturtean Hernaniko Udaletxean honako idatzia aurkeztu genuen Eskolako Irakasleagoaren izenean:

Hernaniko Musika Kontserbatorioko Euskal soinu tresnak, trikitixa eta akordeoia ikasleen artean, taldeak sortuak dira.

Hori dela eta, osatzen ari den musika plangintza berri hortarako zera proposatzen diogu Udalari. Musikarako plangintza horren barneko Folk Sailean, Hernanin, igande arratsaldeetan plaza eta kaleetan zehar musika jotzea, musika bizia, zuzenean emana, dantzaldi "herrikoia".

Hortan parte hartzeko bederatzi talde prest ditugu:
Txistua: hiru talde
Dultzaina: hiru talde
Txikitixa: bi talde.
Akordeoia: talde bat.
(Perkusioko ikasleen laguntzarekin).

Gure proposamen konkretoa hau da:

Urtean zehar, igandero, Garizuma eta Udan bi hilabete kenduz (Uztaila erdia, Abuztua, Iraila erdia), 40 igandeak harturik, arratsaldeko 6:30 – 8:30 orduak bitarte, bi talde , txandakatuz eta konbinaketa desberdinak eginez:
Txistu-Dulzaina
Dultzaina-Trikitixa edo Akordeoia.
Trikitixa-Akordeoia. Txistu.
Musika saioak eskaintzea.

Non jo?,
Plaza nagusian, Plaza Berrian, kaleetan zehar edo denetan, ikusi beharko da probatu eta gero.

PRESUPOSTUA:
Ez dugu uste orain asko ordaindu behar denik, zeren ikasle direnez, komeni zaie jende aurreen jotzea bere ikasketen osagarri gisa. Baina, beste aldetik ardura eta konpromezua. hartu, eta zerbitzu bat betetzen dutenez, gutxi bada ere, zerbait eman behar zaiela garbi ikusten dugu.

Igandero bi talde: 6.000 pezeta talde bakoitzari.
12.000 x 40 igande= 480.000,- pta. urte osorako.

Diru kopuru honek gutxi gora-behera kontzertu on baten kostoa suposatzen du, eta aurkeratu beharko bagenu, emanaldi publiko horien aukera egingo genuke.

Iganderoko funtzio hori betetzea, Hernanirako interesgarriago, beharrezkoago dela iruditzen zaigulako, honekin ez dugu esan nahi ez direla kontzertuak antolatu behar noski, baina prioritateak markatu behar dira.

Eta musika emanaldi honekin Hernaniko igandeek beste giroa eta berezitasuna edukiko lukete.

Hernani 1989 Otsaila 20
Kontserbatorioko Musika Irakaslegoa

Udalak gure proposamena onartu zuen eta 1989ko apirilaren 2an hasi ginen jarduera berri hartan. Egitasmoan azaltzen zen bezala, hasieran musika saio hauek igande arratsaldeetan egiten genituen, baina handik gutxira, kontsulta batzuk eta azterketa txiki bat egin ondoren, egokiago izango zela iruditzen zitzaigulako, saio hauek igandeetako arratsaldetik eguerdietara aldatu genituen. Eta txandakatzeko hasierako talde multzo horretan, 1989-1990 ikasturtean beste talde berri bat sartu zen, albokarien taldea. Geroztik horrela jarraitu dugu, eta garbi dago Hernaniko igandeek musika honekin beste grazia eta giroa dutela.

ernani-lasarte-usurl

Txistu, dultzaina, triki-tixa y acordeón animarán las tardes de los domingos

281

Bestalde, alboka, trikitixa, txistu eta dultzainero taldeek, besteak beste, urtero jotzen dute eskolako txalapartari taldeak antolatutako Txalaparta Festan.

282

IKASLEEN KONTZERTUAK

Ikasleen beste jarduera garrantzitsua publiko aurrean antolatutako kontzertuetan parte hartzea izan da. Hauek Hernanin eta Hernanitik kanpo izaten dira. Hona hemen horietako batzuk: Ikasturte bukaerako Ikasleen kontzertu zikloetan, Santa Zezilia ospatzekoetan eta Musika Eskolak antolatutakoen artean beti entzuten da gure herri soinu-tresnen musika. Eta gure eskolak Euskal Herriko beste eskolekin egiten dituen elkartrukeetan ere jotzen dute gure euskal soinu-tresnetako ikasleek.

283

284

285

Andoainen urtero ekain aldera antolatzen den Haurren Euskal Jaian urte askotan parte hartu izan dute gure txalapartari, txistulari, albokari eta dultzaineroek, Euskal Herrian zehar antolatzen diren Txalaparta Egunetan, Ikastolen Egunetan, Urnietako San Migeletan txistularien kontzertuan,...

286

HERNANIKO BESTE TALDEEKIN ELKARLANEAN

Gure Musika Eskolako ikasleen taldeek sortu zirenetik kolaboratzen dute Hernanin diren elkarte, erakunde eta giza talde ezberdinekin. Oso ezagunak dira gure alboka, dultzaina, trikitixa, txalaparta eta txistu taldeak elkarte hauek antolatzen dituzten ekitaldietan: Zaharren Egoitza, Elur txori elkartea, Xalaparta Elkartea, Santa Barbara elkartea, Ikastolak,... eta beste asko dira gure musika taldeak ezagutzen dituzten Hernaniko giza taldeak. Hona hemen, horren erakusgarri, gure herri musikarekin Hernaniko taldeekin egiten diren halako kolaborazioen aurkezpentxo bat:

287

Bertso eskolarekin behin baino gehiagotan ibili gara elkarlanean, Hernanin eta Hernanitik kanpo ere bai. Aipagarria da, gainera, Hernaniko Bertso Eskolak guk antolatutako ekintza eta ekitaldietan hasieratik izan duen kolaboratzeko jarrera. Horren adierazgarri Txalaparta Festan, aurreneko ediziotik hutsik egin gabe, izan duten parte-hartze zuzena.

288

Musika bandaren kontzertuetan, bandarekin batera, 1989an gure eskolako Beltran eta Urruzola dultzainero bikoteak jo zuen banda eta dultzainarako errepertorioa interpretatuz, eta 2008an Eguren eta Ezeiza dultzainero

289

bikote gaztea izan da antzeko kontzertua Hernaniko Musika Bandarekin jo duena. Eta noski, gure eskolako txistulariek urtero parte hartzen dute Hernaniko Musika eta Txistulari bandekin San Joan eguneko diana ospetsuan.

290

Hernaniko ikastetxe ezberdinen artean San Joanen aurreko astean urtero antolatzen den Preludio Txiki kontzertuan ere izaten dira, beste soinutresna eta abesbatzekin batera, gure albokari, dultzainero, trikitilari, txalapartari eta txistulariak.

291

San Joanetako Iragarpen Kontzertuan ere, gure eskolako beste musikariek bezala, gure txistulariek eta txalapartariek hasieratik eta urtero-urtero hartu dute parte, beharbada herriko kontzertu nagusi bilakatu den honetan.

292

Hernaniko Udal Txistulari Bandarekin gure ibilbidearen hastapenetik izan dugu harreman zuzena eta ona. Eva Igarriz izan zen gure eskolatik talde horretako partaide izatera pasa zen lehen ikaslea, eta Joseba Aldasoro perkusio ikaslea izan da talde honetan sartu den gure eskolako beste bat. Azken hogei urtean talde honekin parte hartzen dugu, besteak beste, San Joan eguneko txistularien kontzertuan. Baita Santa Zezilia inguruan Kantuz abesbatzarekin batean egiten den kontzertuan ere. Eta idatzi honen beste atal batean ikusiko dugunez, talde honekin batera antolatzen da urteroko Hernaniko Txistularien Jaialdia ere.

293

Hernaniko Ttarla Dantza taldeak ere beti izan ditu bere emanaldietan gure eskolako musikariak. Baita Hernaniko Akelarreak ere, San Joanetako "Akelarrea" sortu zenetik, lehen ediziotik, hasi ginen eskolako txalapartari eta dultzainero taldeekin parte hartzen gaur egun erabat erroturik dagoen Sanjoanetako ekitaldi horretan.

294

Izan dira jarraipenik izan ez duten saiakera batzuk ere. Akelarrea antolatzen duen talde honekin 1990 inguruan San Joanetako 26an, Osinagan, Urumea ondoko txoko eder batean "Erromeria Eguna" antolatu genuen. Jende talde bakoitzak bere janaria eraman behar zuen, antolatzaileak edariaz

arduratu ziren eta Musika Eskolak txistulari, dultzainero, txalapartari eta albokari taldeak jarri zituen. Bazkaldu ondoren musika joz eta dantzan herriraino etorri ginen eta bertan herrian zebilen jende askorekin batera bukatu genuen. Egun ederra pasa genuen baina ez genuen jende kopuruaren aldetik arrakasta handirik izan eta ekimen berri hori bertan bera geratu zen.

Jarraipen luzea izan dutenen artean, San Joanetako konpartsarekin hamaika ediziotan parte hartu dute gure eskolako musika talde ezberdinek.

295

Azken 25 urte hauetako Hernaniko Inauterietako ekitaldietan nabarmena izan da gure eskolako taldeen parte hartze zuzena. Horren adibide, sardinaren ehorzketan ez dute huts egin dultzaineroek hogei urte baino gehiagoan.

296

297

Kriskitina Dantza Taldeak hartu zuen orain dela urte batzuk Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren ardura, eta beraiekin parte hartzen dugu irteera askotan, besteak beste, inauterietako asteleheneko irteeran.

Eta Hernaniko Dantzari Festaz zer esan. Herri musikan bezala, Hernani aspalditik izan da herri dantzaren habia. Hemengoak ziren XX. mendeko "Kiskilutarrak" eta Sarriegitarrak bezalako dantzari familia ospetsuak. Euskal dantzarako zaletasuna eta talde faltarik ez da izan Hernanin eta, besteak beste, 1970-80etako hamarkadetan izan zen "Ekintza dantza taldea", ondoren Ttarla taldea, Kriskitina taldea, Ereñotzuko dantza taldea,... eta bide horri jarraituz, 1995ean San Juan Konpartsak antolaturik martxan jarri zen urtero, apiril aldean, arrakasta handiz ospatu den Hernaniko Dantzari Festa. Jardunaldi hauen ezinbesteko euskarri musikala izan dira, eta dira, gure txalapartari, txistulari, dultzainero, albokari eta trikitilariak.

Chillida-Leku. Azken bost urteetan maiatz aldean Chillida –Lekun antolatzen den Sagardo Eguna izeneko ekitaldian, urtero parte hartzen dute gure trikitilari eta txalaparteriek.

HERNANI MUSIKA ESKOLAK ANTOLATUTAKO HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

Hernaniko Musika Eskolak bere gain hartu zuen klaseak emateaz gain, ikasleen prestakuntza musikala osatzeko eta era berean herrian, musika zaleei orokorrean eskainita, zuzeneko musika emanaldiak antolatzea. Horrela, urtez urte, ikasturtean zehar, hilean behin musika kontzertuak antolatu ditugu. Horien artean, ikasturtero, Eskolako euskal herri soinu-tresnen mintegiak herri-musika kontzertu bat antolatu du.

Herri musikarekiko gure jarrera eta helburua beti bikoitza izan da: alde batetik gurea ezagutu behar dugu eta, bestetik, oso aberasgarria da kanpoko ereduak ezagutzea. Horregatik ziklo hau antolatzen hasi zenetik, urtez urte txandakatuz, euskal eta kanpoko ereduak aurkeztu ditugu Hernaniko eskenatokian. Eskolak antolatutako kontzertu ziklo horren bitartez Hernanin herri musika eskaini dugu, gurea ezagutu eta sustatzeko, eta kanpoko eredu asko ere ezagutzeko. Musiken arteko berdintasunak eta berezkotasunak, unibertsaltasuna eta partikulartasunak, gure txistularien eta kanpoko antzeko tanborileroen artekoak, gure dultzainero eta kanpokoen artekoak, trikitixa,...

Beti maila ona duten taldeak izan dira, eta askotan parte hartu dutenen artean izen oso ezagunak eta esanguratsuak ere bai. Hona hemen, besteak beste, Hernani Musika Eskolak antolatutako herri musika kontzertuetan izan diren taldeak.

298

Euskal talde eta musikarien artean: Jose Inazio Ansorenaren zuzendaritzapean Donostiako Udal Txistu taldea izan zen gurekin 1991ko urriaren 23an; Garikoitz Mendizabal, Lizturi musika taldearekin; Aitor Amilibia; Iruñeko Gaiteroak; Lizarrako Gaiteroak; Eltziegoko Gaiteroak; Los Ministriles del Rey Teobaldo; Joseba Tapia; Zaldibobo; Etzakit taldea; Iker Goenaga; Zuberoako Lurralde Zilarra (Mixel Arotze, Maddi Oihenart eta Mixel Etxekopar); Erramun Martikorena - Jean Mixel Bedaxagar;...

299

Kanpoko musikari eta taldeen artean: Aragoiko Orquestina del Fabirol, Touluseko Lo Jaç taldea, Occitaniako Verd e blu taldea, Galiziako Os miñotos eta Dúo Fernandez & Quintá, Zamorako Habas Verdes (Alberto Jambrina), Salamancako Mayalde taldea, Gaztelako Germán Díaz (zanfona), Extremadurako Oscar Duarte "Las hurdes"eko tanborileroa,...

300

Gure ziklo honetan egin diren herri musika eta soinu-tresnen kontzertu hauek, Hernanitik kanpoko musika zale eta soinu-tresnen adituak erakarri dituzte. Eta kontzertu horien ondoren, parte hartu duten musikariekin afari bat eginez elkartu izan gara, ekitaldiari, gehienetan, musika, kantu eta dantzaz beteriko festa batekin bukaera emateko. Harreman horiek oso aberasgarriak izan dira gure eskolako musika joleentzat. Bai gure musikaren ezagupen orokorrerako, interpretazio prestakuntzarako, gurea eta haien musika antzekotasunak, berezkotasunak, estilo eta joera ezberdinak jorratzeko...

BESTE ESKOLA ETA ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN

Musika Eskolako euskal herri soinu-tresnen mintegi honek baditu beste eskola, elkarte eta erakundeekin harreman eta elkarlanak. Aspaldikoak dira Errioxako "Escuela de Gaita y tambor"ekin ia urtero, Hernanin eta Errioxako herri batean, egiten ditugun elkartrukeko topaketak. Hernanin hartu genituen Kataluniako "L'Aula de Música Tradicional i Popular" eskolako musikari eta dantzariak. Baita Asturiasko Xixongo "La Quintana" herri musika eskolako musikariak, eta handik gutxira Hernaniko Eskolakoek bisita bueltatu genien eta Xixonen entzun zuten gure musika.

Oso urrats garrantzitsua izan da, bestalde, Oiartzungo Herri Musikaren Txokoarekin sortu dugun "Herri Musika Zaleak" elkartea. Herri musika sustatzeko elkarte honen bitartez egiten ditugu, besteak beste, Hernaniko Txalaparta Festa, Albokarien Topaketa eta Txistularien jaialdietako CD eta DVDen argitalpenak.

302

IRAKASKUNTZAN EGINDAKO EKARPENA

Oso garrantzitsua izan da euskal herri soinu-tresnen irakaskuntzan Hernaniko Musika Eskolak egin duen ekarpena. Musika Eskola eta Kontserbatorioetan aspalditik irakasten direnez, soinu-tresna arautu guztiek bazituzten era bateko edo besteko irakaskuntza programazioak eginak. Gure herri soinu-tresnen artean txistua zen, Donostiako Kontserbatorioko Txistu Gelaren urtetako lanaren ondorioz, bi metodo zeuzkana, 1960ko hamarkadarako Isidro Ansorenak bi mailatan osatutako "metodoa" eta 1980ko hamarkadan Jose Inazio Ansorenak lau mailatan banaturik prestatutako txisturako metodo berria. Gure Eskolan metodo hauetan oinarritu da gure txistu irakaskuntza, baina aparte eta horietako material asko erabiliz, bertan sortu da bertako metodo partikularra.

Dultzainan ere bagenuen nolabaiteko metodoa, Iruñeko Gaiteroek hiru



301

liburutan prestatutako "Gaita oinarrizko ikasbidea". Baina kasu honetan ere, gure eskolan osatu dugu gure metodo propioa. Trikitixan, mailaz maila errepertorio egokia osatuz, ekarpen handia egin da soinu-tresna honen ikasketetan. Albokaren ikasketetan, berriz, bi arlotan egin dugu gure ekarpena: albokaren berezko arnasketa ikasteko metodologian eta erabilitako errepertorioan. Azken honetan, modu egokian, mailaz maila antolatutako ariketaz, doinu errazez, alboka errepertorio tradizional eta berriez eta bestelako errepertorioak egokituaz osatutako metodoa sortu dugu. Metodo hau epe motzean argitaratuko dela espero dugu gainera.

303

Txalapartaren inguruan egin dugu, bereziki, ekarpen garrantzitsua. 25 urtetako jarduerak, jotzeko modu tradizionaletatik abiatuz, erritmo eta joera ezberdinez osatutako errepertorio aberatsa eragin du, hasteko. Musika Eskolan klaseak ematen hasi gineneanean, berehala ikusi nuen solfeoak ez zuela balio txalapartari zaharrek jotzen zuten "ttakun ttan ttakun" erritmo aldakorra idazteko, eta berezko idazteko sistema sortu behar izan genuen. Printzipioz, idazteko sistema edo kode hori bi jolerentzat prestatu behar zen.

Bi gauzatan oinarriturik osatu nuen sistema berria: kolpeak noiz eta nolako bolumenarekin adierazteko, hots grabazioetako espektrograma batek ematen ditu distantzia eta altura, eta bi joleen kolpeak bereiztea, solfeoko notetako plika gisara, marra batean gora eta behera idatziz lor genezakeen.

Horrekin konponduta neukan kolpea noiz eman adieraztea, eta horrekin batera tenpoa eta bolumena. Geroago kolpea non eman idazteko sistema sinplea erabiltzen hasi ginen. Geziekin kolpea oholaren eskuin aldera edo ezker aldera aldatu behar den adierazten dugu eta, zein oholetan, zenbakien bitartez.

Hogei urteko bidea egin ondoren idazteko sistema hau informatizatu egin genuen. Andres Doñate informatikariak eta biok prestaketa lanak bukatu ondoren, 2007ko 21. Txalaparta Festan aurkeztu zen "Ttakun 2.1", txalaparta joaldiak idazteko programa informatikoa. Eskuz idazterakoan, zenbakien bitartez adierazten genuen zein ohol, palanka edo harritan jo behar zen, hemen marren bitartez adierazten da. Programa honek, idatzitakoa grafikoki erakusteaz gain, hots sampler bitartez idatzitakoa entzuteko aukera ematen du. Hau izan da txalaparta ikasten laguntzeko sortu dugun tresna oso erabilgarria eta lagungarria. Gaur egun txalaparta eskola askotan erabiltzen da programa hau.

Erritmo finkoko joaldi melodikoak idazteko berriz, solfeoko pentagrama arrunta erabiltzen dugu, jole bakoitzaren kolpeak plikak gora ala behera ezarrita bereizturik. Hori bai, kasu hauetan ere, partitura ez da zehatz mehatz jo behar dena, baizik eta txalapartariek, librean jotzeko, behar duten gida bat[10].

HERNANI, EUSKAL HERRI SOINU-TRESNEN URTEROKO PLAZA

Herri musikaren erreferentzia izateaz gain, urtearen data seinalatuetan Hernani herri musikako soinu-tresna joleen eta zaleen topagune eta eskenatokia da. Ikus ditzagun urtean barrena ospatzen diren jaialdi eta topaketak banan-bana.

APIRILEAN, TXISTULARI JAIALDIA

Aurreko garaietan bezala, gaur egun Hernanik txistua eta txistularien erreferentzia eta topagunea izaten jarraitzen du. Beste euskal soinu-tresnekin bezala, Musika Eskolan hasieratik saiatu ginen txistuaren inguruan honelako topaketak antolatzen, eta helburu horrekin 1988 eta 1989an, gure eskolak antolaturik, Sanjoanetako festetan ospatu ziren Hernani inguruko txistu ikasleen lehen topaketak.

304

Hala ere, txistularien topaketa hauek ez zuten hurrengo urteetan jarraipenik izan, eta urte batzuk pasa eta gero, 2005ean, Musika Eskolako Txistulari taldeak proposaturik, berriro, oraingoan helburu gehiagorekin eta maila altuagoan, Hernani txistularien topagune bihurtu nahi izan zen. Horrela, Hernaniko Udal Txistulari Bandarekin eta Euskal Herriko Txistulari Elkartearekin batera, azken sei urteetan apirilaren amaiera aldean Hernaniko Txistulari Gazteen Txapelketa eta Txistularien Jaialdia antolatu dira.

305

Bi egunez osatutako txistuaren eta txistu zaleen aldeko ospakizun honetan helburu anitza lortu da: Alde batetik, txistu eskoletako txistularien txapelketaren bitartez, txistu eskoletako

306

irakasle eta ikasleen arteko harremanak areagotu nahi izan dira eta, horretaz gain, eskoletako txistulari gazteen lehiakortasun sanoa eraginaz, hauen interpretazio maila igotzeko edo hobetzeko jarrera sustatzea. Honela, Euskal Herri osoko txistu eskoletako gaztetxoak inguratu dira txapelketa honetara: Hernani bera, Irun, Hondarribia, Pasaia, Oiartzun, Donostia, Astigarraga,

307

Urnieta, Tolosa, Azpeitia, Antzuola, Arrasate, Bera, Iruña, Tafalla, Lizarra, Gasteiz, Bilbo,... Sarituak izan edo ez, biharko txistulari onentsuenak izango diren askok Hernanin elkar ezagutu dute, eta batean edo bestean ari duten lana elkarbanatu. Saritutakoak, berriz, hauek izan dira sei urte hauetan: [ikus taula]

Bestetik, Txistularien Jaialdian talde on eta ospetsuek parte hartu dute, beren musika eta trebezia erakutsiz eta gure inguruko txistulariek elkarturik, herriko kale eta plazak goxatu dituzte.

308

Hala, aurreneko bi edizioetan, hiru txistulari talde biltzen zituen topaketa eta kontzertua gauzatu zen. Bertan izan genituen, Hernanikoez gain, Berziztu (Durango), Ardatza txistulari taldea (Iruñerria), Urretxuko txistulariak, Txalkor txistulari taldea (Azkoitia), Itsas-mendi txistulari taldea (Pasaia) eta Durangaldeko txistulariak. Topaketa hau ordea, hurrengo lau urtetan, zabaldu egin zen, nahi beste txistularik parte har zezan, eta kontzertuaren ordez dantzaldia egiten da Plaza Berrin edo udaletxeko arkupetan.

Eta, honekin batera, kontzertu bereziak ere antolatu dira; honako hauek: Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena (2007-05-04); Izeia (2008-04-11); Arozenatarrak (2009-04-24).

309

Ehunka txistulari eta txistu zale, haur, gazte, heldu eta zahar pasa dira jadanik Hernaniko jardunaldi hauetatik, eta orain duen arrakastarekin jarraitzen badute, bide luze eta oparoa egingo duela zalantzarik ez dugu.

310

MAIATZEAN, TXALAPARTA FESTA[11]

1985-1986 ikasturtean Hernaniko Udalak martxan jarri zuen gaur egun "HERNANI Musika Eskola Publikoa" dena, txalaparta eskolak ematea honen atal bat zelarik. Txalaparta eskola sortu berri hark hasiera-hasieratik izan zuen garbi bere helburua: txalaparta bultzatzea. Eta berehala ekin zien musika eta tresna honek behar zuen ezagupen, irakaskuntza eta zabalkundearen aldeko lan eta ekintzei, eskola barruan nahiz kanpoan. Horrela, klaseetako ikasketa egitaraua osatze lanez gain, besteak beste, honako jardueretan murgildu zen: batetik, eta epe motzera, eskolako aurreneko ikasle bikoteak hasi ziren inguruko herri eta auzoetan euren txalaparta saioak eskaintzen; bestetik Euskal Herriko beste eskoletan, kultur

	A Kategoria (12 urte arteko bakarlariak)	**B kategoria** (13-16 urte bitarteko bakarlariak)	**D kategoria** (taldeak)
2005			
1. saria	Jon Ansorena Mujika (Hernani)	Iñaki Palacios Moran (Gasteiz)	Donostia
2. saria	Julen Baleztena Rudi (Bera)	Peio Irigoien Boda (Bera)	San Martzial (Irun)
2006			
1. saria	Goiatz irazabal Rodriguez (Añorga)	Peio Irigoien Boda (Bera)	Txingudi (Irun)
2. saria	Martin Erro Piquero (Iruña)	Diego de Vera Diez (Irun)	Tafallako Musika Eskola
3. saria	Idoia Ansorena Mujika (Hernani)	Hasier Ollo Mendoza (Lizarra)	Uzturre (Tolosa)
2007			
1. saria	Martin Erro Piquero (Iruña)	Hasier Ollo Mendoza (Lizarra)	Izenbaiku (Bilbo)
2. saria	Alain Sorazu Agirre (Azpeitia)	Iñaki Sagardoi Leuza (Iruña)	Uzturre (Tolosa)
3. saria	Oier Sarasti Bengoetxea (Oiartzun)	Peio Irigoien Boda (Bera)	Txingudi (Irun)
2008			
1. saria	Beñat Vicario Furundarena (Antiguo)	Iñaki Sagardoi Leuza (Iruña)	Txingudi (Irun)
2. saria	Alain Sorazu Agirre (Azpeitia)	Diego de Vera Díez (Irun)	Iruñea
3. saria	Iñaki Azpeitia Olaizola (Azpeitia)	Jon Ansorena Mujika (Hernani)	Donostia
2009			
1. saria	Alain Sorazu Agirre (Azpeitia)	Jon Ansorena Mujika (Hernani)	Txingudi (Irun)
2. saria	Beñat Vicario Furundarena (Antiguo)	Diego de Vera Diez (Irun)	Maia (Iruña)
3. saria	Ainara Martínez Ramírez (Iruña)	Martin Erro Piquero (Iruña)	Leokadisti (Hernani)
2010			
1. saria	Alain Sorazu Agirre (Azpeitia)	Martin Erro Piquero (Iruña)	Iruña
2. saria	Iker Larrauri Delika (Gasteiz)	Ainara Martínez Ramírez (Iruña)	Antxieta (Azpeitia)
3. saria	Unai Montori Murillo (Azpeitia)	Iñaki Azpeitia Olaizola (Azpeitia)	Donostia Gazte

elkarteetan eta bestelako toki askotan mota eta neurri ezberdinetako ikastaroen bitartez zabaltzen zen eskolan sortu eta lantzen zena.

1986-1987ko bigarren ikasturtearen hasieran, txalaparta klaseetako irakasle eta ikasleen artean sortu zen, ordea, eskolaz kanpoko ekintza berri hau egiteko erronka. Gure helburua zabala zen: gauza, gai edo arlo bat baino gehiago jorratu eta egin nahi genituen. Txalaparta eta txalapartarien historia, inguru, funtzioa eta aurreko joerak nahiz azken garaietako bilakaera soziala eta musikala landu nahi ziren oinarriz. Bestalde, txalapartari zahar eta berrien topaketa ere sortu nahi genuen: elkar ezagutzea eta elkarrekin jotzea, bakoitzak egiten zuena besteei aurkeztea eta orokorrean txalapartarien arteko harremanak sortzea, txalapartaren onerako eta aurrera egiteko beharrezkoa izango zirelakoan geunden. Filosofia horrek markatu du edizioz edizio Txalaparta Festen egitarauen osaketa. Gero, urtez urte berrikuntzak aurkeztu badira ere, edizio gehienek ildo beretik jarraitzen dute, hau da, aurretik aipatutako txalapartaren arlo ezberdin horiek jorratzen, aztertzen eta aurkezten.

311

Zergatik bataiatu genituen jardunaldi hauek "Txalaparta Festa" izenez? Besteak beste, tradizioz txalapartak izandako festa izaera eta tresnaren kutsua berreskuratu nahi genituen. Txalaparta, kirikoketa eta toberak beti izan dira era bateko edo besteko festa inguru eta giroko ohiturak edo tresnak. Horrelakoak izan dira sagardoa egiteko lanen bukaerako festak, karea egitearen inguruko festak edo ezkontza ospakizunen inguruko festak.

Hona hemen 1987ko apirilean ospatu genuen lehen Txalaparta Festaren egitarauaren aurkezpenean egin genuen adierazpena:

TXALAPARTAREN INGURUAN:

Hernani aldea (Astigarraga, Urnieta, Lasarte, Amara, Usurbil...) "sagardoa" eta txalapartaren izpiritua, biak batera, nahiko nabari erakutsi izan duen eskualdea da. Izan ere halaxe zen, sagarra jotzeko lan gogorra burutu ondoren eta sagardo berria dastatzearekin batera, jan eta edan, jende guztiak festa giroan bizi izan ohi zuen. Hona txalapartak izan duen eta ezagutu dugun azken aldiko funtzio soziala zein izan den.

Txalaparta, garai batean, auzolanarekin (arta-zuriketa, sagar-jotze,...) eta gisa honetako beste zenbait ekintza edo lanaren inguruan egiten ziren festa-bileretan azaltzen zen. Txalaparta, nahiz eta gauza bitxi eta askorentzat exotiko bat bilakatu den gaur egun, izatez, gure herrian bete izan duen funtzio soziala berreskuratzera deiturik dago gainerako beste euskal soinu-tresna ororen pare.

Guretzat interesgarriak eta garrantzitsuak ziren txalapartak zituen funtzio, giro eta inguru berriak, baina aurretik edukitakoa galdu gabe noski, eta hori zen berreskuratu nahi zena. Festa guztiak herri topaketak izaten dira, lagunarteko elkartzea, musika,... guzti horretan oinarriturik, egokia iruditu zitzaigun txalapartarien topaketa berri hau "Txalaparta Festa" izendatzea.

Jardunaldi edo topaketa hauetan hiru atal nagusi bereiz ditzakegu: Bata, atal **teorikoa,** nolabait esatearren: mahai-inguru, hitzaldi eta antzeko jardueraz osatua. Bestea, "**Emanaldi berezia**" izenez ezagutzen duguna. Urtean zehar Euskal Herriko nahiz kanpoko txalapartari taldeek txalapartarako bereziki prestaturiko lanen aurkezpena. Azkenik, hirugarrena, festa giroan ospatzen den **Txalaparta Festa**. Euskal Herriko herrialde ezberdinetako eta kanpoko txalapartari onenen bilkura, non gazteak, helduak eta zaharrak (bizi izan diren bitartean), denak plaza eta eskenatokia elkarbanatu dituzten. Hau da txalapartaren inguruan antolatutako jardunaldi edo topaketa hauen egun nagusia. Larunbatean ospatzen da eta erabat festa giroan egiten da. Sagardoa, bertsolariak, herri erromeria gisako musika albokari, dultzainero, txistulari eta trikitilariekin, eta nola ez bada, topaketa hauetan beti protagonismoa duten txalapartariekin.

24 urte hauetan hainbat eta hainbat taldek hartu du parte festa honetan. Kalitate handiko lanak ezagutzeko eta gozatzeko aukera izan dugu bertan. Txalaparta bakarrik edota beste soinu-tresna batzuek lagunduta, baita artelan ezberdinen laguntzarekin ere, esan nahi baita dantza, antzerkia, poesia, irudiak eta abar. Urteen joanean txalaparta jole nahiz zale askoren hutsegin ezineko topaleku bihurtu dira Hernanin ospatzen ditugun jardunaldi hauek. Txalaparta Festak txalapartari eman dion oihartzuna eta bultzada handia izan da.

Urte hauetako Txalaparta festetan egindakoa, esandakoa, aurkeztutakoa eta gertatutako gehiena paper, hots eta irudi eskuarretan gorderik geratu da. Horrela sortu dira emanaldietako grabazioen kasete, KD eta irudi bilduma, azken hauek VHS eta DVD formatuetan. Material hau, txalapartarien artean, oso estimatua eta erabilia izaten da, txalaparta festetan aurkeztutakoa ezagutzeko, aztertzeko nahiz lantzeko eta txalaparta eskoletan material didaktiko gisa erabiltzeko[12].

Urte hauetan neurri handi batean bete dira gure nahiak, bai txalaparta eskola, baita Txalaparta Festa bezala ere. Ikus dezagun atalez atal egindako edizio hauetan gertatutakoa:

Alde teorikoak: mahai inguruak, hitzaldiak, azalpenak,...

Txalapartaren inguruko gai ezberdin asko jorratu eta aurkeztu dira: txalapartari zaharren agerpenak, zahar eta berrien arteko mahai inguruak, txalapartaren aldaera den "Lesakako toberak" izeneko joeraren aurkezpena, txalapartaren azterketa akustikoa, azterketa erritmikoa, txalapartaren erabilpen terapeutikoa, txalaparta eskolen aurkezpenak, txalaparta lan berrien aurkezpen teorikoak, txalaparta ikus-entzunezko euskarrietan, joera ezberdinen erakusketa, txalapartaren azterketa historiko eta etnografikoa, musikala, poetiko eta filosofikoa, eta abar.

- 1. Txalaparta Festa (1987): Udaletxeko Areto Nagusian, bi txalapartari belaunaldi elkartu genituen mahai inguru batean. Alde batetik Pello Zuaznabar txalapartari zaharra eta bestetik Jesus Arze eta Juan Mari Beltran txalapartari berriak.
- 2. Txalaparta Festa (1988): Bigarren edizio honetan ez genuen mahainguru edo hitzaldirik antolatu, bere ordez perkusio emanaldi berezia antolatu genuen.
- 3. Txalaparta Festa (1989): Hitzaldia antolatu genuen, hizlaria Ramon Goikoetxea Astigarragako txalapartari zaharra zelarik.

312

- 4. Txalaparta Festa (1990): "Toberak" joera edo ohiturari buruzko hitzaldia izan genuen. Gai hori aurkezten Dionisio Mujika izan genuen hizlari, eta zuzenean toberak jotzen Lesakako Dionisio Mujika aita-semeak.
- 5. Txalaparta Festa (1991): Mahainguru: "Txalapartarien bide berriak". Partaideak: Jesus Arze, Fernando Auzmendi, Koldo Sorzabalbere (Irungo Txalapartariak), Juan Mari Beltran (Hernaniko Txalaparta Eskola).
- 6. Txalaparta Festa (1992): Hitzaldia: "Txalaparta: Euskal erritmoa eta soinu era" Josu Goirik eskainia (Arrigorriagako KONTRAPLAS Taldekoa).
- 7. Txalaparta Festa (1993): Bideo emanaldia eta argazki erakusketa: "TXALAPARTA FESTA SEI URTETAN". Aurreko sei txalaparta Festetako "kronika".
- 8. Txalaparta Festa (1994): Bideo emanaldia: "Inside / barnealdea" (Josu Goiri eta Jose Antonio Astobiza), "Beste misterioak" (Belen, Izaskun eta Josu Goiri), "Txalaparta Zalapartaka" (BETI ALAI taldea) eta "7. txalaparta festa".
- 9. Txalaparta Festa (1995): Hitzaldi teoriko-praktikoa "El ritmo, motivo y consonancia[13]". Hizlaria: Francisco Javier Sánchez González.

313

- 10. Txalaparta Festa (1996): Hitzaldia: "Hernaniko Txalaparta Eskolak 11 urte[14]". Juan Mari Beltran Argiñena.
- 11. Txalaparta Festa (1997): "Txalaparta y musicoterapia" Aitor Loroño sendagile bizkaitarraren eskutik.
- 12. Txalaparta Festa (1998): Hitzaldia: "Una teoría numérica del ritmo aplicada a la Txalaparta[15]", Francisco Javier Sánchez Gonzálezek (CSICeko aditua) eta Juan Mari Beltranek egindako ikerketa lanaren aurkezpena.
- 13. Txalaparta Festa (1999): "Kirikoketa eta Ote-jotzea, txalapartaren bi aldaera zaharrak" Hitzaldi-joaldia. Juan Mari Beltran eta Arizkungo txalapartariak.
- 14. Txalaparta Festa (2000): Zugarramurdi txalaparta taldeak eskainitako hitzaldia: Sestaoko txalaparta eskolaren esperientzia.
- 15. Txalaparta Festa (2001): Hitzaldia: "Txalapartaren joera berriak". Oreka TX txalaparta taldeak.
- 16. Txalaparta Festa (2002): Hitzaldia: "Txalapartaren barne sentipena". Josu Goiri.
- 17. Txalaparta Festa (2003): Hitzaldia: "Ibarrean zeharka-meharka, mendian gora eta behera". Joxanton Artze.

314

- 18. Txalaparta Festa (2004): 17. Txalaparta Festa DVD formatuan. Txalaparta festa kasetetan gordetzen hasi ginen, gero VHS eta CD formatuetan, ondoren DVDra pasa eta emanaldi hau izan zen horren froga.
- 19. Txalaparta Festa (2005): "Euskal Herriko Bihozkada" Txalaparta erakusketa multimediaren aurkezpena.
- 20. Txalaparta Festa (2006): "20 Txalaparta Festen ekarpena" hitzaldi-irudi emanaldia. Hitz eta irudien bitartez txalaparta festen "inbentario" orokorraren aurkezpena Juan Mari Beltran eta Kepa Ugarteren eskutik.
- 21. Txalaparta Festa (2007): Juan Mari Beltran txalapartaria eta Andres Doñate informatikoak prestatutako Ttakun Txalaparta joaldiak idazteko programa informatikoaren *Ttakun 2.1* bertsio berriaren aurkezpena eta 20. Txalaparta Festaren DVD Emanaldia.
- 22. Txalaparta Festa (2008): Oreka TX taldeko Harkaitz Martinez de San Vicente eta Igor Otxoaren eskutik "Nomadak TX" filmaren aurkezpena.
- 23. Txalaparta Festa (2009): Txalaparta gaitzat hartzen duen "Hotsez Hots" margo eta eskultura erakusketaren

aurkezpena Jose Luis Elexpe "Pelex" egilearen eskutik.

- 24. Txalaparta Festa (2010): Juan Mari Beltranen "Txalaparta" izenburu duen liburu-CD-DVD proiektuaren aurkezpena. Ekitaldi honetan argitalpen honentzat prestatutako "ttakun ttan ttakun" zuzeneko emanaldiaren zati batzuk eskainiz.

Txalaparta Emanaldi Bereziak

Txalaparta Festaren bigarren edizioan hasi ginen Emanaldi Berezia deituriko atala antolatzen. Honekin gure helburua bikoitza zen: alde batetik lanean ari ziren alde guztietako txalapartari taldeak animatu edo bultzatu nahi genituen lan berriak prestatu eta bide berriak jorratzera, eta bestetik txalapartarekin egindako eta egiten ari ziren saiakera eta lan berri horiek jendearen aurrean gauzatu ahal izateko plaza eskaintzea. Horrela, ospatu diren 24 edizio hauetako egitarauan ikus daitekeen bezala, hamaika motatako lan berri eta saio berritzaileak aurkeztu izan dira, gehienak Txalaparta Festaren eraginez sortu direlarik. Zoritxarrez, ordea, proiektu eta lan interesgarri horiek askotan ez dute beste plazarik eduki eta Txalaparta Festaren Hernaniko plazan izan zuten euren hasiera eta bukaera. Dena dela, ezin da ukatu bertako oholtza eta eskenatokietan ikusi eta entzun dugunaren garrantzia eta aberastasuna.

Urtez urteko egitarauetan ikus daitekeenez, edizioz edizio, txalaparta taldeak osaketa, forma, estilo eta joera ezberdinetan agertu dira, eta horren arabera lan eta proiektu oso ezberdinak aurkeztu izan dira: txalaparta banaka, binaka, hirunaka, launaka eta talde handiagoetan jo da; txalaparta osatzeko, hasierako eta oinarrizko zura eta altzairuzko palankaz gain, hots berrien erabilpenaren bilakaeran material mota ezberdinez egindako txalapartak ikusi eta entzun ditugu; joera zaharrekin batera bestelako hamaika erritmo berri entzun dira txalaparta festaren oholtzetan; txalaparta hotsa hutsik eta honekin batera ahotsa eta beste soinu-tresna mota askorena entzun da (haizezkoak, sokazkoak, perkusiozkoak, elektronikoak, digitalak eta abar); musika joera askotan entzun dugu txalaparta (txalapartaren musika tradizionala, folk, pop, "salsa", rocka, musika berriak, rap, musika elektronikoa eta diskoa); beste arte motekin batera prestatutako zenbait lan ere izan dira (dantzarekin, antzerkiarekin, mimoarekin, poesiarekin, ipuin kontalariekin);...

- 2. Txalaparta Festa (1988): Bigarren edizio honetan, bi zatitan banaturik, txalaparta eta perkusio talde baten saio berezi bat antolatu genuen. Lehen zatian Hernaniko Txalaparta Eskolako Javi Morcillo eta Karlos Torres bikoteak eskolan landutako eta prestatutako joera zahar eta berriez osatutako saio on bat eskaini zuten. Bigarren zatian, Donostiako Musika Kontserbatorioko Perkusio Taldeak erritmo ezberdin askotako saioa aurkeztu zuen.
- 3. Txalaparta Festa (1989): Koldo eta Xabier Irungo Txalapartariek argia eta iluntasunarekin jokatuz txalaparta saio berezi eta aberatsa eskaini zuten. Hernaniko Eskolako taldeak, Josanton Arzeren "Basurdea" poesian oinarriturik, Juan Mari Beltran txalapartariak eta Txaro Unzilla dantzariak prestatutako "Basurdea saguzarrez inguraturik" emanaldia aurkeztu zuen, Arzeren poesiak aurkezten duen historia hunkigarri eta bortitza musika, dantza eta mimoarekin jantziz (eta noski, txalapartaz).
- 4. Txalaparta Festa (1990): Irungo Txalapartarien "Inprobisazioa" (Txalaparta eta dantza). "Gerla Beti" txalaparta taldea eta "Bekereke" antzerki taldearen "El vendedor de espejismos" (Txalaparta eta antzerkia)
- 5. Txalaparta Festa (1991): "Pelotari" izeneko txalaparta eta antzerki emanaldia. Agerre Teatroa eta Oreretako Jimi eta Ibon txalapartariak.
- 6. Txalaparta Festa (1992): Txalapartak dantzarekin eta beste erritmo eta soinu desberdinekin bat egiten zituen hiru saio: "ELKARLANEAN I", Ni eta Gu taldea (Sergio Lamuedra eta Xabier Amilibia txalapataz, Isaac Oiartzabal perkusioaz, eta Iñigo Monreal gitarraz); "SAIAKERA" (Joxan Goikoetxea sintetizadoreez, eta Juan Mari Beltran eta Juanma Vicente txalapartaz); "ZALANTZAKETAN" Txaro Unzilla eta Juan Mari Beltranen muntaia (Txaro Unzilla eta Jaione Zapiain dantzan, Sergio Lamuedra eta Xabier Amilibia txalapartaz, eta Joxan Goikoetxea akordeoiaz, Ikaroren jantzi eta eszenografiaz).

315

- 7. Txalaparta Festa (1993): Kontraplas taldearen "Txalaparta, sua eta ura" emanaldia. Lau txalaparta, alboka, sua, argiak, itzalak, irudiak eta bestelako osagaiez egindako saioa.
- 8. Txalaparta Festa (1994): Sestaoko Zugarramurdi taldearen "Jaiotzea". Txalaparta, poesia, dantza, antzerkia, eszenografia, eta beste soinu-tresnak.
- 9. Txalaparta Festa (1995): "Zurzuribai" ipuia Antoni Ripollen eskutik. (Antoni Ripoll kontalari; Xabier Amilibia, Iñigo Monreal, Sergio Lamuedra eta Juanma Vicente txalapartari; Juan Mari Beltran alboka, txanbela eta gaitaz; Mendi Gorostiaga kantuan).
- 10. Txalaparta Festa (1996): "Munduaren beste aldea" Etzak Etsi!! taldearen eskutik. Hala zioen aurkezpenak: *"Munduaren Beste Aldea: Gizarteak esku-luzez gure buruaren ideologo bihurtu ondoren, jatekoak eta edatekoak ematen digu, eta guk hartu eta hartu, behartu. Azkenean behartuta sentitzeak, gure barnealdea pizten du, sentikera desberdin bateko aldea... Munduaren Beste Aldea, pertsona baten barne mugimenduen adierazpena azaldu nahi du, horretarako lau txalapartaren hotsa eta teklatu baten soinua sartzea erabaki dugu."*

- 11. Txalaparta Festa (1997): "Txakun" taldea. Honen aurkezpenak, berriz, honela: *"Taldearen asmoa ikuskizun mugagabeko eta mugikor bat egitea da. Txalaparta Festarako, mugagabeak erran nahiko du txalaparta bertze musika tresnen mailan izango dela eta edozein musika jotzen ahalko dugula. Mugikorrak esan nahiko du gauza ezberdin bat egiten saiatzen garela kontzeptu batzuen laguntzarekin. Txalapartaren erritmoarekin (Txakun-Errena) bertze tresna batzuk jotzen ahal dira (perkusioak, marimbak, tumbak, djembe ta bertze... Txalapartak MIDI edozein soinu eman dezake... Ordenagailuak ezin dute txalaparta eta espresioa mugatu..."*
- 12. Txalaparta Festa (1998): "Amuteko Txalaparta Eskola" Irungo txalaparta taldeak prestatutako emanaldi berezia, estresa, arnasa, natura, jolasa, ahotsa eta musika zituelarik gai sei esketx labur elkartuz istorio bat osatzeko. Bestalde, larunbateko jaialdian Hernaniko eskolako Ttakun Ttan Ttakun taldeak alboka, adarrak eta dantzarekin osatutako saio berezia eskaini zuen.
- 13. Txalaparta Festa (1999): Batetik, "txalaparta eta piano emanaldia" Jesus Arze eta Iñaki Salvadorren eskutik. Bestetik, Kirikoketa txalaparta taldearen "Sakanatik Arbaila Ttipira" diskoaren aurkezpena.

316

- 14. Txalaparta Festa (2000): Madrilgo Txalaparta Eskolako "ZUR-E GURA" txalaparta-jazz taldea.
- 15. Txalaparta Festa (2001): Txalaparta, bestelako perkusioak eta dantzek osatutako emanaldi berezia, Gasteizko "Txalamako" taldeak eskainia. Larunbateko jaialdian Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun taldeko J.M. Beltran, I. Monreal eta F. Ugarte hirukoteak, hiruko ote-jotzea eta horretan oinarritutako hirunakako txalaparta saioak aurkeztu zituzten.
- 16. Txalaparta Festa (2002): Bi emanaldi. Lehenik, Zurartean txalaparta taldea (Sergio Lamuedra, Odei Lizaso eta Mikel Ugarte txalapartaz, Javier Area bateriaz, Ainhoa Izagirre alboka eta txistuaz, eta Iban Nikolai didgeridu, teklatu eta biolinaz). Ondoren, Ttakun Ttan Ttakun eta Kukai dantza taldearen "Arditurrin dantzan", Jon Maiaren koreografia eta Juan Mari Beltranen musikaz (Kukai taldea: Jon Maia, Alain Maia, Eneko Gil, Ibon Huarte, Urko Mitxelena, Vanesa Castaño, eta Nerea Vesga; Ttakun ttan takun: Juan Mari Beltran, Iñigo Monreal, Felipe Ugarte, Iñigo Lurgain eta Aitor Gabilondo).
- 17. Txalaparta Festa (2003): Aztarnak Kolektiboaren "Denbora". Txalaparta, biolina eta ahotsa erabiliaz, lau zatitan bereizitako emanaldia: jaiotza, haurtzaroa eta gaztaroa, heldutasuna, eta zahartzaroa eta heriotza. Txalaparta, biolina eta ahotsa.
- 18. Txalaparta Festa (2004): Bringanthya. 2000. urtean sortutako folk-rock taldea zen hau, zeltiar doinuak jotzen zituzten hamar musikariz osatua, eta txalaparta zuena perkusio nagusitzat abesti gehienetan.
- 19. Txalaparta Festa (2005): Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa (Urretxu). Txalaparta mota askotako musikaz: doinu herrikoiak, dantzak, rap, rock, brasildar capoeira,... Urretxuko Lurra dantza taldea, Garikoitz Lizarraga trikitilaria, Gorka Hermosa akordeoi jolea eta dantzari garaikideak zituzten lagun. Bestalde, larunbateko jaialdian Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun taldeko J.M. Beltran, I. Monreal, A. Barrenetxea eta A. Beltran laukoteak lauko ote-jotzea eta horretan oinarritutako launakako txalaparta saioak aurkeztu zituen. Kaskanteko "Txalapartarik" taldeak ere txalaparta eta txotxongilo saio berezia eskaini zuen.
- 20. Txalaparta Festa (2006):Ttakunpa taldearen emanaldia. Txalaparta abiapuntutzat harturik, kultura ezberdinetako (Afrika, Kuba, Andaluzia,...) doinu berezi eta ezberdinak, dantza afrikarretan oinarritutako koreografiez.

317

- 21. Txalaparta Festa (2007): Tarragonako "Txala" taldearen Txalaria diskoaren aurkezpena.
- 22. Txalaparta Festa (2008): "Sestaoko Tx Eskola" taldea, Ezpala eta Amazur. "Hiru ipuin, liburu bakarra"
- 23. Txalaparta Festa (2009): "Munduko Beat", musika etno-elektronikoa (elektronika zuzenean eta fusioa). "Madrilen txalaparta" Madrilgo txalaparta taldearen emanaldia.
- 24. Txalaparta Festa (2010): "Harresian Zulo" Gasteizko txalaparta taldearen emanaldia, Euskal Herriko eta Afrikako herri erritmoak, dantzak eta musikak nahasten zituena.

Txalaparta Festa

Antolatu izan diren Txalaparta Festaren edizio ezberdinetan barrena, guztira ehun txalapartari berri baino gehiago aritu dira larunbateko emanaldietan. Batzuk behin bakarrik agertu dira eta beste askok urtetan parte hartu dute talde batean edo bestean. Adin guztietako txalapartariak, emakumezko nahiz gizonezkoak, Euskal Herriko eskualde gehienetakoak, atzerrikoak, herri txikietakoak nahiz hiri handikoak, musika eskoladunak bezalaxe eskola gabekoak ere,...

Jaialdi hauetan, hasieran, saio gehienak sinpleak izaten ziren, baina gero eta saio osatuagoak eta landuagoak aurkeztu izan dira. Parte hartu duten txalapartariek listoi edo maila oso altua jarri dute eta askotan gertatu da, mailari gagozkiola, alde nabarmenik ez

izatea bezperako emanaldi berezien eta larunbateko jaialdian aurkeztutako saio batzuen artean. Aipa ditzagun jaialdi horietan parte hartu izan duten txalapartari eta txalaparta taldeak:

- 1. Txalaparta Festa (1987): Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea, adar jolea Joseba Zuaznabar. Joseba Zuaznabar eta Amaia Zuaznabar. Basurtoko Beti Jai Alai. Koldo eta Xabier Sorzabalbere Irungo Txalapartariak. Jesus Arze eta Juan Mari Beltran, Javi Morcillo eta Karlos Torres (Hernaniko Txalaparta Eskola). Txomin eta Ramuntxo Hazparneko txalapartariak.

318

319

- 2. Txalaparta Festa (1988): Pello Zuaznabar eta Pello Uranga, adar-jolea Joseba Zuaznabar. Pello Zuaznabar, Amaia Zuaznabar eta Isabel Zuaznabar. Iruñeko Ortzadar taldea. Arabako Gerla Beti taldea. Bizkaiko Beti Jai-Alai taldea. Hazparne-Azkaineko Ramuntxo eta Txomin. Hernaniko Txalaparta Eskola Eskolako Javi eta Karlos. J. Arze eta J. M. Beltran. Koldo eta Xabier Irungo Txalapartariak.

320

- 3. Txalaparta Festa (1989): Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea. Pello Uranga Zuaznabar eta Amaia Zuaznabar. Iruñeko Ortzadar Taldeko txalapartariak. Hernaniko Txalaparta Eskola (Migel eta Patxi Monreal). Hernaniko Portu auzoko "toberak" (joleak Endika Zubeldia eta Jose Angel Redondo). Hazparneko txalapartariak (Ramontxo eta Txomin). Arabako Gerla Beti taldea.

321

- 4. Txalaparta Festa (1990): Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea. Basurtoko "Beti Jai Alai" taldeko txalapartariak. Iruñeko "Ortzadar" taldeko txalapartariak. Hernaniko eskolako txalapartariak (Juanma Vicente eta Javi Morcillo). Koldo eta Xabier Irungo txalapartariak. Arabako Gerla Beti txalaparta taldea.
- 5. Txalaparta Festa (1991): Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea. Pello Zuaznabar, Pello Uranga eta Amaia Zuaznabar. Arrigorriagako "Kontraplas" Taldea. Iruñeko "Ortzadar" taldea. Hernaniko Txalaparta Eskola (Juanma Vicente eta Juanjo Elordi). Koldo eta Xabier Irungo Txalapartariak. Araiako "Gerla Beti" Taldea.
- 6. Txalaparta Festa (1992): Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea. Arrigorriagako "Kontraplas" taldea. Araiako "Gerla Beti" taldea eta Magdalena dantzaria. Irungo Txalapartariak (Xabier eta Koldo). Mikel eta Xabier Iruñeko txalapartariak. Hernaniko Txalaparta Eskola (Pello Ruiz de Arregi eta Pilartxo Auzmendi).
- 7. Txalaparta Festa (1993): Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea. Lekeitioko "Aittitta Txiki" taldea. Xabier eta Koldo Irungo Txalapartariak (trikitixa eta xirularen laguntzaz). Araiako Gerla Beti taldea. Faltzeseko Txalapartariak (Rafa eta Koldo). Hernaniko Txalaparta Eskola (Xabier Amilibia, Xabier Alberdi, Ibon Zabala, Iñigo Monreal eta Juan Mari Beltran)
- 8. Txalaparta Festa (1994): Pello Zuaznabar, Ramon Goikoetxea eta Pello Uranga. Sestaoko "Kolpez Kolpe" bikotea. Faltzeseko txalapartariak. Koldo eta Xabier Irungo Txalapartariak eta Irungo txalapartari gazteak. Hernaniko txalaparta eskolako Ttakun Ttan Ttakun taldea (Iñigo Monreal, Xabier Amilibia, Arkaitz Martinez eta Juan Mari Beltran) Donostiako Udal Dantza Eskolako dantzariekin (Nazioarteko Dantza Egunerako Donostiako Easo Plazan prestatutako emanaldia). Arabako Gerla Beti taldea eta Gerla Beti taldeko haur txalapartariak. Iparraldeko Txomin eta Pascal.
- 9. Txalaparta Festa (1995): Pello Zuaznabar, Ramon Goikoetxea, Pilar Goikoetxea eta Juan Mari Beltran. Xabier eta Koldo Irungo txalapartariak. Hernaniko Eskolako Ttakun Ttan Ttakun taldea (Iñigo Monreal, Sergio Lamuedra, Juanma Vicente eta Arantxa Ansa). Sestaoko "Kolpez Kolpe" txalaparta taldea. Arabako "Huts Hots" txalaparta taldea. Faltzeseko txalapartariak (Koldo eta Rafa). Donibane Garaziko Filipe eta Mikel.

322

- 10. Txalaparta Festa (1996): Pello Zuaznabar, Ramon Goikoetxea eta Pilar Goikoetxea. Artze anaiak. Beltran anaiak. Hernaniko Udal Musika Eskolako Ttakun Ttan Ttakun taldea (txalaparta, gitarra, alboka, dultzaina, dantza, abeslariak, teklatua, antzerkia...: Odei Lizaso, Beñat Aldaregia, Arkaitz Martinez, Xabier Amilibia, Iñigo Monreal,....), Lekeitioko txalapartariak. Arabako "Huts hots" txalaparta

taldea. Faltzeseko txalapartariak (Rafa eta Koldo eta Faltzeseko txalapartari gazteak). Usurbilgo "Kirikoketa" txalaparta taldea. Donibane Garaziko txalapartariak.

- 11. Txalaparta Festa (1997): Pello Zuazabar eta Ramon Goikoetxea (hau izan zen gure txalapartari zahar hauek Txalaparta Festan egindako azken parte hartzea). Araiako Txalaparta Eskola trikitixa eta panderoarekin. Bizkaiko "Etzak Etsi" txalaparta taldea. Koldo eta Xabier Irungo Txalapartariak. Hernaniko Txalaparta Eskola (Sergio Lamuedra, Felipe Ugarte, Odei Lizaso, Amaia Intxaurburu, Arantxa Ansa eta Arantxa Lasalde). Txalaparta eta bertsolarien saio berezia (txalapartariak: J. M. Beltran eta J.M. Vicente). Faltzeseko txalapartariak.
- 12. Txalaparta Festa (1998): Koldo eta Xabier Irungo txalapartariak. Hernaniko txalaparta eskolako Ttakun Ttan Ttakun taldea (Iñigo Monreal, Felipe Ugarte, Juan Mari Beltran, Arantxa Ansa, Maddi Zumalabe, Mikel Olabide, Mikel Salaberria, Ioritz Aldabe eta Ekhi Oñate). Tuterako txalapartariak. Iparraldeko "Txakun" txalaparta taldea (Txomin eta Paxkal). Bizkaiako "Kontraplas" txalaparta taldea.
- 13. Txalaparta Festa (1999): Arabako Maria, Osses eta Sua: "Sorgin Festa". Bizkaiko "Amabostmilla gogo" Santutxuko txalaparta taldearen "Enborra" ikuskizuna (antzerkia eta txalaparta). Iparraldeko BTT (Baigorriko txalaparta taldea). Baztango txalapartariak (Kirikoketa joaldiak). Gipuzkoa eta Arabatik Jimi eta Perdi (Txalaparta eta DJ batera). Hernaniko txalaparta eskolako Ttakun Ttan Ttakun taldea (Odei Lizaso, Beñat Iturrioz, Sergio Lamuedra, Juanma Vicente, Arantxa Ansa eta txalapartari txikiak: Maddi Zumalabe, Iñigo Gorrotxategi, Ekhi Oñate eta Ioritz Aldabe).
- 14. Txalaparta Festa (2000): Goikoetxeatarrak: Simon eta Aritz Goikoetxea, Gasteizko "Ttukunak" taldea. Iparraldeko BTT (Baigorriko Txalaparta Taldea). Leitzako Txalapartariak. Barakaldoko "Hala dzipo" taldea. Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun taldea (Goiatz Legarreta, Ainhoa Arraras, Felipe Ugarte eta Imanol Ugarte).
- 15. Txalaparta Festa (2001): Goikoetxeatarrak (Simon eta Aritz). Arabako Txalamako Taldea. Iparraldeko txalapartariak (Paskal eta bikote berria). Nafarroako UTT (Uharteko Txalaparta Tailerra). Sestaoko Zugarramurdi txalaparta taldea. Urretxuko Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa. Hernaniko eskolako Ttakun Ttan Ttakun (hiruko ote jotzea eta txalaparta hirunaka: Juan Mari Beltran, Iñigo Monreal eta Felipe Ugarte. Haurrak: Maddi Zumalabe, Ekhi Oñate eta Ioritz Aldabe). Hernaniko Zurartean taldea.
- 16. Txalaparta Festa (2002): Zuaznabartarrak (Mari Karmen Zuaznabar, Pello Uranga Zuaznabar, Amaia, Isabel Zuaznabar, Joseba Zuaznabar eta Bixente Beltran). Arabako Zigoitiako Txukkun txalaparta taldea. Urruñako txalapartariak. Errotxapeako Jotakun taldea. Durangoko txalapartariak. Txalapartari berriak. Hernani Musika Eskolako Ttakun Ttan Ttakun (Iñigo Monreal eta Felipe Ugarte).
- 17. Txalaparta Festa (2003): Amaia eta Isabel Zuaznabar, Mari Karmen Zuaznabar eta Pello Uranga. Simon eta Aritz Goikoetxea, Simon Goikoetxea eta Josanton Artze. Juan Mari eta Bixente Beltran. Gasteizko "Kolpez kolpe" Txalaparta taldea eta "Burrunba" perkusio taldea. Ziburuko Txalaparta Eskola. Uharteko "Zurgune" txalaparta taldea. Sestaoko Zugarramurdi txalaparta taldea. Jexux Artzeren talde izandako Usurbilgo "Kirikoketa" taldea. Hernani Musika Eskolako Ttakun Ttan Ttakun (Iñigo Monreal eta Ander Barrenetxea. Haurrak: Ekhi Oñate eta Ioritz Aldabe).
- 18. Txalaparta Festa (2004): Simon Goikoetxea eta Olatz Aramendi. Amaia eta Isabel Zuaznabar. Iparraldeko txalapartariak (Baiona). Txantreako "Txantxata" taldea. Urretxuko Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa. Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun (Ane eta Lara bikotea). Gasteizko "Txalaberri" taldea. Bizkaiko "Kontraplas" talde berria.
- 19. Txalaparta Festa (2005): Hernaniko eskolako Aitor Iraola eta Ander Zabala bikotea. Simon eta Aritz Goikoetxea. Mari Karmen eta Amaia Zuaznabar. Isabel eta Amaia Zuaznabar. Kaskanteko "Txalapartarik" txalaparta eta txotxongilo taldea. Bizkaiko "Zur'ta Harri" txalaparta taldea. Hernani Eskolako Ttakun Ttan Ttakun txalaparta taldea (launaka). Hondarribiko "Tukutun" txalaparta taldea. Gasteizko "Txalapunk" txalapartariak.
- 20. Txalaparta Festa (2006): Zuaznabartarrak eta Goikoetxeatarrak. Donapaleu eta Baigorriko txalapartariak. Sestaoko Zugarramurdi txalaparta eskola. Nafarroako UTT (Uharteko Txalaparta Tailerra). Arabako txalapartariak. Koldo eta Xabier Irungo txalapartariak. Usurbilgo "Kirikoketa" taldea. Hernani Eskolako Ttakun Ttan Ttakun.

323

- 21. Txalaparta Festa (2007): Hernaniko eskolako haurrak (Irati, Nagore, Aitor eta Ander: Tikitaka, Ttakun ttan ttakun eta kirikoketa joaldiak). Mari Karmen Zuaznabar eta Pello Uranga. Ixabel eta Amaia Zuaznabar. Erbetegi-Etxeberriko Simon Goikoetxea eta Ramon Izeta. Bernat Etxepare lizeoa, Baiona eta Ziburuko txalaparta taldea (Itxaro Bordaren "Neanderthal ametsak" poesiarekin prestatutako saioa). Gipuzkoako "Zorabiok" taldea. Arabako "Harresian zulo" taldea. Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun (Iñigo Monreal eta Felipe Ugarte). Antsoaingo Txalapartariak. Bizkaiko "Anandalan 3.1" taldea.
- 22. Txalaparta Festa (2008): Simon Goikoetxea, Ramon Izeta, Aritz Goikoetxea, Isabel Zuaznabar, Amaia Zuaznabar eta Mari Karmen Zuaznabar. Simon Goikoetxea eta Juan Mari Beltran. Juan Mari eta Bixente Beltran. Ander Barrenetxea, Aitor eta

Juan Mari Beltran. Arabako Txalamako taldea. Amikuzeko Kirikittun taldea. Bianako Txakozu txalaparta taldea. Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun taldea. Sestaoko Txalaparta Eskola.

324

- 23. Txalaparta Festa (2009): Joseba Zuaznabar, Amaia Zuaznabar, Pello Uranga Zuaznabar eta Isabel Zuaznabar. Simon eta Aritz Goikoetxea. Iparraldeko txalapartariak. Leioako txalapartariak. Gallartako txalapartariak. Baztango "Jo ala Jo" txalaparta taldea. Asier eta Daniel Gasteizko txalapartariak. Andoaingo Txalaparta eskola. Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun taldea. Madrilgo "Madrilen Txalaparta" taldea.
- 24. Txalaparta Festa (2010): Zuaznabar eta Goikoetxea txalapartari familietako txalapartariak. Hernani Musika Eskolako Ttakun Ttan Ttakun" taldea eta saxo boskotea (Juan Mari Beltranen Ttakun ttan ttakun ikuskizuneko zati bat eta bi doinu: Sorgin Etxean eta Txoria Txori). Gipuzkoa eta Bizkaiko "Bizpalau" taldea (Sergio Lamuedra, Sendoa Gómez, Jaione eta Eneko Abad). Gasteizko "Txalamako" taldeko txalapartariak. Nafarroako Flakutt txalaparta taldea.

Txalaparta Party Aparta

1997. urtean ospatutako 11. Txalaparta Festaren esku-programan agertzen ez bazen ere, gure eskolako zenbait txalapartari gaztek proposatu eta antolaturik Txalaparta Party Aparta izena hartuko zuen atal berri bat jarri zen martxan. Disko-saioaren giroan jarri nahi izan zen txalaparta, eta gazteen artean arrakasta handia izan du geroztik. Hargatik, tokiz aldatuz, baina urtetik urtera hutsik egin gabe, Txalaparta Festaren egitarauaren parte izan da.

Txalapartaldi libreak

Txalaparta Festara inguratzen diren txalapartarien arteko harremanak areagotu nahian eta jatorri eta eskola ezberdinetako txalapartarien arteko joaldiak eragin nahian, eta helburu horrekin, 1996an ospatutako 10. Txalaparta Festak beste urrats bat eman zuen egitarauan laugarren eguna jarriz. "Txalapartaldi libreak" deitu zitzaion atal berri honen lehen edizioa Harriatsu ikastolan ospatu genuen, igande arratsaldez. Lehenengo lau urteetan, larunbateko jaialdia berandu samar bukatuta, iganderako txalapartari gutxi geratzen zela ikusirik, 2000ko 14. Txalaparta Festatik aurrera "txalapartaldi librea" larunbatez ospatu da. Horrela, egitarauaren atal hau larunbat arratsaldeko 18:30etik afaria hasi arte eta txalaparta jaialdi handia

325

egiten den toki berean ospatzen da. Honela, txalapartarien parte hartzea askoz handiago izan da eta "txalapartaldi libreak" oso arrakastatsuak izan dira. Urtero, jatorri eta eskola ezberdinetako txalapartariak, txandaka, eten gabe aritzen dira jotzen. Taldekideen saioak eta talde ezberdinetako bikoteen saioak, denak interesgarri eta atseginak izaten dira, eta beste talderen bateko txalapartariekin batera jotzea, bereziki, oso esperientzia aberasgarria.

Txalaparta Tailerrak

2004ko 18. Txalaparta Festan, Hernani Musika Eskolan, lehen Txalaparta Tailerra antolatu genuen. Txalaparta festa jada oso errotutako topagunea zen, bikoteka edo taldeka, urtean zehar txalapartaz lantzen duguna ezagutzeko leku, eta horren haritik zetorren proposamen hau. Hernaniko musika eskolan txalaparta ariketa ezberdinak lantzeko aukera izan genuen, eta bertan proposatu ziren ariketak aldez aurretik prestatuta bagenituen ere, denon artean osatutako tailerra izatea lortu genuen.

2006ko 20. Txalaparta Festan beste tailer mota bat antolatu genuen: txalaparta eskoletarako prestatutako programa informatikoaren aurkezpena, Juan Mari Beltran Hernaniko txalaparta irakaslea eta Andres Doñate informatikoaren eskutik.

Omenaldiak

Besteak beste Txalaparta Festa omenaldietarako plaza ere izan da. 10. Txalaparta Festan (1996) Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea txalapartari zaharrei egin zitzaien omen. 14. Txalaparta Festan (2000) Erbetegi-Etxeberriko Asentsio eta hil berria zen Ramon Goikoetxea txalapartari izandakoei. 16. Txalaparta Festan (2002) Pello Zuaznabar 2001ko urriaren 30ean zendu zela eta, Sausta Baserriko txalapartari zahar honek erakusteko eta laguntzeko gurekiko beti izan zuen jarrera kontuan hartu eta eskertu nahirik, Migel eta Pello Zuaznabar anaiak omendu zituen. 17. Txalaparta Festa (2003) Jexus Artzeren oroimenez eta omenez ospatu zen, 2002ko maiatzaren 3an zendua, txalapartaren bilakaeraren aro berriaren protagonista nagusienetakoa izan baitzen berau[16].

EKAINEAN, DULTZAINEROEN SAN JOANETAKO TOPAKETA

Ekainean dultzaineroak elkartzeko parada izaten da. 1988an hasi ziren eskolako dultzaineroak San Joan festetan

parte-hartzen. Dultzaina taldearen jardueren artean, ekainaren 24 gauean afaltzera elkartu eta afaldu ondoren kalez kale jotzera ateratzea ezarri zen. Eta hasieratik, arrakasta handia eduki zuen dultzaineroen eskaintza honek: aurreneko urteetako errepertorio txiki hura hamaika aldiz errepikatuta ere, jende multzo handia izaten genuen gure atzetik saltoka eta dantzan. Geroago, urte gutxira, taldean egun horren egitarauan beste ekitaldi bat antolatu zuen: gaueko hamabiak aldera, Plaza Berrin, herri dantzak eta Larrain-dantza. Geroztik, urtero urtero, hutsik egin gabe elkartu gara ekitaldi horretan, eta Hernaniko eskolako dultzaineroen topagune zena, denboraren poderioz, Donostialde guztikoena bilakatu zen (Pasaia, Errenteria, Donostia, Oiartzun, Astigarraga, Andoain,...).

IV/oarso-bidasoa egin

HERNANIKO SAN JOAN JAIAK

Siete hernaniarras tocarán la dulzaina en Sanjuanes

Concierto de alumnos del conservatorio de música de Hernani.

226

Hernanin ereindako hazi horrek, gainera, herritik kanpora ere eman zuen fruiturik, inguruko herrietako dultzainero eta zaleengan tankerako topaketak antolatzeko gogoa piztuz. Errenteriako Madalenetakoak izan ziren Hernanikoei jarraitu zioten aurrenekoak, eta gaur egun, Hernani eta Errenteriakoez gain, Pasai Antxoko Sanferminetan, Donostiako Euskal Jaietan eta Oiartzungo Xanistebanetan ere ospatzen dira parekoak.

327

IRAILEAN, ALBOKARIEN HERNANIKO TOPAKETAK

1993an Eibarren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (Iraprest) Euskal Soinu-tresnetarako Irakasleagoaren Gaipenerako antolatutako ikastaroetan elkartu ginen albokarien artean aurkeztu genuen albokarien topaketak antolatzeko komenentzia. Elkar ezagutzea eta albokaren inguruan lantzen zena konpartitzea ziren antolatzaileon helburuak. Horrela, 1994an Hernani Musika Eskola Publikoko alboka taldeak antolaturik, martxan jarri zen geroztik urtero-urtero ospatu izan den Albokarien Hernaniko Topaketa.

328

Lehenengo bost edizioetan Hernaniko San Joan festen egitarauko azken egunean ospatzen den "baserritarren egunean" kokatu genuen albokarien topaketa. Sanjoanetako euskal herri kultura, kirol, dantza eta musikei eskainitako egun horretako antolatzaileek berehala onartu zuten albokarien eskaintza.

329

Eta, egia esateko, Hernanira inguratutako albokariok oso ondo pasa genuen bost edizio haietan, soinu-tresna hau erabat integratu zelarik herriko festen izaeran, eta hernaniarrek bere egin zuten albokaren hots eta musika. Baina, bestalde, ikusten genuen ekitaldi hau sanjoanetako osagai huts izatean geratzen zela, eta albokarien topaketa gisa, galdu samarra. Horregatik, albokari eta albokariei protagonismo handiagoa eman nahian, 1999an lehenengo aldiz, Albokarien Hernaniko 6. Topaketa sanjoanetako festen egitarautik kanpo antolatu genuen.

EUSKAL HERRIKO
ALBOKARIEN 6. TOPAKETA

HERNANI, 1999 URRIAK 24

330

Oso berezia izan zen edizio hura. Alde batetik, sanjoanetatik kanpo antolatu genuenez, festaz gain, alboka kontzertua ere antolatu ahal izan genuen, eta gure albokari zaharrei omenaldia egin genien. Egun bakarrekoa izan zen 6. edizio hartan garbi azaldu ziren ospakizun honen helburuak: Lehenik, Euskal Herriko albokari zahar eta gazte eta alboka ikasleei elkar ezagutzeko aukera ematea, egun pasa atsegina eginez. Bigarrenik, albokaren munduan ematen ari ziren berrikuntzak eta lantzen ari ziren musikak ezagutarazteko aukera ematea. Eta hirugarrenik, jende arruntari, eta bereziki gure eskualdekoei, soinu-tresna hau eta bere musika ezagutaraztea eta gerturatzea.

Helburu hauek jarraituz, urriaren 24an ospatutako Albokarien Hernaniko 6. Topaketan gurekin izan genituen Silbestre Elezkano "Txilibrin" eta Eugenio Etxebarria albokari ospetsuak. Etortzekoa zen Juan Otxandio ere, baina gaiso zegoela eta, ezin izan zuen guregana gerturatu. Goizeko 10:30ean udaletxeko arkupetan elkartzera egin ondoren, 11:00tan albokariak kale bueltak egiten hasi ziren herrian barrena, eta eguerdiko 12:30ean Ezkiaga Pasealekuan "Albokaldia" izeneko jaialdiari eman zitzaion hasera.

"Albokaldi" hori hasteko, Estitxu Izagirre Hernaniko bertsolariak ospakizun honetarako berak prestatutako bertsoak kantatu zituen, Juan Mari Beltranek egindako musikarekin eta honen albokaren laguntzarekin. Hona ekarri ditugu bertso haiek:

1) Seigarren topaketa
Ospatzen da pozik
Denborak albokari
Ez dio egin gaitzik
Sortu zen ezkeroztik
Ta mendeetan kasik
Ez da iraun duena
Bizi dena baizik.

2) Txilibrin, Juan, Eugenio
Bizkaitarrak denak,
Aspaldi xamar gazte
Izandu zirenak
Bizirik iraun zezan
Albokaren tresnak
Etenik gabe arnasa
Eman ziotenak.

3) Lehen taldeak badu
Grazia ta letxea
Alboka Alan Griffinen
Esku erortzea
besterik ez zen falta,
hauxe da trantzea!
Inglesak euskaldunei
Adarra jotzea!

4) Ibon Koteronek du
Kuadrila osatua
Trikitixa nahiz ta zen
Infernuko auspua
Ta txalaparta berriz
Jentilen jokua
Egiten dute gaurko
Musika kultua.

5) Xabaltx taldeak duen
Jotzeko irrika!
Nahiz polifonia zen
Beraien musika
Bihurtu da poligamia
Benetan polita
Musika talde bati
Adarra jarrita.

6) Eguerdian bazkari
Ederra dugunez
Albokariak bete
Jan eta edanez
Ta muxu-gorritzean
Joko dute errez
Alboka edo trabeska
Zuzen inork ere ez.

Bertso hauek kantatu ondoren, Eugenio Etxebarriak eman zion jaialdiari jarraipena martxa eta porrusalda joaz, Asier Elorriaga panderojole gaztearen laguntzarekin. Eta Eugenioren saioaren ondoren etorri zen aurretik aipatutako albokari zaharrei eskainitako omenaldia. Hirurak omendu nahi genituen baina bertara etorritako Txilibrini eta Eugeniori bakarrik eman genien Albokarien Hernaniko topaketaren oroigarri bana. Juan Otxandiori etxera bidali genion berea Manu Gojenolaren bitartez. Oroigarria jasotzerakoan Txilibrinek zerbait eskaini nahi zuela eta, panderoa jo eta kantatu zuen Juan Mari Beltran eta Eugenioren laguntzarekin.

331

Omenaldi xume honen ondoren etorri zen albokari berrien emanaldi nagusi aparta: Lehena irlandar jatorriko Alan Griffin izan zen, "Alboka" bere taldeko kideen laguntzaz. Bigarrena, Ibon Koteron bizkaitar albokari ospetsua Iñaki Plaza eta Ruben Isasiren laguntzaz. Hirugarrena eta jaialdia isten, Gasteizko Karlos Subijana, Xabaltx eta taldearen laguntzaz. Hiru albokari berri, hiru albokari on eta hiru estilo ezberdin. Jendeak gozatu zuen benetan Albokaldi hura.

332

14:30ean Santa Barbara Elkartean 6. Topaketan parte hartutako guztion bazkaria izan genuen, eta ondoren ez ziren falta izan albokaren musika, kantuak eta dantzak. 18:30 aldera albokari eta pandero joleak herriko kale eta plazatan aritu ginen gure musikaz inguru horiek girotzen.

Ezin dugu ahaztu edizio hartatik aurrera urtero antolatu izan dugun albokagileen azoka-erakusketa ere. Bertan, albokak egiteko duten trebezia eta egindako azken berrikuntzak ikusteko aukera izan dugu.

333

334

7. topaketatik aurrera, egitaraua zabaltzen joan zen, kalez-kalekoei eta Albokaldiari beste zenbait ekintza erantsi zitzaizkiolarik: esandako azoka-erakusketa, bezperan eskainitako kontzertuak, tailerrak eta aurkezpenak. Aipa ditzagun hauek.

Kontzertuak

- 1999 (6. topaketa): lehen aipatutako Alan Griffin, Ibon Koteron eta Karlos Subijana albokarien parte-hartze garrantzitsua izan genuen.
- 2000 (7. topaketa): "Albokaz egindako bidea" kontzertua Juan Mari Beltran Argiñena albokariaren eskutik. Hernaniko Musika Eskola Publikoko alboka irakaslea den albokari honek "Sustraiak", "Azala", "Txanbela" eta bestelako taldeetan albokarako egindako eta moldatutako musika bilduma eskaini zuen, Txanbela taldean garai hartan berarekin jotzen zuen musikari laukotearen laguntzaz.
- 2001 (8. topaketa): Arabako Xabier Aretxandieta albokariaren "Malapartatuen batza". Albokak, txistuak eta bestelako soinu-tresnek osatutako taldearen eskutik.
- 2002 (9. topaketa): Ibon Koteron Bilboko albokari ospetsuaren "Lurraren negarra" proiektu berriaren aurkezpena. Ibonekin batera, trikitixa, perku-

sioa, txalaparta eta ahotsean, Ruben Isasi, Iñaki Plaza eta Asier Elorriaga.

- 2003 (10. topaketa): Barakaldoko "Hala Dzipo" herri musika eskolako alboka taldearen kontzertua.
- 2004 (11. topaketa): Bizkaiko "Kukuma" taldeak aurkeztu zuen argitaratu berri zuen diskoa. Xabier Valle: alboka, gaitak, whistle-ak, ahotsa. Pottoki: alboka eta ahots nagusia. Ruben Isasi: trikitixa, flautak eta ahotsa. David Nanclares: gitarrak eta ahotsa. Jose Llorach: bateria eta perkusioak. Txeroki: perkusioak. Victor Gomez: baxua.
- 2005 (12. topaketa): Ibon Koteronek "Airea" disko berria aurkeztu zuen.
- 2006 (13. topaketa): Hernani Musika Eskolako Alboka Taldearen eskutik "Mariano Barrenetxearen ekarpenetik abiatuta" izenburuko kontzertua.
- 2007 (14. topaketa): joera, jotzeko modu eta eredu ezberdinak aurkeztuz, "Launeddas" eta alboka joleen jaialdiak. Larunbatean, Mixel Ducau (Bidaia bikotea), Sardiniako Andrea Pisu ("launeddas" soinu-tresnaren musika emanaldia) eta Juan Mari Beltran (seikotea) Oiartzungo udaletxean. Igandean, Usurbilgo Albokari Taldea (bertsolariekin batera), Bizkaiko "Albokale" taldea eta Hernani Musika Eskolako albokari taldea Hernanin.
- 2008 (15. topaketa): "Aintzina" taldea, Alan Griffin albokari zutela.
- 2009 (16. topaketa): "Nafarroako Albokariak Elkartea" taldearen kontzertua. Nafarroa Garaiko eta Behereko usadiozko doinuak eta kantu zaharrak ikuspegi berri batetik, txistu, xirula eta ttun-ttun, biolin eta albokaz.

Tailerrak eta aurkezpenak

- 2004ko 11. topaketan Manu Gojenolak, berak idatzitako "Albokaren alde batzuk" liburua aurkeztu zuen eta historia horretako protagonistetako bat zen Eugenio Etxebarriaren laguntza izan zuen.
- 2007ko 14. topaketan "launeddas" eta alboka tailerra antolatu genuen. Bertan Andrea Pisu izan genuen launeddas direlakoen teknikak irakatsiz, hala nola Fede de Dios arnasketa zirkularraren irakaskuntzari buruzko tailer batekin.
- 2008ko 15. topaketan Ibon Koteron albokari bilbotarraren eskutik "Alboka: eredu berriak eta digitazioa" izenburuko tailerra, gerturatutako albokari guztientzat.
- 2009ko 16. topaketan "Eugenio Etxebarria albokaria" liburu eta DVDaren aurkezpena egin zen.

335

Omenaldiak

1999ko Albokarien Hernaniko 6. Topaketan lehen aipatutako Juan Otxandio, Eugenio Etxebarria eta Txilibrin albokari zaharrak omendu genituen. Handik abiatuta, zenbait albokariren oroipena gorde nahi izan dugu haiei omenaldi xumeak eskainiz.

- 2000.eko topaketa, hil berria zen Juan Otxandio albokariaren oroimenez egin genuen.
- 2001eko topaketaren bitartez Andoni Sagarna Zeanuriko albokari zaharra omendu genuen.
- 2002koan Zegamako Patxi Gorrotxategi (1913-1998) albokaria izan zena omendu genuen.
- 2003koa berriz, hil berri zitzaigun Silbestre Elezkano "Txilibrin" albokari maisuaren omenez eta oroimenez antolatu genuen.
- 2006koan Mariano Barrenetxea izan genuen omendua (1937-2006).
- 2009koa Eugenio Etxebarria (Dima, 1920 – Arrigorriaga, 2008) albokariaren oroimenez ospatu genuen. Arrazoi horregatik, igande goizean, Hernani Musika Eskola Publikoko egoitzan, Eugenioren familiaren ordezkaritza zabal bat gurekin zela Manu Gojenolak eta Juan Mari Beltranek prestatutako "Eugenio Etxebarria albokaria" liburu eta DVDaren aurkezpena egin genuen, esan bezala.

336

HERNANI MUSIKA ESKOLA, HERRI MUSIKA IRAKASLE, MUSIKARI ETA TALDEEN HARROBIA.

Hernani Musika Eskolak egin duen 25 urteko ibilaldian, herri musikaren arloan, beste eskoletarako erreferentzia bihurtu da. Eskola askotan erabiltzen dira hemen sortutako eta hemen erabiltzen ditugun prestakuntzarako materialak. Hernaniko eskolako ikasleak Euskal Herri osoan, eta kanpoan ere bai, beste eskoletan irakasle ere izan dira. Kasu batzuetan areago, eskola berri horien sortzaile. Horren adibide, hona hemen gure eskolako irakasle eta ikasleek Euskal Herrian barrena eman izan dituzten ikastaroetako batzuk (horietako mordoska bat gero eskola eta talde ezberdinak izango zirenen hazia ere baziren):

- 1987an eta hurrengo urteetan, Euskal Dantzarien Biltzarrak Bilbon antolatutako txalaparta ikastaroak. Bertan sortu zen, besteak beste, geroztik oso emankorra izan den Sestaoko Txalaparta Eskola.
- 1987an eta hurrengo urteetan Udako Euskal Unibertsitateko Musika Sailak antolatutako herri musika eta soinu-tresnen inguruko ikastaroak.
- 1988an eta hurrengo urteetan Ortzadar taldeak Iruñean antolatutako Txalaparta ikastaroa.

- 1989an Euskal Herriko Unibertsitateko Maisu Eskolak Gasteizen antolatutako herri musika Ikastaroa.
- 1990ean eta hurrengo urteetan Ortzadar taldeak Iruñean antolatutako Alboka ikastaroa.
- 1992an eta hurrengo urteetan Euskal Herriko Unibertsitateko Magisteritza Fakultateak musika habilitaziorako Bilbon eta Donostian antolatutako Herri Musika eta Soinu-tresnak ikastaroa.
- 1994an Eusko Jaurlaritzak herri soinu-tresnetan Musika Eskoletako irakaslegoaren habilitaziorako Eibarren antolatutako Alboka, Dultzaina eta Txalaparta ikastaroak.
- 2004an eta hurrengo urteetan Arizkungo Dolare Etxean, Baztango txalaparta eskolako "Jo ala jo" taldeak antolatutako Txalaparta ikastaroak.
- 2006an Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak antolatutako. "Percusiones del mundo" ikastaroa.
- 2006tik aurrera Gernikan eta Oiartzunen Lehen Hezkuntzako Musika Irakaslegoaren prestakuntzarako ikastaroak.

Euskal Herritik kanpo ere ibili dira Hernani Musika Eskolako irakasle eta ikasleak ikastaroak ematen. Hona hemen horietako batzuk:

- 2002an Ourenseko "Escuela Provincial de Gaita"ren egoitzan Euskal herri soinu-tresnak hitzaldia.
- 2003-08-12an eta 13an: IV Encuentro latinoamericano de educación musical. Escuela nacional de música - UNAM. México, D. F. Conferencia magistral. Sala Xochipilli: Iniciacion a la musica en la cultura popular. "Los instrumentos de uso infantil en la educación musical".
- 2004-08-03an Valentziako Camporrobles herrian antolatutako "III Campus de Verano *Villa de Camporrobles* para jóvenes percusionistas". Música Tradicional del País Vasco. Txalaparta ikastaroa.
- 2007-09-09. Boiseko Unibertsitatean (Idaho, EEBB). Historia Fakultatean. Euskal herri soinu-tresnak eta musika.

Hernani Musika Eskola, herri musika irakasle, musikari eta taldeen harrobia izan da. 25 urteotan gure eskolan herri soinu-tresnen inguruan maila handiko irakaslegoa prestatu da, eta esan dugunez, gaur egun musika eskola askotan dauzkate edo izan dituzte gure eskolan ikasitako irakasleak. Hona horietako batzuk: Astigarragako Musika Eskolan alboka eta dultzaina irakaslea, Usurbilgo Zumarte Musika Eskolan alboka irakaslea, Trintxerpeko Pasaia Musikal Musika Eskolan alboka irakaslea, Urnietako Musika Eskolan txalaparta irakaslea, Andoaingo Musika Eskolan txalaparta irakaslea, Lezoko Tomas Garbizu Musika Eskolan txalaparta irakaslea, Pasaia Lizeoan txalaparta irakaslea, Ziburuko Txalaparta Eskolan, Oiartzungo Herri Musika Eskolan alboka, dultzaina, txalaparta eta txistu irakasleak, Igeldoko Musika Eskolan txistu irakaslea, Donostiako Axular Musika Eskolan txistu irakaslea, Donostiako Easo Musika Eskolan dultzaina irakaslea,...

Izan ditugun goi mailako ikasleen artean badira musikari interprete izatearen bidea aukeratu dutenak. Halako batzuk Hernani eta Donostia inguruko Dantza taldeetan jotzen aritu dira: Donostiako Goizaldi, Trebeska, Arkaitz eta Kresala taldeak, Errenteriako Ereintza eta Iraultza, Hernaniko Ttarla, Andoaingo Urki, Irungo Kemen, Tolosako Udaberri, Goizuetako Umore Ona, Aukeran dantza konpainia, Euskal Dantzarien Biltzarra, Beasaingo Haurtzaka, Amezketako Arkupe,... Besteak antzerki taldeetan: Txontxongillo taldea, Komediaka, Agerre teatroa... Badira musika taldeetan eman dutenak beren jarduera musikala: Txanbela taldea, Goikoetxea-Beltran taldea, Sidhe folk taldea, Kepa Junkera taldea, Alboka taldea, Briganthya, Xarnege,... Eta beren taldea sortu dutenak ere bai: Hernaniko dultzaineroak, Hernani Musika Eskolako Txistu taldea, Ugarte anaiak, Zurartean taldea edo Oreka Tx bezalako taldeak. Talde batzuetan eta besteetan, gure eskolako euskal soinu-tresna joleak, munduko herri askotan ibili dira hain aberatsa eta berezia den gure kulturaren alderdi musikal hau erakusten.

Ikusten denez, bide zoragarria, aberatsa eta emankorra benetan gure eskolak egin duena. Eta aurkezpen hau bukatzeko, herri musika mailan lortu ditugun emaitza onen oso adierazgarria izan daiteke, 25. urteurrena dela eta antolatu den *Ikasle ohien kontzertu ziklo berezian*, herri musika arloan Hernani Musika Eskolan ikasita eta gaur egun musikari eta irakasle diren ikasle ohiek eskaini duten kontzertua. 2010eko aprilaren 16an, Biteri Kultur Etxeko areto nagusian, gure ikasle ohiek txalaparta, txistu, alboka eta dultzainan oinarritutako kontzertu aparta eskaini zuten. Kontzertuan honako ikasle ohiek parte hartu zuten: Oreka Tx (Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte), Iñaki Eguren, Haritz Ezeiza, Ander Barrenetxea, Ane Errege Belda eta Joseba Aldasoro, Miriam F. Atxaerandio eskolako biolin irakaslea lagun zutela.

Azaldutako honek guztiak garbi erakusten du gure Musika Eskolak Hernanin izan duen garrantzia. Zalantzarik gabe, Hernaniko herri bizitza soziala, eta bereziki musika arlokoa, ez zen izango gaur egun den bezalakoa, gure Musika Eskolako herri musika taldeen presentziarik gabe.

OHARRAK

1. Archivo Municipal de Hernani: Cuentas. (1952): Aita Donostia. *Historia de las Danzas de Guipúzcoa-Instrumentos Musicales del Pueblo Vasco.* Ed. Icharopena, Zarauz. (1983): *Instrumentos musicales populares vascos.* Obras Completas del P. Donostia'n, II. alea, 257-309 or. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. (1983): *Instrumentos musicales populares vascos.* Obras Completas del P. Donostia'n, II. alea, 257-309 or. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.

2. E. Boucher, *Souvenirs du Pays Basque et des Pyrénés en 1819 et 1820.* Paris, 1823. pag. 109.

3. Mariemma. *En torno al Ballet Español.* Revista de Folklore. Nº 8. T. 01b. Valladolid, 1981. pag. 15.

4. APEZETXEA AGIRRE, Patxi (1992): *Hernani eta txistua. Bere txistulariak / sus txistularis.* Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia-San Sebastián.

5. RAMOS, Jesus (1990): *Materiales para la elaboración de un censo de músicos populares de Euskal Herria, a partir de los instrumentistas llegados a Iruñea en el Siglo XVIII.* Institución Principe de Viana. Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, 55 zbk. 91-138 or. Pamplona.

6. *Ikus* 4. oharra.

7. Juan Mari Beltran Argiñena (2004): *Dultzaina Gipuzkoan. 1950. hamarkada arte. La dulzaina en Gipuzkoa. Hasta la década de 1950. The dulzaina of Gipuzkoa. Until the decade of 1950s.* Herri Musika Bilduma, 1. HM Txokoa. Oiartzun.

8. *Ikus* 7. oharra.

9. Juan Mari Beltran (2009) *Txalaparta.* (liburua+CD+DVD). Editorial Nerea – NO-CD Rekords. Donostia-San Sebastián.

10. *Ikus* 9. oharra.

11. Juan Mari Beltran: *"20 años Txalaparta Festa 20 urtetan"* CDRom, Kepa Ugarte informatikoaren laguntzarekin. HMZ-CDR-SS-690- 2007

12. *Ikus* 11. oharra.

13. SANCHEZ GONZALEZ, F.J. (1995): *Txalaparta. Breve estudio Acústico-Musical.* Txistulari aldizkaria. 162 zenb.

14. Juan Mari Beltran (2007) *Hernaniko txalaparta eskolaren 11 ikasturte.* Jentilbaratz 9. Cuadernos de Folklore, 9. Eusko Ikaskuntza.

15. SANCHEZ GONZALEZ, F.J. / BELTRAN ARGIÑENA, J.M. (1998): *Una teoría numérica del ritmo aplicada a la txalaparta.* Txistulari aldizkaria, 173 zbk.

16. *Ikus* 11. oharra.

ERANSKINAK
-
BESTE AURKIBIDEAK

IRUDIEN AURKIBIDEA

001	Atzieta 4ko eraikina mende haseran, eskola publikoa zen garaian.
002	1996. Atzieta 4ko eraikina eraberritzeko lanak.
003	1935 ingurua. Hernaniko Udal Musika Banda, Jose Maria Gonzalez Bastida maisuaren zuzendaritzapean.
004	1962-06-24. Joxe Ansorena Atarrabiyo agurtzen, erdian Jose Antonio Ruiz Bona dutela.
005	1970eko hamarkada. Txistulari gazteak prozesio buruan. Arg.: Joxan Goikoetxea.
006	1890 ingurua. Teodoro Erauskin, Juanito Olaizola eta Patxiku, Hernaniko udal danbolinteroak. Arg.: Patxi Apezetxea.
007	Jose Olaizola Gabarain.
008	1970eko hamarkada. Txobito txistu ikasleekin. Arg. Patxi Apezetxea.
009	1980 ingurua. Juan Joxe Iruretagoienaren solfeo eskola.
010	1970eko hamarkada. Txobitoren ikasleen kontzertua udaletxean.
011	1985. Montserrat Auzmendi ikasleekin.
012	1980 ingurua. Juan Joxe Iruretagoiena haur abesbatza zuzentzen Tilosetan.
013	1989. Solfeo eskola.
014	1991. Akordeoi ikasleak, iganderoko saioetako batean.
015	1989-05-20. 3. Txalaparta Festa.
016	1990-12. Arrasateko akordeoi lehiaketan sarituak Maribel Insausti irakaslearekin.
017	1988-05-14. 2. Txalaparta Festa.
018	1988-06. Dultzaineroak diana jotzen, San Juanetan.
019	1992 ingurua. Erramun Oiartzabalen saxofoi eskola.
020	1994-06-17. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua Biterin.
021	1993-05-15. Trikitilariak 7. Txalaparta Festan.
022	1995 ingurua. Piano eskola.
023	1994-06-27. Albokarien Hernaniko 1. Topaketa.
024	1995-12-22. Gabon Kantuz Jaialdia. Musika eskolako abesbatza, txapelketan garaile.
025	1998-06-15. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua Sandiusterrin. Hastapenekoak eta akordeoi joleak.
026	1997-11-26. Atzieta 4ko eraikin berriaren inaugurazio ekitaldia.
027	1999. "Hernanin Entzuna" diskoaren grabaketan parte hartu zutenak, tartean musika eskolako ikasle eta irakasleak.
028	1997 ingurua. Ana Martinezen hastapenekoen eskola.
029	1999. Donostia Hiria piano lehiaketa. Maddi Mitxelena pianoan, Donostiako udaletxeko areto nagusian.
030	2000 ingurua. Hernasax saxofoi taldea, auzoz auzo, eguberri eguneko errondan (argazkian, Marieluts auzoan).
031	2000-06-23. Trikitilariak San Juanetako festen hasierako buruhandiekin.
032	2001-11. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Abesbatza.
033	2001-06-18. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Dultzaineroak Plaza Berrin.
034	2004-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Perkusioko ikasleak.
035	2001-11. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Ander Uzkudun (pianoa) eta Asier Razkin (saxofoia).
036	2003-04-05. Elgoibar Herria instrumentu taldeen II lehiaketa.
037	2003-11. Trikitixa eskola.
038	2006-06-17. Preludio Txikia. Garbiñe Orbegozo zuzendari.
039	2005-05-01. Hernaniko I. Txistulari Jaialdia. Jon Ansorena, Txistulari Gazteen I. Txapelketako A kategorian txapeldun.
040	2003-03-03. Dultzaineroak erraldoien kontzentrazio batean, txotx denboraldia zela eta.
041	2005-02. Elgoibar Herria instrumentu taldeen lehiaketa. Saxoka taldea
042	2006-02-11. Andoaingo Piano Jaialdiaren 1. edizioan parte hartu zuten musika eskolako ikasleak.

043	2006-11. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Pianistak.
044	2007. Akordeoi taldea Chillida-Lekun.
045	2007-05-19. 21. Txalaparta Festa. Txistu taldea kale bueltan.
046	2007-07. Hernasax Chillida-Lekun.
047	2009-06-17. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Hastapeneko haurrak.
048	2009-06. Abesbatza.
049	2009-05-29. Sormenaren mobilizazioa, Donostiako Okendo plazan. Saxofoi taldea.
050	2009-05-02. Dultzaineroak Itziarreko erromerian.
051	2001-06. Lourdes Alkorta soinu txikia joz.
052	1992 ingurua. Hernasax. Goitik behera: Pedro Mari Lizarza, Luis Mari Moreno «Pirata», Erramun Oiartzabal eta Zipri Otxandorena.
053	2001-06. Joxan Goikoetxea San Joanetako Iragarpen Kontzertua (Preludioa) zuzentzen.
054	2002. Eli Iragorri eta Maribel Insaustiren akordeoi eskola.
055	2009-12-22. Susi Elosegi gitarra ikasleekin gabonetako entzunaldirako entsaioan.
056	2010-06-23. Musika eskolako langileak.
057	1998 ingurua. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Abesbatza, Garbiñe Orbegozo zuzendari duela.
058	2005-06-14. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Abesbatza, Garbiñe Orbegozo zuzendari duela.
059	2009-06-12. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Abesbatza, Garbiñe Orbegozo zuzendari duela.
060	2008. Amaia Aldalurren hastapeneko 7 urtekoen talde bat.
061	2010-06-14. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Hastapenekoak.
062	2010-06-17. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Pianoa.
063	2009-06. Teklatu ikasleak Arantza Alberdi irakaslearekin, Preludio Txikiaren aurretik.
064	2005-06-20. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Teklatu taldea.
065	2002-11-22. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Akordeoi ikasleak.
066	2001-06. Piano entzunaldia. Miren Zubillaga pianoan.
067	1999-11-19. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Janire Garin akordeoia joz.
068	2004-05-28. Musika eskolako Akordeoi Orkestrako kideak, Donostian Lauhaizeta akordeoi orkestrarekin kontzertua eskaini aurretik.
069	2007-06. Trikitixa eskola.
070	1999-11-19. Santa Zeziliako ikasle kontzertua. Aurrean Ixiar Jauregi pandero jotzen.
071	2009-03-28. Trikitilariak Erriberriko (Olite) kaleetan barrena, bertako musika eskolarekin elkartrukea egindako egunean.
072	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Trikitilariak.
073	2003-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Pandero joleak aurrean.
074	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Saxofoi laukotea.
075	2005-06-15. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Saxofoi laukotea.
076	2003 ingurua. Lierni Mateos saxofoi eskolan.
077	2008. Klarinetistak Anoetan.
078	1992 ingurua. Aldasoro Alberro anaiak, tronpeta eta akordeoia jotzen.
079	2009-05-09. Hernasax saxofoi taldea, Javier Girottorekin batera eskaini zuen kontzertuan.
080	2001. Dultzaineroak iganderoko saioetako batean.
081	2007-10-28. Alboka taldea Zaldibiko Ardiki Egunean.
082	1988-05-14. Albokariak 2. Txalaparta Festan. Javi Morcillo eta Joxemari Karrere.
083	2005-06-13. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Dultzaineroak.
084	2009-06-26. Dultzaineroak erraldoi eta buruhandientzat jotzen, San Juanetako laugarren egunean.
085	2005-10-02. Musika eskolako alboka ikasleak Albokarien Hernaniko 12. Topaketan.
086	2006-05-20. Ttakun-ttan-ttakun txalaparta taldekoak 20. Txalaparta Festan. Ander Barrenetxea eta Aitor Beltran txalapartari.
087	1997-05-17. Ttakun-ttan-ttakun txalaparta taldekoak 11. Txalaparta Festan. Arantxa Ansa eta Arantxa Lasalde txalapartari eta, atzean, Marian Beitialarrangoitia aurkezle.
088	2010-04-24. «Txinboak» txistu taldea, Hernaniko VI. Txistulari Gazteen Lehiaketan.
089	2009-05-23. Ttakun-ttan-ttakun txalaparta taldekoak 23. Txalaparta Festan.

090	1990-05-19. Txistulariak 4. Txalaparta Festan.
091	2001-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Biolin taldea.
092	2005-06-14. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Biolontxelo ikasleak.
093	2003-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Jon Muniategi biolina joz.
094	2009-06. Biolinistak Miriam Atxaerandiorekin Preludio Txikia jo aurretik.
095	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Biolontxeloa.
096	2003-11-22. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Gitarristak.
097	2001-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Perkusio ikasleak.
098	2005-06-14. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Gitarra.
099	1995 ingurua. Ekhin taldea, udaletxeko teilatuan.
100	2007-06-03. Perkusionistak iganderoko saioetako batean.
101	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Joseba Aldasoro baterian.
102	2004-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Joera ezberdinetako taldea.
103	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Abesbatza, ikasleen banda, akordeoi orkestra eta txistulariak, Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean.
104	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Pianoa.
105	1999-11-19. Santa Zeziliako ikasle kontzertua. Pianoa eta saxofoia.
106	2008-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Hastapenekoak.
107	2005-06-15. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Saxofoi taldea.
108	2007-11. Santa Zeziliako ikasle kontzertua. Soka taldea.
109	2009-03-28. Elkartrukea. Hernaniko ikasle eta irakasleak Erriberrin (Olite).
110	2008. Ikasleen banda iganderoko saio batean. Josetxo zuzendari.
111	2009-05-23. 23. Txalaparta Festa. Arantxa Mendiluze eta Kasia Palczewska txalaparta jotzen.
112	2008-12-13. Dultzaina taldea Xixonen (Asturies).
113	2010-04-25. Hernaniko VI. Txistulari Jaialdia. Txistulariak diana jotzen Lizeaga auzoan.
114	2005. 19. Txalaparta Festako kartela.
115	2004. Albokarien Hernaniko 4. Topaketako kartela.
116	1997-05-16. 11. Txalaparta Festa: Txalaparta Party Aparta. Iñigo Monreal eta Harkaitz Martinez de San Vicente txalaparta jotzen «Yausika» dantza lekuan.
117	2008-04-19. Elgoibar Herria Instrumentu Taldeen VII. Lehiaketa. Hernasax taldea.
118	2007-03-10. Elgoibar Herria Instrumentu Taldeen VI. Lehiaketa. Leoka, Saxoka eta Hernasax taldeak.
119	2008-04-19. Elgoibar Herria Instrumentu Taldeen VII. Lehiaketa. Leoka taldea.
120	2004-06-19. Preludio Txikia.
121	2005-06-18. Txistu taldea Preludio Txikian.
122	2008-06-14. Garbiñe Orbegozo Preludio Txikia zuzentzen.
123	2008-06-14. Txistulari, albokari, saxofonista eta soinu joleak Preludio Txikian.
124	2000 ingurua. Trikitilariak San Juan erronda eginaz koplariekin, San Juan bezperaz.
125	2009-06-24. San Juan eguneko diana. Aurreneko lerroan musika eskolako txistulariak.
126	2009-06-23. Ikasleen banda eta zaletuak, San Juan festen hasierako kale bueltan.
127	2009-06-27. Txistulariak (eta laguntzaileak) axeri dantzan, astinduta ere isildu gabe.
128	1999-11-21. Hernaniko Trikitilari Gazteen lehiaketa elurretan ospatu zen.
129	1997-12-22. Gabon Kantuz Jaialdia. Musika eskolako abesbatza.
130	2007-07. Lauhaizeta akordeoi orkestra Chillida-Lekun.
131	2003-09-09. Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatutako Dantzari Eguna Iruñan. Musika eskolako txistulariak.
132	2007. Ikasleen banda Anoeta futbol zelaian.
133	2010-06-23. San Juan festen hasiera. "Hernani" Musika Eskola Publikoari omenaldia, bere 25. urteurrenean.
134	1955 ingurua. Hernaniko Udal Musika Banda, Jose Antonio Ruiz Bona jaunaren zuzendaritzapean.
135	1930 ingurua. Ugalde anaiak. Arg.: Patxi Apezetxea.
136	1960 ingurua. Hernaniko udal txistulariak. Joxe Ansorena, Patxi Ansorena eta Juanito Ugalde.

137 1970eko hamarkada. Santa eskean. Aurrean, akordeoi ikasle gazteak. Arg.: Joxan Goikoetxea.

138 Manuel Yaben, etxeko, lagun eta udal ordezkariz inguratua, omendutako egunean.

139 1970eko hamarkada. Txobito txistu ikasleekin. Arg.: Patxi Apezetxea.

140 1980 ingurua. Juan Joxe Iruretagoienaren solfeo eskola.

141 1980 ingurua. Juan Joxe Iruretagoienaren solfeo eskola.

142 19780 ingurua. Juan Joxe Iruretagoiena haur abesbatza zuzentzen Tilosetan.

143 1985. Montserrat Auzmendi ikasleekin.

144 1989. Solfeo eskola.

145 1994-05-14. 8. Txalaparta Festa.

146 1989-05-20. 3. Txalaparta Festa.

147 1989 ingurua. Txistu taldea iganderoko saioan.

148 1988-06. Dultzaina taldea.

149 1990-02-25. Akordeoi ikasleak iganderoko saioan, inauteritan.

150 1992-12. Gabonetako erronda.

151 1994 ingurua. Trikitilariak Ezkiaga pasealekuan.

152 1995 ingurua. Joxan Goikoetxearen akordeoi eskola.

153 1992 ingurua. Akordeoi kontzertua Plaza Berrin.

154 1995-06-27. Albokariak erraldoi eta buruhandiekin, San Juanetan. Albokarien Hernaniko 2. Topaketa.

155 1993-08-15. Hernaniko dultzaineroak, Debako San Roke festetako koadrilen egunean.

156 1996-06. San Joanetako Iragarpen Kontzertua (Preludioa). Aurreko lerroetan, musika eskolako abesbatzako kideak.

157 1998 ingurua. Garbiñe Orbegozoren Lengoaia Musikaleko talde bat.

158 1998 ingurua. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Arantza Alberdi pianoan bi biolin ikaslerekin.

159 1999-03. Donostia Hiria piano lehiaketa. Lide Agirrezabala eta Eider Balerdi, sarituak.

160 1999 ingurua. Roberto Pacheco, saxofoi irakaslea.

161 1999 ingurua. Ikasleen banda olentzerorekin irteteko prest.

162 2000-06-23. Txalapartariak San Juan festei hasiera emanaz, txupinazoaren aurreko omenaldian.

163 2001-06-18. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Txistulariak Plaza Berrin.

164 2001-11. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Ikasleen banda.

165 2004-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Pianoa.

166 2004-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Gitarra eta akordeoi ikasleak.

167 2001-11. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Erik Mora pianoan.

168 2005-06-18. Ikasleen banda Preludio Txikian.

169 2006. Musika eskolako ikasle, irakasle eta guraso taldea Kantabrian.

170 2008-05-08. Kontzertu pedagogikoa Irungo Erain-Txiki ikastolan. Saxofoi, perkusio eta piano ikasleak.

171 2006-04-29. Hernaniko II. Txistulari Gazteen Txapelketa. "Leokadisti" txistu taldea.

172 2007-06-23. Alboka taldea San Juan festen hasierako kalejiran. Zinko-enea.

173 2010-06-17. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Pianoa.

174 2009-11-20. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Txalapartariak eta abesbatza.

175 2007-06-22. Ikasturte amaierako ikasleen kontzertua. Akordeoi orkestra. Maribel Insausti zuzendari.

176 2009-06-23. San Juan festen hasierako kale buelta. Dultzaineroak.

177 2009-05-16. Musikaldia Mungian. Akordeoi taldea.

178 2010-06-27. San Juanetako banderen jeitsiera.

179 2001-06. Eli Iragorri akordeoi irakaslea.

180 2005-06-14. Juan Mari Beltran alboka eta txalaparta irakaslea.

181 1998-11-19. Ana Martinez zuzendaria eta 1997-98 ikasturteko diploma jasotako ikasleak.

182 2010-06-23. Musika eskolako irakasleak, lehendakaria (alkatea) eta udal ordezkariekin.

183 2009-05-22. Arantza Alberdi teklatu taldearekin entsaiatzen.

184 2001 ingurua. Roberto Pachecoren saxofoi eskola.

185 2008-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Abesbatza.

186 2010-06-14. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Hastapenekoak.

187 2007-06-22. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Akordeoia.

188 2009-06-23. San Juan festen hasierako kale buelta. Akordeoi taldea.

189	2002-11-22. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Akordeoi ikasleak.
190	2008-02. Andoaingo Piano Jaialdian parte hartutako ikasleak.
191	2009-06-12. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Pianoa.
192	2010-06-17. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Pianoa.
193	2007-06-16. Trikitilariak Preludio Txikian jotzeko pronto.
194	2003-11-22. Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua. Pandero joleak aurrean.
195	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Nahikari Acuña pandero jotzen.
196	2009-06-23. Trikitilariak San Juan festen hasierako kale bueltan.
197	2001-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Trikitilariak Plaza Berrin.
198	2008-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Klarinete joleak.
199	1999-11-19. Hernasax saxofoi taldea, Santa Zeziliako ikasle kontzertuan.
200	2008. Saxofoi laukotea, Anoetara joan aurretik Hernanin kale bueltan.
201	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Aurrean, Jon Erdozia saxoa jotzen.
202	2005-06-15. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Saxofoi laukotea.
203	2001-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Klarinetistak Plaza Berrin, trikitilariek lagunduta.
204	2002-06. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Tronpeta ikasleak Aritz Lonbide irakaslearekin.
205	2009. Tronpeta eta klarinete joleak San Juan festen hasierako kale bueltan.
206	2001 ingurua. Tronpeta eskola.
207	2005-10-02. Alboka taldea Albokarien Hernaniko 12. Topaketan.
208	2009-06-23. Musika eskolako alboka ikasleak San Juan festen hasierako kale bueltarako prest.
209	2005-06-26. Dultzaineroak erraldoi eta buruhandientzat jotzen, San Juanetako laugarren egunean.
210	2001-05-19. Dultzaineroak 15. Txalaparta Festan.
211	2009-06-23. Txistu ikasleak San Juan festen hasierako kale bueltan.
212	2005-06-13. Ikasturte amaierako ikasle kontzertua. Txalaparta.
